



Hizkuntza-ebaluazioko terminoen glosategia

ALTEko partaideek prestatua

Hizkuntza-ebaluazioko terminoen glosategia

ALTEko partaideek prestatua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Multilingual glossary of language testing terms. Euskara

Hizkuntza-ebaluazioko terminoen glosategia / ALTEko partaideak prestatua ; [koordinatzailea, Michael Milanovic]. - 1. argit. - Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

or. ; cm. - (Glotodidaktika-lanak ; 71)

ISBN 978-84-457-2447-7

1. Ingelesa-Irakaskuntza-Ebaluazioa-Hiztegiak. I. Milanovic, Michael. II. Association of Language Testers in Europe. III. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

IV. Izenburua. V. Bilduma.

811.111 :37.012(038)

Argitaraldia:	1.a, 2007ko otsaila Interneterako bertsioa, glosategia eguneratu eta osatuta: 2014ko apirila
Ale-kopurua:	700 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila 2006 (euskarazko bertsioarena)
©	University of Cambridge Local Examinations Syndicate, 1998 (jatorrizko edizioarena)
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia Kalea, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Izenburua:	Hizkuntza-ebaluazioko terminoen glosategia
Jatorrizko izenburua:	Multilingual glossary of language testing terms
Koordinatzailea:	Michael Milanovic
Prestatzaileak:	ALTEko partaideak
Euskarazko bertsioa:	Ibon Olaziregi
Azala:	Jesus Ituriza
Fotokonposizioa:	RGM, S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
Inprimaketa:	RGM, S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	978-84-457-2447-7
Lege-gordailua:	BI - 3486-06

Hitzaurrea

ALTE (Association of Language Testers in Europe) 1990ean sortu zenetik, bertako partaideak urtean birritan elkartu izan dira proiektu berriak pentsatu eta garatzeko, horrela hizkuntzen ebaluazioan lanean ari diren pertsoneri laguntzeko eta baita ebaluazio-zerbitzu horiek erabiltzen dituzten erakunde eta elkartei laguntzeko ere. ALTEko partaideak epe luzerako proiektu batean ari dira lanean, eta proiektu horren azken helburua honako hau da: atzerriko hizkuntzen mugari-mailen erreferentzia-markoa zehaztea, horretara, Europako Batasuneko herrialdeetan lorturiko agiriak alderatu eta parekatu ahal izateko.

Proiektuaren hasierako fasean dokumentu batzuk sortu ziren: *Europako Hizkuntza Azterketak*, *ALTEren jokabide-kodea* eta *ALTEren Erreferentzia Markoa* (orain dokumentu bate-ratuan bilduta daudenak- *ALTEren Eskuliburua*).

Lanaren hasiera-hasieratik garbi gelditu zen, partaideek hamar ama-hizkuntza baino gehiago zituztenez gero, hizkuntzen ebaluazioari eta testgintzari buruzko kontuak eztabaidatzeko premia-premiazkoa zela terminoen baliokidetzeta-sistema bat eraikitzea hizkuntza horietan guztietan. Hitz teknikoak edo erdi teknikoak erabiltzen ditugunean, geure buruaz seguru sentitu behar dugu. Zehaztasuna behar dugu terminoen esanahian: hizkuntza desberdinetan esanahi bertsua dutela diruditen terminoek benetan zer esan nahi duten jakin behar dugu. Glosategi hau egiteko hasierako materiala CITO taldearen barne-glosategi batean oinarritu zen; horrek lanean hasteko abiapuntu ona eman zuen.

Bereziki inportantea zen hizkuntza-ebaluazioko terminologia finkatzea Europar Batasunean gutxi erabiltzen diren edo gutxi irakasten diren hizkuntzetan (horietako hainbat ALTEn ordezkatuak baitaude), horrela hizkuntza-testgintza bera hobeki egiaztatua eta garatua izan zedin hizkuntza horietan. Izan ere, eremu urriko hizkuntzetan ebaluazioko terminologia ez zegoen hain finkatua eta, kasu batzuetan, terminoak existitzen ote ziren ere ez zegoen batere argi. Jakina, hizkuntza-ebaluaziori dagokion terminologia hizkuntza zabalduenetan edota gehien irakasten direnetan garatu izan da nagusiki eta gai horri buruzko literatura gehiena ere hizkuntza horietan idatzia da. Ele anitzeko glosategi batek paper garrantzitsua izan lezake eremu urriko hizkuntzetan edo gutxien irakasten diren hizkuntzetan ebaluaziogintza indartzeko orduan; hizkuntza horietan termino berriak finkatzeko balioko du hain zuzen ere, termino horiek hizkuntza zabalduetako termino ezagunagoekin parez pare ipiniko direlarik.

Horra hor Hizkuntza Ebaluazioko Terminoen Glosategiaren iturburua: ALTEko partaideek, beren erreferentzia markoaren proiektuan lanean ari zirela, nabaritu zuten premia. Hala ere, uste dugu glosategia erakunde horretatik kanpora ere erabilgarri izan daitekeela,

hizkuntza-ebaluazioan eta testgintzan lanean ari diren profesionalen artean, Europako hizkuntzen testuinguruan. Glosategia euskarri informatikoan ere badago eta beste hizkuntza batzuetan ere prestatzen ari dira.¹

MICHAEL MILANOVIC
koordinatzailea

¹ *Multilingual glossary of language testing terms* (Cambridge University Press) izeneko argitalpena 1998an argitaratu zen. Bertan glosategia 10 hizkuntzatan argitaratu zen. Orain, berriz, edizio berezi honetan euskarazko bertsioa biltzen da.

Esker ona

Glosategirako ALTEko partaideek eta UCLESeko langileek egin dituzten lanen koordinazioa Michael Milanovic-en eta Nick Saville-ren esku izan da.

Maketazioa eta edizioa Isabelle Salenbier-en eta Paulo Pinto da Cunha-ren ardurara izan dira.

Honako pertsona hauei ere esker ona adierazi nahi diegu:

Alemana:

Dr. Sibylle Bolton, Goethe-Institut, Jens U. Schmidt, Bundesinstitut für Berufsbildung, zeinek termino gehienak itzuli baitzituen, eta Uwe Richter, Anglia Polytechnic University, Cambridge.

Daniera:

John E. Andersen, Peter Villads Vedel eta Lars Skov, Danish Language Testin Consortium. Itzulpena: Hans Henrik Sorgenfrey, Department of Youth and Adult Education, Ministry of Education.

Espaniera:

Clara de Vega, Cursos Internacionales de la Universidad de Salamanca, zeinek prestatu baitzuen Glosategi honen espainierazko bertsioa.

Espainierazko bertsioaren diseinuan lagundu zuten: José Luis Rodríguez Diéguez eta Esperanza Herrera García, Departamento de Didáctica, Organización y Métodos de investigación, Universidad de Salamanca.

Iruzkinak: José J. Gómez Asencio, Juan Eguiluz, Alberto Buitrago, Juan Miguel Prieto, Juan Felipe García Santos, Javier de Santiago, Jesús Fernández eta Charles Stanfield.

Euskara:

Ibon Olaziregi, Euskara Zerbitzua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritzaren.

Iruzkinak: Roberto Gonzalez de Viñaspre, Miren Jule Azurza, Euskara Zerbitzukoak; Juan Jose Uranga, Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntzeko Irakastegia IRALE; Nicholas Gardner, Kultura Saila; Jon-Simon Gartzia Legarreta, HUISen ordezkaria ALTEn.

Laguntzailea: Bego Erkiaga, Euskara Zerbitzua.

Frantsesa:

Gilles Breton, Alliance Française (Paris) eta Christine Tagliante, Centre International d'Études Pédagogiques.

Ingelesa:

Chris Banks, Neil Jones, Rosalie Kerr eta Simon Beeston, UCLES.

Berrikusketa eta orrazketa: Marianne Hirtzel.

Hasierako bertsioen iruzkinak: Antony Kunnan, Lyle Bachman, Fred Davidson eta Caroline Clapham.

Irlandera:

Colm Breatnach, Terminology Committee, Department of Education, eta Eoghan Mac Aogáin, Siuán Ní Mhaonaigh eta Dónall Ó Baoill, ITÉ/ The Linguistics Institute of Ireland

Italiera:

Giuliana Grego Bolli, Assessment and Certification Unit of the Università per Stranieri di Perugia, zeinek italierazko bertsioa prestatu baitzuen.

Laguntza eman zuten: Paola Bianchi De Vecchi, Unibertsitateko errektorea, eta Anna Ciliberti.

Katalana:

Núria Jornet i Saló eta Lluís Ràfols i Ràfols, Departament de Cultura eta Direcció General de Política Lingüística, Generalitat de Catalunya.

Nederlandera:

John H.A.L. de Jong, Marie-Christine Sprengers, José van Zuijlen, Inge Hermsen, Hoetjes, Geer Furtjes eta Marion Feddema, CITO, Holanda

Portugesas:

José Pascoal, Departamento de Língua e Cultura Portuguesa (DLCP) da Universidade de Lisboa (UL), zeinek prestatu baitzuen Glosategi honen portugesezko bertsioa.

Laguntza eman zuten: João Malaca Casteleito, Lisboako Unibertsitateko DLCPren presidentea.

Sarrera

ALTEri buruz

Sarrera

ALTE (Association of Language Testers in Europe) elkarteak hizkuntza-azterketa eta hizkuntza-ziurtagiriak kudeatzen dituzten erakundeen arteko elkartea da Europa barnean. Partaide bakoitzak bere herrialdeko hizkuntzaren azterketak kudeatzen ditu.

ALTE kontzeptua, hastapenean, Cambridge-eko eta Salamancako unibertsitateek sortu zuten, 1989an. Elkartearen lehen biltzarra 1990ean izan zen, bertan zortzi erakunde fundatzailek parte hartu zutelarik. Geroztik partaideak gehituz joan dira eta momentu honetan 31 erakunde dira kide oso, 26 hizkuntza ordezkatur. Partaideen zerrenda haziz doa, gainera.

Alemana (Deutsch)	Goethe-Institut WBT Weiterbildungs-Testsysteme GmbH TestDaF-Institut
Bulgaria (български)	University of Sofia «St Klimint Ohridski», Department of Language Teaching and International Students (DLTIS)
Daniera (Dansk)	Danish Language Testing Consortium
Errusiera (Русский)	Russian Language Testing Consortium The Russian Language Testing Center for Foreigners, St. Petersburg State University
Esloveniera (Slovenščina)	Univerza v Ljubljani
Espainiera (Español)	Instituto Cervantes Universidad de Salamanca
Estoniera (Eesti keele)	National Examination and Qualification Centre Riiklik Eksami-ja Kvalifikatsioonikeskus (Eesti keele)
Euskara	Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Finlandiera (Suomi)	University of Jyväskylä and the National Board of Education Jyväskylän yliopisto ja Opetushallitus
Frantsesa (Français)	Alliance Française Centre international d'études pédagogiques

Hizkuntza-ebaluazioko terminoen glosategia

Galegoa (Galego)	Xunta de Galicia
Galesera (Cymraeg)	Cyd-Bwyllgor Addysg Cymru (CBAC) Welsh Joint Education Committee (WJEC)
Grekoa (Ελληνικά)	University of Athens
Hungariera (Magyar)	Institute of the Eötvös Loránd University (ELTE) ELTE ITK
Ingelesa (English)	University of Cambridge ESOL Examinations
Irlandera (Gaeilge)	National University of Ireland, Maynooth Language Centre
Italiera (Italiano)	Università per Stranieri di Perugia
Katalana (Catalá)	Generalitat de Catalunya
Letoniera (Latviešu)	Naturalisation Board of Latvia Latvijas Republikas Naturalizācijas parvalde
Lituaniera (Lituanistiniu)	Department of Lithuanian Studies, Faculty of Philology, University of Vilnius Lituanistiniu sudiju katedra
Luxenburgera (Lëtzebuergesch)	Centre de Langues Luxembourg
Nederlandera (Nederlands)	CITGroep Certificaat Nederlands als Vreemde Taal (CNaVT)
Norvegiera (Norks)	Studieforbundet Folkeuniversitetet Universitetet i Bergen
Poloniera (Polsky)	Jagellonian University Uniwersytet Jagiellonski
Portugesa (Português)	Universidade de Lisboa
Suediera (Svenska)	Stockholms Universitet Centre for Research on Bilingualism & Department of Scandinavian Languages Stockholms universitet, Sfi-provet och Tisus Centrum för tvåspråkighetsforskning, Institutionen för nordiska språk

Europa barneko mugak desagertzearekin batera, herritarrak eta langileak herrialdez mugitzeko aukerak areagotzen dira eta, horrekin lotuta, kualifikazioak leku guztietan ulertzeko beharra nabaria da.

Enplegatuek eta enplegatzaileek jakin behar dute zer esanahi duten herrialde desberdinetan lorturiko hizkuntza-kualifikazioek. Ziurtagiri baten jabeak zer gaitasun duen antzemateko bideren bat behar da eta Europar Batasuneko estatu desberdinetan lortutako ziurtagirien arteko konparazio koherenteak egiteko modua. Enplegatzaileak, lanpostu bat eskaintzen duenean, jakin behar du zein hizkuntza-gaitasun maila eska lezakeen era praktikoa eta, era berean, enplegatuak ere interesa izan ohi du bere momentuko maila balioesteko eta baita etorkizun-

neko prestakuntza-beharrak zehazteko ere. 1990az geroztik ALTEko partaideak lanean aritu dira azterketak konparagarri egiteko bideak garatze aldera.

Helburuak

ALTEren helburu behinenak hauexek dira:

- gaitasun-maila bateratuak ezartzea, European ziurtagirien aitorten transnazionala sustatzeko.
- estandar bateratuak finkatzea hizkuntza-testgintzaren fase guztietan: azterketen elaborazioan, galderen eta ariketen idazkuntzan, azterketen pasaketan, puntuazioan eta kalifikazioan, emaitzen txostenetan, azterketen analisisetan eta ondorioen txostenetan.
- Proiektu bateratuetan parte hartzea eta baita ideien eta esperientzien trukaketan ere.

Lehenbiziko helburua garrantzitsua da langileen beharretarako. Gaitasun-maila bateratuak finkatzeko helburua epe luzeko proiektu baten bidez landu da: «ALTE Framework Project». Egitasmo honen lehen urratsa 1991an lortu zen, orduan argitaratu baitzen ALTEko partaideen ziurtagiri nagusiak deskribatzen zituen dokumentua. Azterketa guztiak formatu berbera erabiliz deskribatu ziren. Era berean, hainbat xehetasun erantsi ziren: hezkuntza- edo lanbide-kualifikazioei zegozkionak, trebetasun batek bestearekiko duen garrantzia, proba bakoitzaren aztergaia, galdera-kopurua eta mota. ALTEren hazkundearekin batera, dokumentu hau berrikusi eta eguneratu egin da.

Bigarren helburuari dagokionez, hizkuntza desberdinen ziurtagiriak konparatzen baditugu, inportantea da erreferentziatzeko marko bat finkatzea, bertan ziurtagiriak kokatzeko, baina hori bezain inportantea da azterketak egiteko estandarrak adostea. ALTEko partaideek elkar hartuta Jokabide Kode bat landu dute eta bertan hainbat printzipio zehaztu dituzte, denek errespetatzeko.

ALTEren markoa

Hizkuntza-azterketak konparagarri egiteko markoa lantzen aritu diren neurrian, ALTEko partaideek Europako Kontseiluaren lanean parte hartu dute gogotik. Gainera, azken urteetan, ALTEk, elkarte bezala ere, bere lankidetzaren eman du Europako Kontseiluaren hainbat proiektutan, esaterako Vantage Level edo Maila Aurreratua delakoan edo Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoan.

Helburuen zehaztapena: Tarteko maila eta Atalase maila

ALTEko markoak bost maila nagusi ditu. A2 eta B1 mailak Waystage eta Threshold mailak dira (Tartekoa eta Atalase-maila), Europako Kontseiluaren terminoetatik jasota (nolanahi ere, gaur egun ALTEk Europako Kontseiluaren sei mailak aintzat hartu ditu). 1971n Kontseiluak ondokoa aitortu zuen: hizkuntza baten ikasbidea zati txikiagoetan banatzea komenigarria zela, zati horietariko bakoitza bere aldetik egiaztatuta ahal zelarik. Era berean, kurrikulua

ikasleen premietan oinarritu behar zela iradoki zuen, eta ez, ordurarte bezala, hizkuntza-egituretan. Lan horren fruiturik onenetakoa Atalase Mailaren zehaztapena izan zen (van Ek, 1975). Bertan hizkuntza-trebetasunen deskribapena egiten da printzipio berri baten gainean: hizkuntzen irakaskuntzak beren premia komunikatiboak aurkitzeko baliabideak eman behar lizkieke ikasleei. Beheragoko mailaren zehaztapena ere egin zen, Waystage Level izenarekin (orain euskaraz Tarteko maila). Bi maila horien bertsio eguneratuak irten ziren 1991n, Threshold Level 1990 eta Waystage Level 1990 izenpean (J.A. van Ek eta J.L.M. Trim, Europako Kontseiluak argitaratuta). Dokumentu hauek Cambridge University Press-en eskuragarri dira (ISBNak: 0-521-56707-6 eta 0-521-56706-8).

Europako Kontseiluak, Atalasetik gora eginik, B2 mailako deskribapena lantzeko interesa erakutsi zuenean, ALTEko kideen artean ere interes handia piztu zen, askok maila horretako azterketak ere eskaintzen baitzituzten. Hortaz, 1995ean, ALTE maila hori deskribatzeko lanen eragile izan zen, besteren artean. Maila horrek Vantage level izena hartu zuen (euskaraz Aurreratua izena eman zaio).

Lana Trim-ek eta van Ek-ek egin zuten 1996an eta aurreko lanen ereduari jarraitu zion horrek ere, horrela progresioa koherentea izan zedin. Helburu bat izan zuten egileek: Tartekoaren eta Atalase mailaren artean zegoen mailaketa edo distantzia horri eustea Aurreratuarekiko ere.

Maila Aurreratuak helburu bat jartzen die maila honetako hiztunei: eguneroko gauzatarako edo giza harremanetarako behar diren gutxienezko baliabideak menderatu behar ditu. Hizkuntza-terminoetan esanda, eskueran izan behar dute gramatika eta hiztegi baliabide mordoxka bat; berbaldiaren eta elkarrizketaren kontrol handiagoa eta kontzientzia soziokultural hobea. Horrela, hizkuntza berria erabiltzen dutenean, abilagoak izango dira ustekabeko egoeretan eta eguneroko bizimoduaren zailtasunetan, baita lanean edo ikasketetan ere.

Hizkuntza-azterketen Markoak ALTEko kideek eskaintzen dituzten azterketak hartzen ditu bere baitan, sei mailetan zehar. Maila bakoitzaren deskribapena laburbilduta dator. A1 mailarako oraingoz ez dago deskribapenik. A2 eta B1 mailetarako Atalase maila eta Maila Aurreratua hartu dira erreferentziatzat. Oro har, deskribapen laburrok bi zatitan banatuak daude: zer egiteko gai izan behar duten ikasleek hartzaile moduan eta zer egiteko gai izan behar duten ekoizpen eta elkarreraginean.

A1 Hasierako maila (Breakthrough level)

Maila honetako deskribapena ez dago eskuragai oraindik. Dena dela, maila honetako deskribapena Europako Kontseiluaren A1 mailari egokitu behar zaio.

A2 Tarteko maila, edo bizirautekoa (ALTEko lehen maila)

ALTEko kideek A2 mailan eskaintzen dituzten azterketek Europako Kontseiluaren «Waystage 90» zehaztapenaren eraginpean daude. Maila honetan, ikaslea eguneroko bizitzako egoera arrunt batzuetan komunikatzeko gaitasuna lortzen ari da. Testu sinpleen punturik garrantzitsuenak ulertzeko gai izan behar du, atzerrian bidaiatzeko edo jende artean moldatzeko. Bizirauteko edo oinarritzko informazioa harrapatzeko erabiltzen du hizkuntza.

Ekoizpen-trebetasunak

Mintzamina

Jendartean edo bidaian dagoela, maila honetako ikasleak badaki dendetan agerian dauden gauzak eskatzen, edo jatetxean janaria eskatzen, platerak erakusgai daudenean edo menuan ilustraturik. Hoteleko gela hartzeko gai da (aurrez aurreko elkarrizketan), bai eta harrera-familia bati buruz galdera sinpleak egiteko ere. Postetxean edo banketxean oinarrizko zerbitzuak eskatzen badaki, eta medikuaren aurrean bere problema adieraz lezake, nahiz eta keinuak ere erabili behar izan. Ibilbide gidatu batean informazio sinplea ulertzen du, egoera aurrez ikusteko modukoa bada, baina galderak egiteko edo informazio gehiago eskatzeko gaitasun mugatua du.

Lanean, bere zereginen gaineko eskaera sinpleak egiten ditu eta mezu errazak adierazi.

Ikasketetan, galdera sinpleak egiten badaki, esaterako, argibideak egiaztatzeko edo informazioa eskatzeko, baina erantzun laburrak baizik ezin ditu ulertu.

Idazmena

Jendartean edo bidaian dagoela, gutun edo fax sinpleak idazten ditu, esaterako hotelean gelaren erreserba egiteko, eta inprimaki bat bete lezake hotelean edo banketxean. Ohar laburrak edo eskerrak emateko gutun txikiak idazten badaki.

Lanean, mezu edo eskabide errazak idazten badaki, lankideei zuzenduak. Zenbait ohar har dezake, esaterako jarraibideak, bezeroen enkarguak, banaketarako datuak.

Ikasketetan, orduen, egunen eta lekuen oharrak hartzen badaki, ikasgelako arbeletik edo argibide-taulatik.

Trebetasun hartzaileak

Irakurmena

Bidaian edo jendartean dagoela, A2 mailako hiztunak zenbait gauza irakur ditzake: bide-seinaleak, dendetako gidak, helbide sinpleak, prezioak, produktuen izenak, janari-izen normalenak zerrenda batean, kontuak, hoteleko errotuluak, ostatu hartzeko iragarkiak, banketxe-ko, posta-bulegoko edo kutxazainetako errotuluak edo larrialdietako argibideak.

Lanean, gutun arruntak ezagutzen ditu, hala nola enkarguak, eskariak. Bere lan-esparruko testuen esanahiari antzeman liezaioke. Ohar labur estandarrek ulertzen ditu (adib. «Ez erre»).

Ikasketetan, oinarrizko informazioa ulertzen du, esaterako eskola-ordutegia, eta zenbait baliabide erabil ditzake, era mugatuan bada ere, informazioa lortzeko, esaterako ordenagailuak, ele biko hiztegiak. Maila honetan ikasleak ez dira gauza oraindik jakintzagai bat hizkuntza berrian ikasteko; egokiagoa da hizkuntza bera ikastea.

Entzumena

Jendartean eta bidaian dagoela, maila honetako ikasleak zenbait gauza ulertzen ditu, esaterako, etxeko arau sinpleak (otorduak noiz diren, gelak non dauden, dendetako salneurriak,

medikuaren galdera edo agindu sinpleak, etxea alokatzeak zenbat balio duen, helbide sinpleak leku batera iristeko edo kanpotarrei egiten zaizkien galdera normalak.

Lanean, agindu errazak ulertzen ditu edo telefonozko mezuak, baldin eta egoera ezaguna bada.

Ikasketetan, aurkezpen edo erakustaldi sinple-sinpleak ulertzen ditu, baldin eta diagramekin eta adibideekin lagunduta badaude, beti ere ezagun zaion alorrean. Eskola-ordutegiaz eta egutegiaz ematen zaizkion argibideak ulertzen ditu, edo lanak noiz egin behar diren.

B1 Atalase maila (ALTEko bigarren maila)

ALTEko kideek B2 mailan eskaintzen dituzten azterketek Europako Kontseiluaren «Threshold 90» zehaztapenaren eraginpean daude. Maila honetan, ikasleak eguneroko hainbat egoeratan moldatu behar du. Horrek hizkuntza erabilera jakina eskatzen du, neurri handi batean aurreikusi daitekeen erabilera. Ikasleak aurreko mailan, Waystage edo Tartekoan, soilik oinarritzko puntuak ulertzen bazituen ere, maila honetan hobeto ulertu behar ditu hainbat testu mota. Maila honetan, gertaera hutsak harrapatzeko gai izateaz gain, iritziak, jarrerak, aldarteak edo nahiak ere ulertu behar ditu.

B1 mailan ALTEko kideek eskaintzen dituzten azterketa batzuek xede instituzionalekin neurtzen dute hizkuntza-gaitasuna, adibidez, ikasketetan onartuak izateko edo graduazio-ikastaroen parte bezala.

Ekoizpen-trebetasunak

Mintzamina

Jendartean edo bidaiari dagoela, maila honetako hiztuna gai da dendan gauzak erosteko denariarekin hizketan edo otordua eskatzeko jakitzean. Menuko plateri buruzko galderak egiten badaki, baita beste zerbitzu batzuetan ere (kreditu-txartelaren erabileraz, adibidez). Badaki hoteleko gelaren erreserba telefonoz egiten edota hoteleko egonaldian gerta litezkeen egoeretan moldatzen. Banketxean gerta litezkeen eguneroko egoera batzuetan moldatzen da edota postazerbitzuari buruzko galderak egiteko gai da. Telefonoa hartu eta medikuaren hitzordua eskatzeko gai da eta azalpen sinple bat ematen badaki medikuaren, dentistaren edo botikariaren aurrean. Turista legez, informazio arrunta eskatzen badaki turismo-bulegoetan eta ibilbide gidatu batean funtsezko gaiak ulertzen ditu; galdera sinpleak egiten ere badaki informazioa osatzeko.

Lanean, gaia ezaguna denean, iritziak trukatzeko dituzten lankideekin, mezuak eman edo bezeroak aholkatu berak ezagutzen duen alorrean.

Ikasketetan, galdera sinpleak egiten daki, esaterako, gauzak argitzeko. Gai da mintegi batean parte hartzeko, neurri mugatuan bada ere.

Idazmina

Jendartean edo bidaiari dagoela, gai da honako idazkiak egiteko: ohar laburrak, mezuak, gutun pertsonal sinpleak (narratiboak edo deskriptiboak); esaterako, eskerrak emateko gutunak edo postalak.

Lanean, badaki eskabide-ohar laburrak edo agindu arruntak idazten. Moldatzen da, bilera batean oharrak beretzat hartzen edo errutinazko gutun argi bat idazten, nahiz eta lankideren batek zuzendu behar izan.

Ikasketetan, irakaslearen azalpenetik zenbait gauza idazteko gai da, baldin eta denbora gehigarria ematen bazaio. Oharrak hartzen ditu idazkietatik, nahiz eta hutsak ere izan. Narrazio sinpleak idazteko gai da, baina ez lan akademikoak.

Trebetasun hartzaileak

Irakurmena

Jendartean edo bidaian dagoela, Atalase mailako hiztunak gauza gehienak ulertzen ditu menu arrunt batean, ohiko gutun edo inprimakietan, hotel edo ostatuetoako iragarki eta esku-orrietan. Osasun-produktuen eta janarien etiketa gehienak ulertzen ditu. Botiken edo janarizorroen argibide errazak ulertzen ditu. Gutuneria pertsonala eta promozioak (banketxetakoak etab.) bereizten ditu. Egunkariko artikulua sinpleen esanahiaz jabetzen da; baita bestelako esku-orrietakoa ere (posta-bulegokoak, banketxetakoak).

Lanean, bere lan-alorreko gutun arruntak irakurtzen ditu. Denbora ematen bazaio, gai ezagun bateko txostena irakur lezake. Produktuen argibideak eta deskribapenak ere bere ulermen-esparruan sartzen dira, baldin eta hizkera sinplea bada eta gaia ezaguna.

Ikasketetan, testu luzeak astiro samar irakurtzen ditu seguruenik. Gai ezagunak era grafikoan aurkezten zaizkionean, ongi ulertzen ditu, baldin eta testu luzerik ez badago. Testuliburuetatik edo artikuluetatik informazioa atera lezake, baldin eta aurkezpena sinplea bada eta aski denbora badu laguntza-materialak edo hiztegia kontsultatzeko.

Entzumena

Jendartean edo bidaian dagoela, ohiko elkarrizketak eramateko gai da, gaiak ezagunak direnean eta hoteleko egonaldian gerta litezkeen ohiko egoeretan ere moldatzen da. Ibilbide turistiko batean, azalpenaren nondik norako nagusia ulertzen du, bai eta telebistako programa baten esanahi nagusia edo telefono-dei sinple bat ere, gaia ezaguna eta aurreikusteko modukoa bada.

Lanean, ohiko aginduak ulertzen ditu eta baita bisitarien eskari normalak ere, esaterako taxi bati deitzeko. Iritzi-truke batean, bere iritzia ematen badaki, gaia ezaguna denean.

Ikasketetan, irakaslearen azalpenaren zati batzuk ulertzen ditu eta, neurri batean, mintegi batean parte hartzeko gai da, mintegi hori jatorrizko hiztunak ez direnentzat ere irekia bada. Irakaslearen aginduak edo hark ezarritako lanak ulertzeko gai da.

B2 Maila Aurreratua (ALTEko hirugarren maila)

Maila hau erdibideko gaitasun-maila dela esan genezake. Hiztunak hizkuntzaren egitura nagusiak erabiltzen jakin behar du gutxienezko segurtasunarekin. Hiztegi zabal samarra ezagutu behar du eta komunikazio-estrategiak erabili behar ditu egoera desberdinetan. Ahozko hizkuntza ulertu behar du, gauza puntualetatik haratago. Testu batean, puntu nagusia eta bi-

garren mailakoak bereizten jakin behar du, gai nagusia eta xehetasunak. Zenbait motatako idazkiak ekoizten jakin behar du, argumentua garatzen, gertaerak deskribatzen edo kontatzen. Maila honek askatasun-neurri bat ematen dio ikasleari hizkuntza hainbat egoeratan erabiltzeko. Ustekabeko egoeretan moldatzeko malgutasuna behar du, esaldi laburrez eta esamoldeez haratago. Gero eta hobeto ezagutzen ditu hizkuntza-erregistro desberdinak, konbentzio eta kortesia-arauak, hizkuntzaren formaltasun-neurriak.

Maila honetako azterketak ikasleak bulego-lana egin dezakeela frogatzeko edo ikastaro ez-akademiko bat jasotzeko gai direla frogatzeko erabili izan dira. Maila honetako ikasleak hainbat lan egin ditzake: bulegari, idazkari, administrari... edo beste zenbait alorretan, esate baterako, turismoan.

ekoizpen-trebetasunak

Mintzamina

Jendartean edo bidaiari dagoela, maila honetako hiztuna gai da hainbat egoeratan moldatzeko: dendan, jatetxean, hotelean... Esaterako, dirua itzultzeko eskatzen daki edo gaizki dagoen zerbait aldatzeko, zerbitzuarekin gustura dagoen ala ez adierazten. Orobat, medikuarenean, banketxean, posta-zerbitzuan edo geltokian moldatzeko gai da. Elkarrizketan, hainbat gai uki ditzake eta iritzia eman neurri batean. Turista legez, informazio baten aurrean edo ibilbide gidatuan, badaki argibide gehiago eskatzen. Berak, bere aldetik, ingurua erakuts diezaieke bisitariei, lekuak deskribatu eta galderei erantzun.

Lanean, gaia ezaguna bada, informazio xehea emateko gai da, betebeharrak adierazteko eta, neurri batean, bileretan parte hartzeko ere. Mezuak jaso eta transmititu ditzake, nahiz eta zailtasunak izan mezua konplexua bada. Negoziaketa sinpleak ere egin ditzake, esate baterako, prezioetan edo banaketa kontuetan.

Ikasketetan, galderak egiteko gai da klaseko azalpenetan edo aurkezpenetan, baldin eta gaia ezaguna edo aurreikusteko modukoa bada, nahiz eta zailtasunak izan. Gai da azalpenak emateko gai sinple eta ezagunez. Mintegietan ere parte har dezake, zailtasunekin bada ere.

Idazmena

Jendartean edo bidaiari dagoela, maila honetako hiztunak badaki ostatu hartzeko kontuak eta ingurukoak gutunez adierazten; gutun pertsonalak ere idazten ditu muga batzuen barnean.

Lanean, hainbat dokumentu idazteko gai da, baina jatorrizko hitzunen batek zuzendu behar dizkio, baldin eta zehaztasuna eta erregistroa zaindu behar badira. Deskribapena edo informazio xehea ematen duten testuak idazteko gai da, esaterako produktu edo zerbitzu bati buruz, baldin eta gaia lanekoa eta ezaguna bada. Orobat eskaerak ere idazten badaki, gai ezagunen inguruan. Mezuak hartu eta transmititzen badaki, baina zailtasunak ditu luzeak edo konplexuak direnean. Diktaketa ere jaso dezake, baldin eta astiro hitz egiten badiote eta gauzak egiaztatzeko aukera badauka.

Ikasketetan, apunteak hartzeko gai da klasean edo mintegian, baldin eta berrikusketa-saioak badira, baina, denbora gehigarriak ematen ez bazaio, zailtasunak izan ditzake. Idazlanak ere

egiten ditu, bere komunikazio-gaitasunen erakusgarri edo saiakuntzen txostenak, egindako lanaren oinarritzko ulermena erakutsiz.

Trebetasun hartzaileak

Irakurmena

Jendartean edo bidaian dagoela, errotuluak edo abisuak baino luzeagoko testuak irakurtzeko gai da, izan ere, testu mota horiek beheragoko bi mailetan menperatu behar baitira. Ohiko gutunak edo egunkariko eta aldizkariko artikulua sinpleetatik haratago joan behar du. Hainbat gairi buruz irakurtzen daki, bere interesekoak edo fikziozkoak. Eguneroko egoeretan, adibidez, jattetxean, erosketak egitean edo zerbitzuak erabiltzean (banketxeak etab.) egoki irakurtzen daki, hizkera espezializatua ez bada (esaterako, lege-terminoak alokairu-kontratueta).

Lanean, ohiko gutunak ulertzen ditu, baita ohiz kanpoko hainbat gutunen eduki nagusia ere. Hala ere, egoera konplexuek edo estandarrak ez diren hizkerek zailtasunak sortzen dizkiote. Txosten eta artikulua laburrak ere ulertzen ditu, gaiak ezagunak direnean; eta gai ez hain ezagunekin ere esanahi nagusia harrapatzen du, baina, informazioa garbi-garbi adierazia ez badago, gaitz-ulertuak izango ditu seguruenik. Bere lan-esparruko jarraibideak edo produktuen deskribapenak ulertzen ditu, baina gai teorikoagoetan, lanekoak barne (adib. txosten teknikoak), zentzu orokorra bakarrik harrapatzen du, hiztegiak edo ez baditu eskura behinik behin.

Maila honetan, hiztuna gai da seguruenik akademikoak ez diren ikastaroak jarraitzeko. Klase emankizunak, aurkezpenak, erakustaldiak jarraitzen ditu, gaia eta testuingurua ezagunak direnean, baina zailtasunak izan ditzake arrazoibide abstraktuekin. Testuliburu eta artikulua sinpleak irakurtzeko gai da, baina ez du kurtso akademiko bat jarraitzeko behar den irakurmen-abiadurarik.

Entzumena

Jendartean edo bidaian dagoela, hainbat elkarriketa informal jarraitzen ditu, gaiak ezagunak direnean, adibidez, esperientzia pertsonalak, lana edo eguneroko gertaerak. Osasun-aholku normalak ulertzen ditu. Telebista-programa gehienak ulertzen ditu, ikusizko euskarriak lagunduta, eta irrati-saioen puntu garrantzikoak harrapatzen ditu. Ibilaldi gidatu batean, galderak egiteko eta erantzuteko behar den ulermen-maila badu.

Lanean, aurkezpenak eta erakustaldiak jarraitzen ditu, baldin eta gauza fisikoak (produktu bat, esaterako) ikusgai badaude eta berbaldia haiekin erlaziona badezake.

Ikasketetan, klase-emankizun baten esanahi nagusia ulertzen du, gaia aurreikusteko modukoa denean.

C1 Gaitasun operatibo eraginkorra (ALTEko laugarren maila)

Maila honetan hiztuna gai da hizkuntza-egiturak erraz eta jarioz erabiltzeko. Hizkuntza-aren eta kulturaren arteko erlazioez jabetzen da eta erregistroen garrantzia ere ezagutzen du. Hortaz, puntu bateraino, badaki egoera sozial batzuetan hizkera egokitzen, iritziak adierazten

eta eztabaidetan parte hartzen, kulturalki era onargarrian. Bere intereseko irakurketak egiten ditu, bai fikziozko testuak eta bai gertaerazkoak. Era berean, hainbat motatako testu idatziak egiten ditu, esate baterako, formaltasun maila desberdineko gutunak. Hizkuntza sormenez eta malgu erabiltzen daki, ustekabeko egoerei ere egoki erantzuteko moduan, aski luzeak eta konplexuak diren berbaldiak eginez.

Eguneroko egoera arruntetan aurki daitezkeen testu idatziak zein ahozkoak ederki kudeatzen ditu, C1 baino beheragokoak baitira. Hala ere, zenbait egoera zailetan, hizkuntza maila hau beharrezkoa da, esaterako ostatu hartzeko kontuetan gerta litezkeen egoera konplexuetan. Maila honetako hitzuna jendarteko hainbat kontaktu mota izateko gai da.

C1eko azterketak kudeaketa-lanak egiteko edo bestelako maila profesionalean lan egiteko behar den mailaren frogagiri bezala erabili izan dira, edota unibertsitate mailako kurtso akademikoak egiteko behar den mailaren frogagiri gisa.

Ekoiizpen-trebetasunak

Mintzamena

Jendartean edo bidaian dagoela, maila honetako hitzuna arazoak izateko mailatik gora dago, alegia, eguneroko bizimoduan (erosketetan, jatetxeetan, banketxeetan edo hoteletan) izan litezkeen arazok erraz gaindi litzake. Elkarrizketa informal luzeetan parte hartzeko gai da. Baita eztabaida abstraktuetan edo kulturaletan ere, jarioz eta adierazpide-sorta zabala erabiliz. Esanahiaren edo iritzien ñabardurak ere harrapatzen ditu, nahiz eta zailtasunak izan gai konplexu edo delikatuetan. Gaitasun-maila honen jabe delarik, hitzun horrek jendea artatu lezake tratu sozialean edo konbidatu moduan artatua izan. Era aktiboan parte har lezake bizitza kulturean eta horrekin gozatu ere.

Lanean, gauzak argudiatzeko gai da, gogatzeko moduan; baita bere arloaz edo ardurez kanpoko galderak egiteko ere. Bileretan edo mintegian parte har lezake, bere arloko ekarpenak eginez, eta aurkezpen edo erakustaldiak ere egiteko gai da. Telefonoa erabiltzen du negozio-kontuetarako.

Ikasketetan, gai ezagunen aurkezpena egiten badaki, baina zailtasunak izan ditzake gai konplexuak azaltzeko eta garatzeko, edo ustekabeko galderak erantzuterakoan. Mintegi batean azalpenak eman ditzake eta, neurri bateraino, bere iritzia justifikatu, baina agian ez da moldatuko gauzak frogatzen edo galdera gaiztoei erantzuten.

Idazmena

Jendartean edo bidaian dagoela, gutun pertsonalak idazten daki: oso gauza konplexuak azaltzerakoan bakarrik izango ditu zailtasunak. Gutun-mota arruntenak idazteko gai da, adibidez, egunkari baterako gutuna.

Lanean, ohiko eskariak kudea ditzake, esaterako, zerbitzuak eta ondasunak, baina laguntza behar lezake, egoerak kontu handia eta leuntasuna eskatzen duenean. Diktaketa edo oharrak hartzen badaki, baldin eta gaia oso konplexua edo delikatua ez bada. Mota askotako gutunak idazteko gai da, adibidez, galderak, kexuak, lan-eskariak.

Ikasketetan, klasean edo mintegian oharrak hartzeko gai da, gero berriro idazteko edo berrikusteko balioko diotenak. Orobat, badaki oharrak hartzen idatzizko iturrietatik eta idazlanak idazten, nahiz eta gramatika-, hiztegi- edo estilo-akatsak izan ditzakeen. Era berean, saiakuntza baten narrazioa egoki idazten badaki, baina, noizean behin, akatsen bat izan lezake eta ondorioak agian ez ditu erarik egokienean oinarritzen.

Trebetasun hartzaileak

Irakurmena

Jendartean eta bidaian dagoela, maila honetako hiztuna gai da aldizkarietako edo egunkarietako artikuluak ulertzeko. Hala ere, kontzeptu eta argumentu konplexuekin edota umorearekin zailtasun batzuk izan ditzake.

Lanean, gehienetan behinik behin, aginduak, artikuluak edo txostenak ulertzen ditu, gaia lan-arlokoa bada eta kontzeptu konplexuegirik edo hiztegi berezietuegirik erabiltzen ez bada.

Ikasketetan, bere arloko irakurketak ez dio zailtasunik ekartzen: soilik hizkuntza abstraktua edo metaforikoa denean edo alusio kulturalak sarri agertzen badira, izan dezake zailtasunik. Nolanahi ere, hiztunak zailtasunak ditu kurtso akademiko batek eskatzen duen irakurgai multzoaz jabetzeko, eta agian ezin izango du gradu-ondoko ikasketarik aurrera eramanean.

Entzumena

Jendartean edo bidaian dagoela, C1 mailako hiztuna ongi moldatzen da eguneroko bizitzan. Xehetasunak ere, adibidez ostatu hartzeko kontuak edo alokairu-kontratuaren ingurukoak, ulertzeko arazorik ez du. Ulermen-maila nahikoa du tratu sozialean jendea artatzeko edo artatua izateko. Orobat elkarrizketa informal askotan parte hartzeko gaitasuna badu. Telebistan, irratian, antzerkian edo filmetan entzuten duena ulertzen du neurri handi batean, baina argumentu konplexuek ihes egingo diote agian.

Laneko batzarretan edo bileretan, bere arloan esaten den gehien-gehiena ulertzen du. Argudioak ere ulertzen ditu, non eta oso abstraktuak edo konplexuak ez diren.

Ikasketetan, klase-emankizunean, aurkezpenetan, erakustaldietan edo mintegietan esaten den gehien-gehiena ulertzen du. Nolanahi dela, zailtasunak izan ditzake zenbait kausa direla medio: azentu arrotza, kultura-alusioak, txantxak, hizketa-gai ezezagunak edo zailak, lagunarteko hizketa.

C2 Menderatze maila (ALTEko bosgarren maila)

Maila honetako hiztunaren gaitasuna oso hurbil dago jatorrizko hiztun heziarenetik. Gai da hizkuntza era desberdin askotan erabiltzeko, kulturalki era egokian. Maila honetako hiztunak badaki bere hizkuntza-gaitasuna hobetzen hiztegia zabalduz, estiloa hobetuz, erregistroa finduz eta ez hainbeste gramatika-arlo berriak ikasiz. Bere gaitasun-mailak prentsa eta beste-

lako komunikabideak eskura-eskura jartzen dizkio, baita bestelako kultura-produktu batzuk ere, hala nola, antzerkia, zinema edo literatura.

Maila hau gainditzea goi-mailako ikasketa akademikoak egiteko ahalmenarekin lotu izan da. Askotan, azterketa horiek eduki kultural edo akademikoak ere sartu ohi dituzte, sarri aukerako osagai gisa.

Ekoiizpen-trebetasunak

Mintzamena

Jendartean edo bidaian dagoela, maila honetako hiztuna aise moldatzen da eguneroko egoeretan, baita gai eta eduki desberdinetako elkarrizketetan ere. Hutsuneak, bai ulermen-mailakoak edo hizkeraren egokitasunean, txikiak izan ohi dira normalean, eta gaitz-ulertuak konpontzeko estrategiak baditu. Bestalde, telefonozko elkarrizketak eramaten badaki jende ezagunarekin, hainbat eta hainbat gairi buruz.

Lanean, eskuartean dituen kasuak era eraginkorrean argudiatzen daki, eskaerak justifikatuz eta premiak garbi adieraziz. Errutinazko eta errutinaz kanpoko egoera asko kudeatzeko gai da, bai lagun arteko harremanetan eta bai beste kontaktuekin. Batzarretan bete-betean parte har lezake eztabaidetan. Termino ezezagunak erabiltzen badira, galde egin lezake edo hutsune hori bete, jatorrizko hiztun batek egiten duen gisa.

Ikasketetan, maila honetako hiztuna aurkezpenak edo erakustaldiak egiteko gai da eta egiten dizkioten galderei edo kritikei erantzuteko ere ongi moldatzen da; halere, gai teoriko zailekin oztupoak izan ditzake. Mintegietan edo bileretan parte hartzeko gai da, argudioak adieraziz eta desadostasunak azalduz inor mindu gabe.

Idazmena

Jendartean edo bidaian dagoela, idazketa mota normal guztiak menperatuta egon behar dute maila hau hasten denerako.

Lanean, maila honetako hiztuna errutinazko eta errutinaz kanpoko egoera asko kudeatzeko gai da, bai lagun arteko harremanetan eta bai beste kontaktuekin. Diktaketan oharrak hartzeko gai da, batez ere bere lan-arloan, baina agian hiztegia erabili beherako du idazkera kontsultatzeko, jatorrizko hiztunek egiten duten moduan. Batzarretan, ohar zehatzak hartzeko gai da, eztabaida jarraitzen duen bitartean eta berak ere parte hartzen duelarik. Gutuneria espezializatua ere ulertzeko gai da eta baita laneko edozein gutun mota idazteko ere. Txostenak idazten badaki, jatorrizko hiztun batek baino askoz denbora gehiago behar ez duelarik. Akatsak, gainera, noizean behin bakarrik egiten ditu eta txikiak izan ohi dira. Jarraibideak ere idazten badaki, akatsak egiteko arrisku txikia duelarik, baita gauza konplexuak edo kontuz tratatu beharrekoak tartean direnean ere.

Ikasketetan, ohar baliagarriak hartzen ditu testuetatik eta idazlanak egiten ditu, noizean behingo akatsak bakarrik dituelarik hiztegian edo gramatikan. Saiakuntzen kontaketa idazteko gai da, aurkezpen- eta estilo-konbentzioak zainduz.

Trebetasun hartzaileak

Irakurmena

Jendartean eta bidaian dagoela, maila honetako hiztuna komunikabideetako alor guztietan moldatzen da, gaitz-ulertuak izateko arrisku txikiarekin.

Lanean, gutuneria ulertzen du, nahiz eta alor espezializatuak tartean izan. Txostenak edo artikulua ere guztiz ulergarri zaizkio, nahiz eta zailtasunen bat izateko aukera izan oso puntu konplexu edo teknikoetan.

Ikasketetan, iturri idatziak erabiltzen daki modu eraginkorrean. Testuak irakurtzerakoan, abiadura oraindik ez da handia gradu-ondoko ikasketa-mailetarako, eta erreferentzia kultural lausok interferi lezakete bere ulermena. Informazio-iturriak arakatzeko gai da; materialen erabilgarritasuna baloratzen daki eta baita hiztegiak modu eraginkorrean erabiltzen ere.

Entzumena

Jendartean eta bidaian dagoela, maila honetako hiztunak komunikabideetan aurki litekeen gehien-gehiena ulertzen du.

Lanean, aurkezpenak, erakustaldiak eta abar jarraitzen ditu eta zailtasunak baditu, informazio teoriko konplexuetan izango da, jatorrizko hiztun batek ere izan ditzakeen moduan.

Ikasketetan, klase-emankizunak, aurkezpenak edo erakustaldiak ulertzen ditu, nahiz eta txantxek, zeharkako aipamenek edo azentu arrotzek zailtasunak eragin.

ALTEko beste proiektu batzuk

Erreferentzia Markoa finkatzeaz gain, bestelako azterlan batzuetan ere lan egin dute ALTEko kideek, gorago aipatu diren helburuekin lotuta. Proiektuetariko batzuk Europako Batzordearen diru-laguntza jaso dute, Lingua Proiektuaren bidez. Hona hemen batzuk:

Edukien analisirako kontrol-zerrendak

Proiektu honek zerikusia du azterketa-edukiaren deskribapenarekin. Era berean, tresna bat garatu da zenbait hizkuntzatariko azterketa-materialak konparatzeko. Tresna honek bi deskribapen-maila eskaintzen ditu:

1. Kontrol-zerrenda labur bat, azterketaren ezaugarri nagusiak balioesteko.
2. Kontrol-zerrenda xeheago bat, galdera-sorten berariazko deskribapena edo zenbait xedetarako erabiltzen diren atazak kontuan hartzen dituen.

Item-egilearen gida

Proiektu honekin azterketa-materialak egiten dituztenentzako gida bat egin nahi izan da. Gida-liburu hori ALTEko hizkuntzetariko batzuetara itzuli da. Ikastaro baten oinarri gisa era-

bil liteke edo norberak aztertzeko materiala izateko ere egokitu liteke. Arlo hauek ukitzen ditu: hizkuntza-trebetasunen ereduak, azterketa osatzeko prozedura, item motak, zuzenketa eta puntuaketa.

Trebetasunetan oinarritutako gaitasun-eskalak

Trebetasunetan oinarritutako gaitasun-eskalak, edo «can-do» (gai izan) azalpenak garatea da proiektu honen xedea, erreferentzia markoaren maila bakoitzerako. Azalpen-zerrenda horietan, ikasle bat egoera-tipo batzuetan zer egiteko gai den deskribatzen da, mailaz maila. A1etik hasi eta C2rainokoak dira maila horiek eta Europako Erreferentzia Markoan finkatzen diren arloetan bilduta daude:

- Gizartea eta Turismoa (arlo publikoa eta pertsonala)
- Lanpostua (lan-arloa)
- Ikasketak (hezkuntza-arloa)

Kategoria horietariko bakoitza alor txikiagoetan banaturik dago, behar diren trebetasunak zehaztuz (mintzarena, entzumena, irakurmena, idazmena). Proiektu honek azterketan parte hartzen dutenen arteko komunikazioa (irakasleak, azterketariak, enplegatzaileak...) bultzatu nahi du, eta espezialista ez direnek azterketaz egiten duten interpretazioari erreparatzen dio.

Europako Kontseilua: Europako Erreferentzia Marko Bateratua hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako

Europako Kontseiluaren *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua* izeneko proiektua beste proiektu zabalago baten zatia izan zen: *Language Learning for European Citizenship* (1989-1996).

ALTEko kideek Erreferentzia Markoa prestatzeko lanean parte hartu dute, fase desberdinetan. Europako Kontseiluak ALTEri enkargua eman zion dokumentu gehigarri bat osatzeko, azterketen langintzan dabilen jendearentzat. Dokumentu horren izenburua «User's Guide for Examiners» da. Lan hori baliagarri izan zen beste proiektu baterako: The Item writer Guidelines Project (Item-egilearen gida).

Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren hainbat alderdik bere eragina izan dute jadanik ALTEko kideek beren azterketak deskribatzeko erabiltzen duten moduan. Bereziki, alorren xehetasunetan eta jarduera komunikatiboetan. Zentzu komunikatibo honetan, hiztunen komunikazio-gaitasuna aktibatu egiten da hainbat hizkuntza-ariketaren bidez, arloetan kontestualizaturik. Lau arlo aipatu ohi dira: arlo pertsonala, arlo publikoa, lan-arloa eta hezkuntza-arloa. Aldi berean, komunikazio-jarduerak ere honela sailka daitezke: ekoizpen-jarduerak, jarduera hartzaileak, elkarreraginezko jarduerak eta bitartekotza-jarduerak.

- Ekoizpenak mintzamen-jarduerak hartzen ditu bere baitan, hala nola adierazpen publikoak egitea edota abestea; eta idatziari lotzen bagatzaizkio, sormenezko testuak idaztea edo inprimakiak betetzea.

- Jarduera hartzaileak entzumena eta irakurmena dira, xede bereziak kontuan hartuta, adibidez, gaiaren funtsa ulertzeko entzutea edo irakurtzea, edo informazio jakin bat aurkitzeko, xehetasunak bilatzeko etab.
- Elkarreraginezko jarduerak ahozkoak eta idatzizkoak izan daitezke. Hitzez, esaterako, elkarrizketa edo eztabaida formaletatik hasi eta elkarrizketa informaletarainoko tartea dugu. Idatziz, hor dugu hainbat truke mota, posta, zirkularrak, faxak, gutunak, e-mailak...
- Bitartekotza-jarduerak, azkenik, hainbat gauza hartzen ditu: itzulpenak, interpretaritza, laburbiltzeak edo parafrasiak ulermena errazteko etab.

Lan hau bat dator ALTEren proiektuekin, trebetasunetan oinarritutako gaitasun-eskalak egiteko. Bide beretik doaz ALTEren ahaleginak, azterketariak maila bakoitzean zer egiteko «gai» diren deskribatze aldera.

1 A parametroa

Item-erantzunaren teoriako parametroa. Itemaren diskriminazioarekin du zerikusia.

Ikus: item-erantzunaren teoria (IRT)

Bibliografia: Bachman, 1990, 204. or.

- en** a-parameter
- fr** paramètre-A
- es** parámetro A
- ca** paràmetre A

2 ahalmena

Zerbit egiteko trebetasuna edo adimen-ezaugarria.

Konparatu: gaitasuna

Bibliografia: Bachman, 1990, 16. eta 19. or.

- en** ability
- fr** capacité
- es** capacidad
- ca** capacitat

3 ahalmen-eskala

Item-erantzunaren teorian, tarte berdinak dituen eskala bat da; bertan koka daitezke pertsonen ahalmena eta probaren zailtasuna. Theta eskala ere deitzen zaio.

Bibliografia: Bachman, 1990, 345. or.

- en** ability scale
- fr** échelle de capacité
- es** escala de capacidad
- ca** escala de capacitat

4 ahalmen-proba

Proba mota honetan azterketariak behar adina denbora izaten dute proba bukatzeko, baina zenbait ariketa edo galdera aski zailak dira eta ez da probablea azterketari gehienek galdera guztiei zuzen erantzutea.

Konparatu: lastertasun-proba

- en** power test
- fr** test de puissance intellectuelle
- es** prueba de potencial
- ca** prova de capacitat

5 ahozko elkarrizketa

Azterketariaren mintzamina elkarrizketa bidez ebaluatzen da sarri. Elkarrizketa erabat librea izan liteke: azterketaria(k) alde batetik eta aztertzailea(k) bestetik. Edota oso elkarrizketa egituratua ere izan liteke, ahozko hainbat ariketarekin.

- en** oral interview
- fr** entretien oral
- es** entrevista oral
- ca** entrevista oral

6 ahozko gaitasuna

Hizkuntza batean hitz egiteko gaitasuna.

- en** oral proficiency
- fr** compétence orale
- es** competencia oral
- ca** proficiència oral

7 ahuldura-zuzenketa

Aldagai bi edo gehiagoren korrelazioa kalkulatzeko metodoa, aldagaien artean fidagarritasun diferentziarik ez denean.

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 450-453. or.; Hatch & Lazaraton, 1990, 444-445. or.

- en** correction for attenuation
- fr** correction d'atténuation
- es** corrección de la atenuación
- ca** correcció per atenuació

8 aingura-itea

Proba bitan edo gehiagotan sartutako itema. Aingura-itea ezaugarriak alde aurretik ezagunak dira. Azterketa berri batean jartzen direnean, zenbait argibide ematen digute azterketa horretaz eta proba egin duten azterketariez. Horrela, esaterako, azterketa berria NEURKETA-ESKALA batean kalibra daiteke.

Konparatu: aingura-proba

Ikus: kalibrazioa

- en** anchor item
- fr** item d'ancrage
- es** ítem de anclaje
- ca** ítem àncora

9 aingura-proba

Proba hauek neurtze-ezaugarri ezagunak dituzte. Beste proba batekin batera pasatzen dira. Aingura-probaren emaitzek informazioa ematen digute beste probari buruz eta proba biak egin dituzten azterketariei buruz.

- en** anchor test
- fr** test d'ancrage
- es** prueba de anclaje
- ca** prova d'ancoratge

10 aitorpena

Erakunde batek ziurtagiri edo kualifikazio jakin bat formalki onartzea xede berezi baterako, adibidez graduatu-ondoko ikastaro baterako.

- en** recognition
- fr** reconnaissance
- es** reconocimiento
- ca** reconeixement

11 akatsak bilatzeko ariketa

Ariketa honetan testua aztertu behar izaten da, akats mota jakin baten bila, esaterako, egiturazko edo ortografiazko akatsen bila. Batzuetan, akatsak bilatzeaz gain forma zuzena ere eman behar izaten da.

- en** proof reading task
- fr** correction sur épreuve
- es** actividad de detección de errores
- ca** tasca de correcció

12 alborapena

Neurketa-errore batek banaketa sistematikoa duenean, alborapena dagoela esan genezake. Proba edo item bat alboratua izango da bere ezaugarriren batek azterketari multzo bati mesede edo kalte egiten dionean, baldin eta ezaugarri hori garrantzizkoa ez bada neurtu nahi den horretarako. Alborapenaren jatorria hainbat ezaugarriekin lotuta egon daiteke: sexuarekin, adinarekin, kulturarekin etab.

Bibliografia: Bachman, 1990, 271-279. or.; Crocker & Algina, 1986, 12 eta 16 kap.

- en** bias
- fr** biais
- es** sesgo
- ca** biaix

13 aldagai askea

Ikerketan, mendeko aldagaiarekin zerikusia izan dezakeen aldagaia edota hartan eragina izan dezakeena. Adibidez, azterketariak proba batean lortutako puntuazioak (aldagai askea) erabil litezke lantokian izango duten arrakasta (mendeko aldagaia) pronostikatzeko.

Konparatu: mendeko aldagaia

Ikus: aldagaia

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 64. or.

- en** independent variable
- fr** variable indépendante
- es** variable independiente
- ca** variable independent

14 aldagaia

a) Puntu jakin bati buruzko behaketa multzoari ematen zaion izena. Puntu jakin hori izan liteke sexua, adina, probaren puntuazioa...

b) Diseinu esperimental batean edo estatistika-analisi batean, balio desberdinak har ditzakeen elementua. Adibidez, hizkuntzen ebaluazioan, ondoko hauek intereseko aldagaiak izan litezke: itemen zailtasuna, azterketariaren sexua eta adina etab.

- en** variable
- fr** variable
- es** variable
- ca** variable

15 alderdi anitzeko Rasch eredua

Rasch ereduaren hedapena. Erantzun-probabilitateak modelatu egiten dira zenbait alderdi konbinatuz eta gehituz. Esate baterako, idazlan bateko produkzioa modelatu egin liteke, ariketaren zailtasuna eta aztertzaileraren gogortasuna batera islatzeko. FACETS programak, esaterako, alderdi anitzeko Rasch eredua

Ikus: Rasch eredua

Bibliografia: Linacre, J.M., 1989

- en** many-facet Rasch model
- fr** modèle multi-facettes de Rasch
- es** modelo Rasch de facetas múltiples
- ca** model de Rasch multifaceta

16 alderdi anitzeko Rasch eredua (MFRM)

Rasch eredu basikoaren hedapena da. Item-zailtasuna edo azterketariaren ahalmena zenbait alderditan zatitzen dira; horrela, alderdi horien datuak erabili ahal izango ditugu azterketariaren puntuazioak esplikatzen. Esate baterako, zuzentzailearen gogortasunak lagun lezake idazlanetan gertatu diren puntuazioak esplikatzen. Kasu honetan, azterketariaren puntuazioak hiru gauza hauekin azaltzen dira: azterketariaren ahalmena, atzaren zailtasuna eta ebaluatzailearen gogortasuna. Horrela, ebaluatzailearen gogortasunak duen eragina elimina dezakegu azterketariaren azken puntuazioetatik.

- en** many-facet Rasch measurement (MFRM)

17 alfa koefizientea

Fidagarritasunaren estimazioa, probaren barne-kontsistentziaren bidez. Balioei dagokienez, 0 eta 1 arteko balioak har ditzake. Aukera anitzeko galdekizunetan erabiltzen da maiz, item dikotomikoekin baino gehiago; baina bietarako erabil daiteke.

Konparatu: Kuder-Richardson

Ikus: barne-kontsistentzia

Bibliografia: Henning 1987, 84. or.

- en** alpha (alpha coefficient)
- fr** alpha (coefficient alpha)
- es** alfa (coeficiente alfa)
- ca** alfa (coeficient alfa)

18 amaierako proba

Proba edo neurketa hau ikastaro baten amaieran aplikatzen da. Ikastaro-hasieran egindako probaren emaitzekin konparatuz gero, ikastaroaren eraginkortasuna ikus liteke. Azken azterketa ere deitzen zaio.

Konparatu: hasierako proba

- en** post-test
- fr** post-test
- es** prueba final
- ca** prova final

19 ANCOVA

Bariantza-analisi mota honen bidez aldagai nahasgarriak

(beste aldagai baten eragina estaltzen dutenak, alegia) beste batengan duten efektua azter daiteke, azken aldagai honen eragina isolatzeko.

Ikus: ANOVA

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 387. or.

en ANCOVA
fr ANCOVA
es ANCOVA
ca ANCOVA

20 ANOVA

Teknika estatistiko honen bidez populazio batzuen batez besteko puntuazioak aztertzen dira, ea estatistikoki diferentzia esanguratsurik dagoen ikusteko. Multzo bakoitzaren barneko bariabilitatea behatzen da, eta baita multzoen batez bestekoen arteko bariabilitatea ere.

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 308-312. or.

en ANOVA
fr ANOVA
es ANOVA
ca ANOVA

21 aprobe txamendu-proba

Proba mota hau xede berezi baterako landuta dago: ikastaro batean edo testuliburu bat ikasten ibili ondoren, azterketariak lortu duen ezagutza-maila neurtzeko. Alegia, programa baten arabera proba da. Errendimendu-proba ere deitzen zaio.

en achievement test
fr test de connaissances
es prueba de aprovechamiento
ca prova d'assoliment

22 aptitude-proba

Proba mota hau helburu jakin baterako diseinatua dago: azterkariak ikaste-arlo batean arrakasta izateko izan ditzakeen aukerak aurreikusteko; esate baterako, atzerri-hizkuntza bat ikasterakoan.

*Bibliografia: Henning 1987, 6. or.
Ebel & Frisbie, 1991, 339. or.*

en aptitude test
fr test d'aptitude
es prueba de aptitud
ca prova d'aptitud

23 argibideak

Ikus "ariketaren argibideak".

en rubric
fr consigne
es instrucciones
ca rúbrica

24 argibideak

Azterketariei ematen zaizkien azalpen nagusiak, eskuarki erantzun-orriaren edo azterketaren lehen orrian. Esate baterako, azterketak zenbat irauten duen, zenbat ariketa diren, erantzunak non eman behar diren etab.

Konparatu: ariketaren argibideak

en instructions
fr instructions
es instrucciones generales
ca instruccions

25 ariketa

Ariketa proba baten zatia da, baina zati horri erantzutea galdera simple edo diskretu bati erantzutea baino lan konplexuagoa da. Honelakoak dira idazlanak, edo ahozko ariketak edo nolabaiteko lotura duten galdera-sortak, adibidez irakurgai bat aukera anitzeko galdera batzuekin. Ataza ere deitu izan zaio.

en task
fr tâche
es actividad
ca tasca

26 ariketa mota

Ariketei izena jartzerakoan, izen deskriptiboak bilatzen dira: neurtu nahi denarekin dute zerikusia, edota bere formarekin. Adibidez, aukera anitzeko irakurmena, idazlan gidatua etab.

en task type
fr type de tâche
es tipo de actividad
ca tipus de tasca

27 ariketaren argibideak

Azterketariei ematen zaizkien argibideak, probaren ariketa batean edo arlo batean beren erantzunak

Konparatu: argibideak

en rubric
fr consigne
es instrucciones específicas
ca rúbrica

28 arloa

Edukiaren edota gaitasunaren eremu zehatza. Berariazko ariketa baten bidez edo azterketa-zati baten bidez aztertzen da.

Bibliografia: Bachman, 1990, 244-246. or.

en domain
fr domaine
es dominio
ca àmbit

29 arloan oinarritutako proba

Proba-klase honetan emaitzak berariazko gaitasun edo eduki-arlo batekin erlazionaturik interpretatzen dira.

Konparatu: irizpidean oinarritutako proba, norman oinarritutako proba

en domain-referenced test
fr test référé à un domaine
es prueba referida a un dominio
ca prova referida a l'ámbit

30 arrazoi-eskala

Eskala honetan egiazko zeroa badago, eta jarraiko bi punturen arteko distantzia berdina da eskala osoan.

Adibidez, altuera: 2 metro neurtzen duen pertsona metro bat neurtzen duenaren bikoitza da.


Konparatu: kategoriala-eskala, tarte-eskala, eskala ordinala

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 48-49. or.

en ratio scale
fr échelle de rapport
es escala de razón
ca escala de raó

31 asimetria

Banaketa estatistiko batzuen ezaugarria: kurbaren gaina erditik eskuin aldera dagoenean, asimetria negatiboa da; ezker aldera dagoenean, asimetria positiboa.



Ikus: banaketa normala

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 165. or.

en skew
fr distribution symétrique
es asimetría
ca asimetria

32 atala

Azterketa baten osagaia, gehienetan proba independente gisakoa, berezko argibideekin eta denbora-mugarekin.

Atalak trebetasunetan oinarritu ohi dira, eta Entzumena edo Idazlana bezalako izenak hartzen dituzte. Azpiproba ere deitzen zaie.

Konparatu: azpiproba

Ikus: zatia

en component
fr composante
es apartado
ca component

33 atalase-maila

Atzerri hizkuntzetarako diseinatu zen oinarritzko gaitasun-

maila bat da. Maila honen zehaztapena hizkuntza-funtzioen arabera eginda dago. Europako Kontseiluak argitaratu zuen ingeleserako 1976an, eta 1990ean berrikusia izan zen. Geroztik Europako zenbait hizkuntzatarako bertsioak egin dira. (Euskarazko bertsioa

en Threshold level
fr niveau seuil
es nivel umbral
ca nivell llindar

34 ataza

Ikus "ariketa".

en task
fr tâche
es actividad
ca tasca

35 aukera anitzeko galdera

Item mota honetan galdera bat edo osatu gabeko esaldi bat aurkeztu ohi da, erantzuteko aukera batzuekin batera. Azterketariak erantzun zuzena ("gako" ere deitua) hautatu behar du hiru, lau edo bost erantzunen artean. Beraz, ez da hizkuntza-produkzioerik eskatzen. Horregatik, aukera anitzeko itemak entzumen eta irakurmen probetan erabili ohi dira. Diskretuak izan litezke edota testuetan

Ikus: item diskretua, testuan oinarritutako itema

en multiple choice item
fr item à choix multiple
es ítem de selección múltiple
ca ítem d'elecció múltiple

36 aukera anitzeko hutsuneak bete

Item mota honetan azterketariak testu bateko hutsuneak bete behar ditu. Horretarako hitz edo esamolde zuzena hautatu behar du ematen zaizkion aukeren artean.

Ikus: hutsuneak betetzeko itema

en multiple choice gap filling
fr test lacunaire à choix multiple
es ítem de rellenar huecos de selección múltiple
ca ítem d'omplir buits d'elecció múltiple

37 aukerak

Aukera anitzeko galderetan edo loturak egiteko ariketetan, aukeran dauden erantzun posibleak.

en options
fr options
es opciones
ca opcions

38 aukeraketa

Azterketen elaborazio-prozesuaren fasea. Azterketa-sortzaileek enkarguz egin dituzten materialak balioesten

dituzte azterketa-prestatzaileek. Baztertu beharreko materialak zeintzuk diren erabakitzen dute (azterketaren zehaztapenak betetzen ez dituztelako edo) eta, bide batez, orrazketa eta edizio-fasera zeintzuk pasa daitezkeen.

Konparatu: berrikustea

en vetting
fr révision
es selección
ca revisió

39 aurrerapen-proba

Ikastaroan zehar aplikatzen den proba da, ordura arte ikasitakoa ebaluatzeko.

en progress test
fr test de progrès
es prueba de progreso
ca prova de progrés

40 auresate-baliotasuna

Hauxe erakusten du: proba batek zein neurritan auresaten duen etorkizuneko jarduera nolakoa izango den, trebetasun jakin batean.

Konparatu: irizpidezko baliotasuna

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1987 ??, 437-438.

en predictive validity
fr validité prédictive
es validez predictiva
ca validesa predictiva

41 aurretiko ezaguerak

Azterketariak aldeztu aurretik dituen ezaguerak, azterketa batean ager litezkeen gai jakin batez edo kultura-edukiez.

Ezaguera horrek eragina izan lezake azterketariaren erantzuteko moduan.

Bibliografia: Bachman, 1990, 273. or.

en background knowledge
fr connaissances antérieures du candidat
es conocimientos previos
ca coneixement previ

42 ausazko errorea

Ikus "errorea"ren definizioa. Zorizko errorea ere deitzen zaio.

en random error
fr erreur accidentelle
es error aleatorio
ca error aleatori

43 ausazko lagina

Lagin mota honetan elementuak ez dira era selektiboan aukeratzen. Horrela, ikerketaren xede den populazioaren

elementu guztiek aukeratuak izateko posibilitate berberak dituzte. Zorizko lagina ere deitzen zaio.

Ikus: lagina

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 433-438. or.; Guilford & Fruchter, 1981, 120. or.

en random sample
fr échantillon aléatoire
es muestra aleatoria
ca mostra aleatòria

44 autoebaluazioa

Prozesu honen bitartez ikasleak bere gaitasun-maila balioesten du, bere buruari azterketa bat pasarazita edo beste modu batez, esaterako, galdetegi bat edo kontrol-zerrenda bat beteta.

en self-assessment
fr auto-évaluation
es auto-evaluación
ca autoavaluació

45 azpiproba

Ikus "atala"ren definizioa.

en subtest
fr sous-test
es subprueba
ca subprova

46 azterbidea

Hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko hainbat metodo edo azterbide daude. Adibidez, aukera anitzeko galderak, burutze-probak, idazlanak, ahozko probak etab. Ikusi ahal izan denez, hizkuntza-jarduera neurtu nahi denean, badago elkarreragina azterbidearen eta gaitasunaren

Ikus: azterbideen ezaugarriak

Bibliografia: Bachman, 1990, 77. or.

en test method
fr méthode de test
es método de examen
ca mètode de prova

47 azterbideen ezaugarriak

Azterketa-metodo desberdinen ezaugarriak dira.

Esaterako: kontestua, argibideen hizkera, formatua etab.

Bibliografia: Bachman, 1990, 5. kap.

en test method characteristics
fr caractéristiques des modes d'évaluation
es características de métodos de examen
ca característiques del mètode de prova

48 aztergaia

Item jakin batek aztertu nahi duen ezagutza-puntua.

en testing point

fr point clé du test
es objetivo de evaluación del ítem
ca element d'avaluació

49 azterketa

Norbanakoen gaitasunak edo ezaguerak egiaztatzeko prozedura, ahozko edo idatzizko ariketak erabiliz. Emaizaren arabera, kualifikazio bat lor daiteke (esaterako, ziurtagiri bat), edo ikastetxe baterako edo ikas-programa baterako sarbidea etab.

Konparatu: proba

Bibliografia: Bachman, 1990, 50. or.

en examination
fr examen
es examen
ca examen

50 azterketa prestatzeko bidea

en test development process

51 azterketaldia

Azterketa bat egiteko eguna edo garaia. Azterketa batzuek urtean azterketaldi bat baino gehiago izan ohi dute. Beste batzuek eskaeraren arabera aplikatzen dira. Proba pasatzea edo aplikatzea ere esaten zaio.

en administration
fr administration
es convocatoria
ca administració

52 azterketa-orriak

Proba bat osatzen duten orriak dira. Galdera-sorta ere deitzen zaie.

en question paper/ booklet
fr feuille(s) de question
es hoja/ cuadernillo de preguntas
ca llibret d'examen

53 azterketa-prestatzailea

Azterketa berriak prestatzeko eta garatzeko prozeduran diharduen pertsona.

en test developer
fr élaborateur
es elaborador de pruebas
ca dissenyador d'una prova

54 azterketaren eskakizunak

en test requirements

55 azterketaren zehaztapena

Proba bati buruzko dokumentazio xehea, normalean proba diseinatzerakoan edo berritzaerakoan lantzen dena. Zehaztapenok gai hauei buruzkoak izan ohi dira: diseinua, edukia, maila, galdera eta ariketa motak, xede-populazioa, zertarako erabiliko den proba... Askotan azterketa-materialen ereduak ere eskaintzen dira.

en test specifications
fr spécifications d'un test
es especificaciones de examen
ca especificacions de la prova

56 azterketaria

Ikus "izangaia"ren definizioa.

en examinee
fr sujet
es examinando
ca destinatari de la prova

57 azterketaria

en test taker

58 azterketa-sortzailea

Probak diseinatzen eta sortzen dituen pertsona. Azterketagilea ere deitzen zaio.

en setter
fr élaborateur
es creador
ca elaborador

59 azterlan pilotua

Ikertzaileek edo azterketa-prestatzaileek aurretiaz egiten duten azterlana: beren ideiak pertsona-kopuru mugatu batekin probatzen dituzte. Horrela, izan litezkeen problemak aurkitzen dituzte, eskala handiko esperimentazioei, programei edo produktuei ekin baino lehen.

Konparatu: pretestatzea, saiakuntza

en pilot study
fr étude pilote
es estudio piloto
ca estudi pilot

60 aztertzaile bidezko zuzenketa

Zuzenketa modu honetan zuzentzaileek berariazko prestakuntza behar dute eta esperientzia ere bai, iritzi

subjektiboa eman ahal izateko. Normalean, mintzamen-probak eta idazlan luzeak horrela zuzentzen dira.

Konparatu: zuzenketa mekanikoa

- en** examiner marking
- fr** notation par l'examineur
- es** corrección por examinador
- ca** correcció d'examinador

61 aztertzailea

Pertsona honek puntuazio bat esleitzen dio azterketari batek proba batean izan duen errendimenduari, irizpen subjektiboa emanez. Aztertzaileak, normalean, dagokien arloan adituak dira eta prestakuntza eta estandarizazio-prozesu batetik pasatzen dira. Ahozko probetan, batzuetan, elkarrizketatzailearen eta aztertzailearen papera bereizten dira. Ebaluatzaile edo kalifikatzaile izenak ere ematen zaizkio.

- en** rater
- fr** évaluateur
- es** evaluador
- ca** qualificador

62 aztertze-lanaren ondorio sozialak

- en** social consequences of testing

63 B parametroa

Item-erantzunaren teoriako parametroa. Itemaren zailtasunarekin du zerikusia.

Ikus: item-erantzunaren teoria (IRT)

Bibliografia: Bachman, 1990, 204. or.

- en** b-parameter
- fr** paramètre-B
- es** parámetro B
- ca** paràmetre B

64 balidazioa

Prozedura honen bidez hauxe finkatzen da: probaren emaitzen interpretazioek zer baliotasun duten.

Ikus: baliotasuna

- en** validation
- fr** validation
- es** validación
- ca** validació

65 balioespen globala

Puntuatzeko metodo hau ahozko edo idatzizko adierazmen-probetan erabil daiteke. Ebaluatzaileak nota bakarra ipintzen du, azterketariaren produktiotik jasotzen duen inpresio orokorrean oinarrituta; ez ditu, beraz, hizkuntza-erabileraren alderdiak banaka puntuatzen.

Konparatu: puntuazio analitikoa, irudipenezko zuzenketa

- en** global assessment
- fr** évaluation globale
- es** valoración global
- ca** avaluació global

66 balioespen holistikoa

Ikus "balioespen globala"ren definizioa.

- en** holistic assessment
- fr** évaluation holistique ou globaliste
- es** valoración holística
- ca** valoració holística

67 balioespena

a) Proba bateko produkzioari, irizpen bidez, puntuazioa emateko prozesua.

b) Balioespen-prozesu baten bidez lortutako puntuazioa bera.

Bibliografia: Bachman, 1990, 50. or.

- en** rating
- fr** notation
- es** valoración
- ca** valoració

68 balioespen-eskala

Eskala honen kategoriak hierarkia baten arabera ordenatuak daude. Iritzi subjektiboak emateko erabiltzen da. Hizkuntzen ebaluazioan ere balioespen-eskalak erabiltzen dira produkzioa ebaluatzeko; eta, normalean, deskribatzaileak eranstean zaizkie kategorien esanahia argitzeko.

Konparatu: likert eskala

Ikus: deskribatzailea

- en** rating scale
- fr** échelle de notation
- es** escala de valoración
- ca** escala de valoració

69 balioespen-eskalaren eredua

Rasch eredu sinplearen hedapena, eskala-datuak lantzeko, esate baterako, ahozko azterketaren ebaluaziotik ateratako puntuazioak lantzeko.

Konparatu: Rasch eredua

Ikus: kreditu partzialaren eredua

Bibliografia: Wright & Masters 1982

- en** rating scale model
- fr** modèle de l'échelle de notation
- es** modelo de escala de valoración
- ca** model d'escala de valoració

70 baliotasun dibergentea

Ikus "diskriminatzeke baliotasuna"ren definizioa.

- en** divergent validity
- fr** validité divergente
- es** validez divergente
- ca** validesa divergent

71 baliotasun konbergentea

Proba batek baliotasun konbergentea duela esaten dugu, ondokoa betetzen duenean: konstruktua bera neurtzen duen beste proba batean lortutako emaitzekin korrelazio altua erakusten duenean (nahiz azterbidea desberdina izan). Konstruktua-baliotasunaren alderdi bat dela esan daiteke.

Konparatu: diskriminatzeke baliotasuna

Ikus: konstruktua-baliotasuna

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 436-437. or.

- en** convergent validity
- fr** validité convergente
- es** validez convergente
- ca** validesa convergent

72 baliotasun konkurrentea

Korrelazio bat da: alde batetik probaren puntuazioak eta bestetik jakintza-arlo edo gaitasun bera neurtzen duen kanpo-irizpide on bat korrelazionatzen dira.

Ikus: irizpidezko baliotasuna

Bibliografia: Bachman, 1990, 248-250. or.

- en** concurrent validity
- fr** validité concurrente
- es** validez concurrente
- ca** validesa concurrent

73 baliotasuna

Baliotasunak zera esaten digu: probaren xedea jakinik, eta probaren puntuazioetan oinarrituta, ateratzen diren ondorioak zenbateraino diren egokiak, esanguratsuak eta erabilgarriak.

Konparatu: baliotasun konkurrentea, konstruktua-baliotasuna, irizpidezko baliotasuna, baliotasun konbergentea, diskriminatzeke baliotasuna, itxurazko baliotasuna, auresate-baliotasuna

Bibliografia: Bachman, 1990, 25, 236-237. or.

- en** validity
- fr** validité
- es** validez
- ca** validesa


74 baliotasun-argudioa

Proposamen eta froga multzo zehatza da, probaren emaitzetatik atera diren interpretazioen baliotasuna erakusteko.

- en** validity argument

75 banaketa

Proba baten datuetan, azterketariak lortutako puntuazio bakoitza zenbat aldiz errepikatzen den adierazten du banaketak. Askotan histograma baten bidez ematen da.



Ikus: banaketa normala, asimetria

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 159-178. or.

- en** distribution
- fr** distribution (fréquence)
- es** distribución
- ca** distribució

76 banaketa moztua

Banaketa mota hau jatorrizkoa baino murriztagoa den populazio bati dagokio, puntuazio altukoak falta direlako edo puntuazio baxukoak falta direlako. Adibidez, sarbide-proba gaindituta, ikastaro baterako onartu diren ikasleak.

- en** truncated distribution
- fr** distribution tronquée
- es** distribución truncada
- ca** distribució truncada

77 banaketa normala

Banaketa matematiko hau zenbait prozedura estatistikoren funtsa da. Banaketa honek kanpaia simetrikorekin itxura hartzen du: batez bestekoa, mediana eta moda puntu berean kokatuta daude. Banaketa modu desberdinak daude, batez bestekoak edota desbiderapen estandarrek hartzen duten balioaren arabera edota behaketa-kopuruaren arabera. Banaketa honi Gauss-en Konparatu: modabiko banaketa

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 164. or.

- en** normal distribution
- fr** distribution (fréquence) normale
- es** distribución normal
- ca** distribució normal

78 banda

Zentzurik zabalenean, eskala baten zatia. Itemez osatutako proba batean, puntuazio multzo bat harrapatzen du eta kalifikazio jakin batez eman liteke edota puntuazio-banda batez. Eskala trebetasun jakin bat (esaterako, mintzamina edo idazmina) ebaluatzeke diseinatua bada,

orduan jarduera-maila zehatz bati dagokio.

en band
fr graphique en bandes
es banda
ca banda

79 banda-puntuazioa

Eskala baten zatia, gaitasun-arlo jakin bati dagokiona.

en band score
fr notation en bandes
es banda de puntuaciones
ca puntuació de banda

80 bariantza

Aldagai batek duen banaketaren neurria, bere batez besteko aritmetikoarekiko. Zenbat eta handiagoa izan bariantza, hainbat eta urrunago egongo dira puntuazio partikularrak batez bestekotik.

en variance
fr variance
es varianza
ca variància

81 bariantza-analisia

Ikus "ANOVA"ren definizioa.

en analysis of variance
fr analyse de la variance
es análisis de varianza
ca anàlisi de variància

82 barne-kontsistentzia

Probaren ezaugarri honek haxe erakusten du: ea azterketariak item bakoitzean lortzen duten puntuazioa beren puntuazio globalarekin koherentea ote den. Barne-kontsistentziaren kalkuluak probaren fidagarritasun-indize gisa erabil daitezke. Zenbait indize kalkula daitezke, esaterako KR-20 edo alfa.


Ikus: alfa koefizientea, Kuder-Richardson, fidagarritasuna

Bibliografia: Bachman, 1990, 172. or.

en internal consistency
fr fidélité interne
es consistencia interna
ca consistència interna

83 barra-diagrama

Aldagaiaren maiztasun-banaketa erakusteko modu grafikoa.



Konparatu: histograma

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 147. or.

en bar graph (chart)
fr graphique en barres
es diagrama de barras
ca diagrama de barres

84 bateratzea

Bateratze-saioen bitartez haxe segurtatzen da: ebaluatzaile guztiek adostutako prozedura berbera jarraitzen dutela eta balioespen-eskalak egoki aplikatzen dituztela. Estandarizazioa ere deitzen zaio.

Ikus: ebaluatzailea

en standardization
fr étalonnage
es estandarización
ca estandarització

85 bateria

Beren artean erlazioa duten proben edo azpiproben multzoa da. Datu independenteak ematen dituzte (esate baterako, trebetasun desberdinak aztertuz), baina datu horiek konbinatu egin litezke puntuazio bateratua emateko.

en battery
fr batterie
es batería
ca bateria

86 batez besteko koadratikoa

Bariantza-analisan (ANOVA) bariantzari ematen zaion izena.

Ikus: ANOVA

en mean square
fr carré moyen
es media cuadrática
ca mitjana quadràtica

87 batez bestekoa

Erdigunerako joeraren neurria. Azterketaldi bateko batez besteko puntuazioa kalkulatzeko puntuazio guztiak batu behar dira eta puntuazio-kopuruaz zatitu.

Konparatu: erdiko balioa, moda

Ikus: erdigunerako joeraren neurria

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 161-163. or.

en mean
fr moyenne
es media
ca mitjana aritmètica

88 begiralea

Gelan azterketa zaintzeko ardura duen pertsona. Zaintzailea ere esaten zaio.

en invigilator

89 behatutako puntuazioa

Azterketari batek lortutako puntuazioa. Azterketaren teoria klasikoak dioenez, behatutako puntuazioak bi osagai ditu: egiazko puntuazioa eta errorea.

Ikus: errorea, egiazko puntuazioa

en observed score
fr note observée
es puntuación observada
ca puntuació observada

90 behe-mailako trebetasunak

Azterketariei eskatzen zaizkien trebetasun hipotetiko ez-komplexuak. Adibidez, hitz jakin bat edo letra bat ezagutzea.

Konparatu: goi-mailako trebetasunak

en lower-order skills
fr capacités intellectuelles inférieures
es destrezas de orden inferior
ca habilitats d'ordre inferior

91 benetako komunikazioaren ikuspegia

Hizkuntzen ebaluazioan, benetako komunikazioaren ikuspegia aplikatuz gero, jartzen ditugun ariketek ahalik eta antzik handiena izan behar dute benetako komunikazioarekin. Esaterako, ikastaro akademiko bat atzerri-hizkuntza batean egiteko gaitasuna neurtu nahi badugu, horrelako ikastaro batean behar diren hizkuntza-beharrak eta hizkuntza-jarduerak analizatu behar dira lehenik, gero probaren edukiak analisi horretan oinarritzeko.

Ikus: benetako izatea

Bibliografia: Bachman, 1990, 301-328. or.

en real life approach
fr situation de communication réelle
es enfoque de comunicación real
ca enfocament basat en situacions reals

92 benetako testua

Proba batean erabilitako testua, baina jatorriz beste zerbaitetarako sortu zena.

Konparatu: testu egokitua

en authentic text
fr document authentique
es texto auténtico
ca text autèntic

93 benetakoa izatea

Probako atazek zer neurritan islatzen duten bizitza arrunteko jarduera. Esate baterako, hizkera akademikoa neurtzen duen proba baterako irakurketa-oharrak hartzea aproposagoa da entzumen-proba egitea baino. Ikus "probaren erabilgarritasuna" ere.

Bibliografia: Bachman, 1990, 300-303. or.

en authenticity
fr authenticité
es autenticidad
ca autenticitat

94 benetakotasuna

Ikus "benetakoa izatea".

en authenticity
fr authenticité
es autenticidad
ca autenticitat

95 berariazko item diskretua

Item diskretuek berariazko alor bat neurtzen dute (adibidez hiztegia edo egiturak) eta ez dute loturarik beste itemekin. Puntu diskretuko hizkuntza-probak 60ko hamarkadan oso ezagun egin ziren, Robert Lado-ri

Konparatu: item/ ariketa integratua

Ikus: item diskretua

en discrete-point item
fr item discret spécifique
es ítem discreto específico
ca ítem de punt discret

96 berbaldia

Idatzizko edo ahozko testua da, hizkuntzazko komunikazio-ekintza bezala ulertua.

en discourse
fr discours
es discurso
ca discurs

97 berbaldi-analisia

Analisi mota honek idatzizko zein ahozko testu moten egitura eta funtzioa aztertzen du.

en discourse analysis
fr analyse de discours
es análisis del discurso
ca anàlisi del discurs

98 berbaldi-gaitasuna

Berbaldia ulertzeko eta produzitzeko gaitasuna. Berbaldi-gaitasuna osagai berezi bat da, hizkuntza-gaitasuna azaltzen duten modelo batzuetan.

Bibliografia: Bachman, 1990, 4. kap.

- en** discourse competence
- fr** compétence discursive
- es** competencia discursiva
- ca** competència discursiva

99 berdintze bertikala

Zailtasun-maila desberdineko bi probaren puntuazioak eskala berean kokatzeko prozesua.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 473-477. or.

- en** vertical equating
- fr** calibrage vertical
- es** equiparación vertical
- ca** equiparació vertical

100 berdintze ekipertzentila

Proben puntuazio gordinak berdintzeko erabiltzen den metodoa. Azterketari multzo batean, puntuazioak berdinduak kontsideratzen dira, maila pertzentil berekoak badira.

- en** equipercntile equating
- fr** calibrage équicentile
- es** equiparación equipercntil
- ca** equiparació d'equipercntils

101 berdintze horizontala

Prozesu honen bidez zailtasun bertuko bi probaren puntuazioak eskala berean kokatzen dira, horrela proba bietan estandar berberak erabiltzeko.

Konparatu: berdintze bertikala

- en** horizontal equating
- fr** calibrage horizontal
- es** equiparación horizontal
- ca** equiparació horitzontal

102 berdintze lineala

Prozedura honekin bi probaren puntuazioak berdintzen dira: puntuazioak pareko bihurtzeko desbiderapen estandar kopuru bera kalkulatzeko zaie beren probaren batez bestekotik gora edota behera.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 457-461. or.

- en** linear equating
- fr** calibrage linéaire
- es** equiparación lineal
- ca** equiparació lineal

103 berrikusketa

en review

104 berrikustea

a) Proba bateko itemen edo ariketen prestakuntzaren zatia da. Fase honetan, zenbait adituk (azterketa-prestatzaileek, irakasleek) materialak ikuspegi kritikoz berrikusten dituzte eta onartzekoak diren (aldaketak eginda) edo ez erabakitzen dute. Aukeraketa ere deitzen zaio.

b) Ebaluazio-prozesuan, ikuskatzaile edo birzuzentzaile batek lehendik ebaluatzaile batek ipinitako kalifikazioetan

Konparatu: aukeraketa, birzuzenketa

- en** moderation
- fr** modération
- es** moderación
- ca** moderació

105 bi parametroko eredua

Item-erantzunaren teorian, eredu honek itemaren diskriminazio-parametroa ere kontuan hartzen du, gaitasun/zailtasun parametroaz gain.

Konparatu: parametro bakarreko eredua, Rasch eredua

Ikus: item-erantzunaren teoria (IRT)

- en** two-parameter model
- fr** modèle à deux paramètres
- es** modelo de dos parámetros
- ca** model de dos paràmetres

106 bigarren motako errorea

Estatistikan, hipotesi nulua onartzean egiten den errorea, izatez faltsua denean.

Konparatu: lehen motako errorea

Ikus: hipotesi nulua

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 224. or.

- en** type 2 error
- fr** erreur de type 2
- es** error tipo 2
- ca** error de segona espècie

107 biribiltzea

Prozedura honekin zifra baten zehaztasuna murrizten da, zifra esanguratsuen kopurua murrizten baita. Adibidez: 564,8 zenbatekoa gorantz biribildu eta 565 idatzenez gendake edo beherantz, 560. Biribiltzeko eskala behar dugun doitasunaren arabera izan ohi da.

- en** rounding
- fr** arrondir
- es** redondeo
- ca** arrodoniment

108 birmailakatzea

Ikus "mailakatzea"ren definizioa.

en re-scaling
fr ré-échelonnage
es sustitución de escala
ca reescalament

109 birzuzenketa

Ebaluazio-prozesuan, ikuskatzaile edo birzuzentzaile batek lehendik ebaluatzaile batek ipinitako kalifikazioetan egiten duen doikuntza.

Konparatu: berrikustea

en moderation
fr modération
es moderación
ca moderació

110 bizirauteko maila/ tarteko maila

Atzerri-hizkuntzarako diseinatutako oinarri-oinarrizko gaitasun-maila bat da. Maila honen zehaztapenak Europako Kontseiluak argitaratu zituen lehen aldiz ingeleserako 1977an, eta 1990ean berrikusi ziren. Atalase maila baino baxuagoko maila da. Atalase Mailak duen ikas-edukiaren erdia kalkulatzeko zaio.

Konparatu: Atalase maila

en Waystage level
fr niveau de survie/ niveau intermédiaire
es nivel supervivencia/ nivel plataforma
ca nivell bàsic

111 burutze-proba

Ariketa mota honetan testu bateko hutsuneak bete behar dira. Testutik hitz osoak daude kenduta. Burutze-proba klasikoan x hitzetik bat ezabatzen da sistematikoki. Baina beste ariketa batzuei ere horrela deitzen zaie, esate baterako: testu bateko esaldi laburrak kendu eta haien hutsunea betetzea; testuko hitzak irizpide arrazional batekin ezabatzea ("burutze-proba arrazionala"). Burutze-proba "irekia" izan daiteke: azterketariak falta diren hitzak eman behar ditu. Edo "itxia": erantzun posibleen artean aukeratu behar da. Zuzenketa egiteko "hitz zehatza" eska daiteke: testu originaletik ezabatutako hitza bakarrik onartzen da erantzun zuzentzat. Edo "hitz onargarria"rekin konforma gaitetzke: aztertzailerek hitz onargarrien zerrenda erabiltzen dute.

Konparatu: C proba, hutsuneak betetzeko itema

*Bibliografia: Weir, 1990,46-48. or.
 Oller, 1979, 12. kap.*

en cloze test
fr test de closure
es prueba cloze (cloze test)
ca prova de compleció

112 burutze-proba arrazionala

Ikus "burutze-proba"ren definizioa.

en rational cloze
fr test de closure sélectif
es prueba cloze racional
ca prova de compleció racional

113 C parametroa

Item-erantzunaren teoriako parametroa. Zoriz asmatzeko posibilitatearekin du zerikusia.

Ikus: item-erantzunaren teoria (IRT)

Bibliografia: Bachman, 1990, 204. or.

en c-parameter
fr paramètre-C
es parámetro C
ca paràmetre C

114 C proba

"Hutsuneak bete" motako ariketa. Hitzaren bigarren erdia ezabatuta aurkezten da eta azterketariak osatu egin behar du. Ezabatze horren maiztasuna bi hitzetik behin izatera irits daiteke.

Konparatu: burutze-proba

en c-test
fr test-c
es prueba C
ca prova C

115 chi karratuaren testa

Prozedura estatistiko honek bi gauza hauek konparatzen ditu: behatutako erantzunen balioak eta itzarotekoak ziren erantzunak. Horrela, beren arteko diferentzia estatistikoki esanguratsua den ala ez esan daiteke. Prozedura edo teknika ez-parametrikoa da.

Ikus: prozedura ez-parametrikokoak

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 393-415. or.

en chi-square test
fr épreuve du khi deux
es test chi-cuadrado
ca prova khi-quadrat

116 Cronbach-en alfa

Ikus "alfa koefizientea"ren definizioa.

en Cronbach's alpha
fr alpha de Cronbach
es alfa de Cronbach
ca alfa de Cronbach

117 curriculum

Ikastaro baten deskribapen orokorra da: helburuak, edukiak, antolaketa, ikasbideak, ebaluazioa. Ikasketaplana ere deitzen zaio.

Konparatu: programa

en curriculum
fr curriculum
es curriculum

ca curriculum

118 curriculumaz besteko proba

Proba hauek ez daude programa edo ikastaro jakin batekin lotuta.

Konparatu: curriculumean oinarritutako proba

Ikus: arloan oinarritutako proba

en curriculum-independent test
fr test non lié à un curriculum
es prueba no basada en el currículum
ca prova independent del currículum

119 curriculumean oinarritutako proba

Ikasketa-programarekin erlazio zuzena duen proba.

Ikasprozesuan berariazko zeregina du.

Konparatu: curriculumaz besteko proba

Ikus: aprobetxamendu-proba

en curriculum-dependent test
fr test curriculaire
es prueba basada en el currículum
ca prova dependent del currículum

120 D garbia

Ikus "D indizea"ren definizioa.

en net D
fr écart D
es d neto
ca index D

121 D indizea

Proba bateko itemen diskriminazio-indizea. Askotan proba-pasaketa txikietan erabiltzen da, ikasgela mailan, erraza baita eskuz kalkulatzea. Puntuazio orokorrean oinarrituta, goiko talde bat eta beheko talde bat aukeratzeko dira. Talde bakoitzak azterketarien %10 - %33 bitarte bildu behar ditu. Puntuazioek banaketa normala dutenean, egokiena izan ohi da talde horietariko bakoitzak %27 biltzea. Talde horietan item bakoitzari eman zaizkion erantzunak kontatzen dira. Item batek ondo diskriminatzen badu, goiko taldeak behekoak baino puntuazio hobea izango du. Formula honek adierazten du itemaren diskriminazio-indizea:

$$D = P_{gt} - P_{bt}$$

P_{gt} = goiko taldean zuzen erantzun dutenen frakzioa.

P_{bt} = beheko taldean zuzen erantzun dutenen frakzioa.

Normalean 0,3 edo goragoko indizea duten itemek ondo diskriminatzen dutela esaten da.

en d-index
fr indice-D (D pour discrimination)
es índice D
ca index D

122 delta adierazpidea

Itemaren funtzionamendu diferentziala adierazteko modua. Taldeen errendimenduan diferentziak handitzen edo murrizten dituzten itemak identifikatzeko erabiltzen da. Itemaren zailtasun klasikoetan oinarritzen da (p balioak). Ondoren p balio hauek z puntuazio (puntuazio normalizatu) bihurtzen dira. Gero, balio hauek pareka adierazten dira grafiko batean, bi taldeetan duten zailtasun erlatiboa erakusteko.

Ikus: itemaren funtzionamendu diferentziala

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 388-390. or.

en delta plot method
fr méthode du graphique delta
es método de representación delta
ca metode del gràfic delta


123 delta eskala

Normalizatutako eskala: 13ko batez bestekoa eta 4ko desbiderapen estandarra ditu.

en delta scale
fr échelle delta
es escala delta
ca escala delta

124 desbiderapen estandarra

Proba bateko puntuazioek (edo bestelako datuek) duten sakabanatzearen neurria da. Puntuazioen banaketa normala bada, horien %68 desbiderapen estandar baten barnean jausten da eta %95 bi desbiderapenen barnean. Desbiderapen estandarra zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta urrunago egongo da gehiengoaren datuetatik.



Konparatu: ibilartea

Ikus: bariantza

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1991, 61-62. or.;

Crocker & Algina, 1986, 21-22. or.

en standard deviation (SD)
fr déviation standard
es desviación estándar
ca desviació estàndard

125 deskribatzailea

Deskribapen labur bat da, ebaluazio-eskala bateko banda bakoitzean jartzen dena. Puntuazio hori lortzeko azterketariak behar duen gaitasun-maila edo lorpen-maila deskribatzen du.

en descriptor
fr descripteur
es descriptor
ca descriptor

126 detekzio-proba

Proba labur eta aplikaerazak izan ohi dira. Ikastaro batean ikasketari izan daitezkeenak identifikatzeko erabiltzen dira edota azterketa batean azterketari izan daitezkeenak. Atariko proba ere deitzen zaie.

Konparatu: sailkatze-proba

en screening test
fr test de dépistage
es prueba de selección
ca prova de detecció

127 diagnostiko-proba

Honelako probekin ikaslearen alde sendoak eta ahulak bilatu nahi izaten dira. Emaitzak lagungarri izan daitezke hainbat erabaki hartzeko: ikasleak izan behar duen prestakuntza, ikasketak, irakaskuntza...

en diagnostic test
fr test diagnostique
es prueba de diagnóstico
ca prova de diagnòstic

128 diktaketa

Ariketa mota honetan azterketariak testu bat entzun behar du eta entzundako hitz horiek idatzi. Ebaluatzeko irizpideak probak dituen helburuen arabera izango dira; esaterako, ortografia eta puntuazioa sar litezke irizpideen artean.

en dictation
fr dictée
es dictado
ca dictat

129 dimentsio-bakartasuna

Dimentsio bakarraren nozioa. Suposamendu hori beharrezkoa da ezaugarri psikologikoak neurtuko dituen eskalak osatzeko, esate baterako gaur eguneko item-erantzunaren ereduak erabiliz. Dimentsio-bakartasuna neurpidearen ezaugarria da, eta ez azpiko prozesu psikologikoa.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 343. or.

en unidimensionality
fr unidimensionnalité
es unidimensionalidad
ca unidimensionalitat

130 diploma

Agiri mota honek azterketariak azterketa bat edo zati bat

egin duela adierazten du eta kalifikazio jakin bat lortu duela (normalean "gainditua" gutxienez). Maiz, ziurtagiria baino maila altuagoko agiritzat hartzen da.

Konparatu: ziurtagiria

en diploma
fr diplôme
es diploma
ca diploma

131 diskriminatze baliotasuna

Proba batek badu diskriminatze baliotasuna baldin eta ezaugarri desberdineko probekin duen korrelazioa txikiagoa bada antzeko probekin duena baino, neurtzeko metodoa gorabehera. Konstruktibaliotasunaren alderdi bat dela esan liteke.

Konparatu: konstruktibaliotasuna

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 23. or.; Guilford & Fruchter, 1981, 436-437. or.

en discriminant validity
fr validité discriminante
es validez discriminatoria
ca validesa discriminant

132 diskriminazioa

Item baten gaitasuna azterketari onak eta txarrak bereizteko. Hainbat diskriminazio-indize erabiltzen da. Ikus VII. gehigarria.

Ikus: korrelazio biseriala, korrelazio biserial puntuala, item-*Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 313-320. or.; Ebel & Frisbie, 1991, 231-232. or.*

en discrimination
fr discrimination
es discriminación
ca discriminació

133 distraigarria

Aukera anitzeko galdera batean, edozein aukera oker.

Konparatu: erantzun zuzena

Ikus: aukera anitzeko galdera

en distractor
fr distracteur
es distractor
ca distractor

134 distraigarriaren maiztasuna

Aukera anitzeko item batean, distraigarri bakoitza zein maiztasunez aukeratua izan den adierazten du.

Maiztasunak aukera bakoitzaren erakargarritasuna

en distractor tally
fr pointage du distracteur
es cómputo de los distractores
ca marca del distractor

135 doitasuna

Eredu baten pronostikoen eta jasotako emaitzen artean dagoen adostasun-maila. Hainbat doitasun-indize kalkulatu daitezke. Item-erantzunaren teoria (IRT) doitasunaren analisiak honako hau erakusten du: item batek eta pertsona bakoitzaren parametroek (adib. zailtasunak eta gaitasunak) zenbateraino pronostikatzen duten pertsonak proban lortuko duen puntuazioa. Test-teoria klasikoan diskriminazio-indizeak adierazten duenaren antzekoa da itemaren doitasun-estatistika IRTn.

Ikus: item-erantzunaren teoria

en	fit
fr	adéquation
es	ajuste
ca	ajustament

136 ebaluatzailea

Ikus "aztertzailea".

en	assessor
fr	examineur
es	calificador
ca	avaluador

137 ebaluatzailea

Pertsona honek puntuazio bat esleitzen dio azterketari batek proba batean izan duen errendimenduari, irizpen subjektiboa emanez. Ebaluatzaileak, normalean, dagokien arloan adituak dira eta prestakuntza eta estandarizazio-prozesu batetik pasatzen dira. Ahozko probetan, batzuetan, elkarrizketatzailearen eta ebaluatzailearen papera bereizten dira. Aztertzaile edo kalifikatzaile izenak ere ematen zaizkio.

Konparatu: elkarrizketatzailea, zuzentzailea

en	assessor
fr	examineur
es	calificador
ca	avaluador

138 ebaluatzailearen barne-adostasuna

Kalifikatzaile batek jarduera jakin bat une desberdinetan ebaluatzen duenean, bi kalifikazio horien artean dagoen adostasun-mailari deitzen zaio ebaluatzailearen barne-adostasuna. Aztertzailearen iritzi subjektiboa behar duten trebetasunetan (mintzamina eta idazmena) kontuan hartzekoa da.

en	intra-rater agreement
fr	accord intra-individuel
es	acuerdo intra-evaluador
ca	acord intraqualificador

139 ebaluatzailearen barne-fidagarritasuna

Ebaluatzaileak emandako balioespen batek duen fidagarritasunaren estimazioa da. Estimazio honek haxe

hartzen du kontuan: ebaluatzaile berberak produkzio berbera aldi desberdinetan ebaluatzerakoan, zenbateraino berdin puntuatzen duen.

Konparatu: ebaluatzailearen barne-adostasuna, fidagarritasuna

en	intra-rater reliability
fr	fidélité intra-individuelle
es	fiabilidad intra-evaluador
ca	fiabilitat intraqualificador

140 ebaluatzailearen efektuak

Balioespenean gertatzen diren erroreak dira. Puntuazioak ematerarakoan aztertzaileek dituzten joera batzuen ondorio dira. Esate baterako, kutsadura-efektua, halo-efektua eta hurrenkeraren efektua.

en	rater effects
fr	effets parasites de la correction
es	efectos evaluadores
ca	efectes del qualificador

141 ebaluatzaileen adostasuna

Ikus "ebaluatzaileen arteko adostasuna" eta "ebaluatzailearen barne-adostasuna"ren definizioa.

en	rater agreement
fr	accord individuel
es	acuerdo evaluador
ca	acord de qualificador

142 ebaluatzaileen arteko adostasuna

Kalifikatzaile biren edo gehiagoren artean dagoen adostasun-maila, hizkuntza-produkzio jakin baten gainean. Aztertzailearen iritzi subjektiboa behar denean (mintzamina eta idazmena kalifikatzeko), oso garrantzitsua da.

en	inter-rater agreement
fr	accord inter-individuel
es	acuerdo inter-evaluador
ca	acord interqualificador

143 ebaluatzaileen arteko fidagarritasuna

Proba batek duen fidagarritasunaren estimazio bat da. Fidagarritasun mota honek haxe hartzen du kontuan: ebaluatzaileek izangaien lorpen-mailaz egiten dituzten balioespenak zenbateraino bat datozen.

Ikus: ebaluatzaileen arteko adostasun-maila, fidagarritasuna

en	inter-rater reliability
fr	fidélité inter-individuelle
es	fiabilidad inter-evaluador
ca	fiabilitat interqualificador

144 ebaluazio formatiboa

a) Ikastaro edo ikas-programa batek irauten duen

bitartean (ez amaieran) aplikatzen den proba. Emaitzetan oinarrituta, irakasleak, hasiera samarretik, neurri zuzentzailak har litzake, laguntza bideratu etab. Edota, hala behar balitz, ikastaroaren ikuspegia ere alda lezake.

es d de Ebel
ca d d'Ebel

b) Prozesu baten etengabeko ebaluazioa; prozesu hori egokitzea eta hobetzea du helburu, irauten duen bitartean. Ebaluazio formatiboak ikas-programa bat izan lezake helburu.

Konparatu: ebaluazio sumatiboa

en formative assessment
fr évaluation formative
es evaluación formativa
ca avaluació formativa

145 ebaluazio sumatiboa

a) Prozesuaren ebaluazioa, prozesua amaitu denean egiten dena. Prestakuntza-programa bat izan dezake helburu.

b) Ikastaro edo ikas-programa baten amaieran egiten den

Konparatu: ebaluazio formatiboa

en summative assessment
fr évaluation sommative
es evaluación sumativa
ca avaluació sumatòria

146 ebaluazioa

a) Datu bilketa sistematikoa, gero erabakiak hartzeko oinarria izateko. Hizkuntza-azterketetan, ebaluazioak ikasketa-plan baten, azterketa baten edo proiektu baten eraginkortasuna neur dezake.

b) Hizkuntzen ebaluazioan, hizkuntza-gaitasunaren alderdi bat edo batzuk neurtzea, proba edo prozedura baten

Bibliografia: Bachman, 1990, 50. or.

en evaluation/ assessment
fr évaluation
es evaluación
ca avaluació

147 ebaluazioa interpretatzeko argudioa

Balioetasun-argudioaren zati bat da. Proba baten emaitzak erabilera jakin baterako nola interpretatu behar diren adierazten du.

en assesment use argument

148 Ebel-en D-a

Ikus "D indizearen" definizioa.

en Ebel's d
fr d de Ebel

149 edukiaren analisisa

Azterketa-materialen edukia deskribatzeko eta analizatzeko modua. Beharrezkoa da proba baten edukia eta probaren zehaztapenak bat datozen aztertzeko. Nahitaezkoa da eduki- eta konstruktibaliotasuna

en content analysis
fr analyse de contenu
es análisis de contenido
ca anàlisi del contingut

150 eduki-balioetasuna

Proba baten eduki-balioetasuna bermatzeko, bertako itemek eta ariketek ezagutza-arlo horretan dauden item edo ariketen lagin adierazgarria izan behar dute. Item edo ariketa horiek programa batekin edo ikastaro batekin zerikusia izan ohi dute.

Ikus: balioetasuna, azterketaren zehaztapenak
Bibliografia: Bachman, 1990, 244-247. or.

en content validity
fr validité de contenu
es validez de contenido
ca validesa del contingut

151 EEBMko Erreferentzia Maila Bateratuak

en Common Reference Levels of the CEFR

152 egia/gezurra itema

Item mota honetan azterketariak hauxe esan behar du: baieztapen batzuk egiazkoak ala gezurrezkoak diren, testu batean oinarrituta.

en true/false item
fr vrai/faux
es ítem verdadero/falso
ca ítem vertader/fals

153 egiazko puntuazioa

Azterketari batek benetan lortuko lukeen puntuazioa, baldin eta azterketa egiterakoan edo zuzentzerakoan neurketa-errererik izango ez balitz. Test-teoria klasikoan funtsezko kontzeptua da.

en true score
fr note vraie
es puntuación verdadera
ca puntuació vertadera

154 egiaztatzea

Erakunde batek, normalean erakunde ofizial batek

(governuko sailak, epaimahaiak etab.) azterketa edo maila jakin bat aitortzea. Egiatzatze horren ondorioz ematen da egiaztagiria.

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 6. kap. ; Bachman, 1990, 259-260. or.

en accreditation
fr accréditation
es acreditación
ca acreditació

155 egingarritasuna

Zenbateraino den posible beharrak betetzeko moduko proba bat garatzea, eskueran ditugun baliabideekin. "Erabilgarritasuna" ere deitu izan zaio.

en practicality

156 egoera benetakoa izatea

Proba jakin bat zenbateraino den benetakoa, mundu errealekin konparatuta edo azterketaz kanpoko hizkuntza-erabilerekin eta egoerekin konparatuta.

Konparatu: elkarreragina benetakoa izatea, benetako komunikazioaren ikuspegia

Ikus: benetakoa izatea

Bibliografia: Bachman, 1990, 8. kap.

en situational authenticity
fr authenticité situationnelle
es autenticidad situacional
ca autenticitat situacional

157 egonkortasuna

Fidagarritasunaren alderdi hau kalkulatzeko egiten den balioespena test-retest metodoan oinarritzen da. Proben emaitzek edo puntuazioek denboran zehar duten egonkortasuna hartzen du kontuan.

Ikus: fidagarritasuna, test-retest fidagarritasuna

en stability
fr constance
es estabilidad
ca estabilitat

158 ehuneko eskala

Eskala ordinal hau 100 zentil edo unitatetan banatzen da. Norbaiti 95eko balio zentila ematen bazaio, hauxe esan nahi du: 100 pertsonako lagin tipiko batean, pertsona hori beste 95en gainetik egongo litzatekeela. Eskala zentila edo pertzentila ere deitzen zaio.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 439-442. or. ; Guilford & Fruchter, 1981, 38-41. or.

en centile scale
fr échelle centile
es escala centil
ca escala de centil

159 ehuneko heina

Zenbaki edo puntuazio honek heina adierazten du, puntuazio horren azpitik gelditzen den ehunekoa erakusten baitu. Azterketari batek 60ko ehuneko heina badu, horrek esan nahi du azterketariaren %60k puntuazio berdina edo baxuagoa izan duela.

en percentile rank
fr classement centile
es rango percentil
ca rang de percentil

160 ekintzara bideratutako hurbilketa

Hizkuntzari buruzko ikuspegia. Bertan hizkuntza tresnatzat hartzen da; jendartean ekintza komunikatiboak sortzeko tresna, hain zuzen ere.

en action-oriented approach

161 elkarreragina

Itemak eta atazak zer neurritan uztartzen diren bizitza arruntean gertatzen diren adimen-prozesu eta estrategiekin. Ikus "probaren erabilgarritasuna".

en interactivity

162 elkarreragina benetakoa izatea

Azterketariaren erantzuna egokia izan dadin, azterketariaren eta ariketaren arteko elkarreragina behar da. Elkarreragin hori zenbateraino den benetakoa hartzen du kontuan ezaugarri honek.

Konparatu: egoera benetakoa izatea, benetako komunikazioaren ikuspegia

Ikus: benetakoa izatea

Bibliografia: Bachman, 1990, 315-323. or.

en interactional authenticity
fr authenticité interactionnelle
es autenticidad interactiva
ca autenticitat interaccional

163 elkarrizketatzailea

Mintzamen-proba batean, egin beharrekoa azaltzen duen aztertzailea, galderak egiten dituen eta azterketariaren hitz egiten duena. Elkarrizketatzaileak azterketaria ebaluatu eta kalifikatu ahal du, edo bestela, zeregin hori beste aztertzaile batek egin lezake. Azken hau behatzaile izan liteke, azterketariaren hitz egin gabe.

Konparatu: ebaluatzailea

en interlocutor
fr interlocuteur
es entrevistador
ca interlocutor

164 elkarrizketatzailearen gidioa

Ahozko proba bideratzeko elkarrizketatzaileak erabili

behar duen hizkerari buruzko oharra. Azterketari guztiek entzungo duten hizkera estandarizatzea du helburu, horrela proba justuagoa eta fidagarriagoa izan dadin.

en interlocutor frame
fr cadre de l'interlocuteur
es guión del entrevistador
ca guia de l'interlocutor

165 emaitza

Azterketa baten kalifikazioa, azterketariari edota proba-erabiltzaileari ematen zaion moduan.

en result
fr résultat
es resultado
ca resultat

166 entzumen-proba

Proba honekin ahozko hizkuntzaren ulermena ebaluatzen da. Proba egiteko, kasetea edo bideoa erabiltzen da normalean. Ahozkoaren ulermen-proba eta entzutezko ulermen-proba ere deitzen zaio.

en listening comprehension test
fr test de compréhension orale
es prueba de comprensión auditiva
ca prova de comprensió oral

167 eragina

Azterketa batek dituen ondorioak, bai gizartean, bai ikas-prozesuan eta bai azterketaren emaitzekin interesatuta dauden pertsonengan.

Ikus: oihartzun-efektua, ondorio

en impact
fr impact
es impacto
ca impacte

168 eraikitako erantzuna

Galdera bati erantzuteko, erantzun mota honek produkzio aktiboa eskatzen du, idaztea alegia. Beraz, kasu honetan ez da aski erantzun posibleen artean bat hautatzea.

Konparatu: erantzun hautatua

Ikus: erantzuna

en constructed response
fr réponse construite
es respuesta construida
ca resposta elaborada

169 erantzun hautatua

Zenbait galderatan azterketariak ez du erantzuna sortu beharrik; aski du aukerako erantzunen artean bat

Konparatu: eraikitako erantzuna

Ikus: erantzuna

en selected response
fr réponse sélectionnée
es respuesta seleccionada
ca resposta seleccionada

170 erantzun laburreko itema

Item irekia da: azterketariak erantzuna produzitu egin behar du, hitz bat edo esaldi bat idatziz.

en short answer item
fr item à réponse courte
es ítem de respuesta corta
ca ítem de resposta curta

171 erantzun zuzena

Proba bat puntuatzerakoan, zuzentzat jotzen den

en right answer
fr réponse correcte
es respuesta correcta
ca resposta certa

172 erantzuna

Probaren estimuluak azterketariarengan sortzen duen jokabidea. Esaterako, aukera anitzeko galdera bati ematen zaion erantzuna edo idazmen-proban egindako Konparatu: estimulua, euskarria

en response
fr réponse
es respuesta
ca resposta

173 erantzuna pizteko bideak

Azterketariaren erantzuna sortzeko eta bideratzeko erabiltzen diren teknikak. Normalean ahozko probetan erabili ohi dira.

Bibliografia: Hughes, 1989, 104-110 or.

en elicitation procedures
fr procédures de déduction
es procedimientos de incitación
ca procediments d'elicitació

174 erantzunen lagina

Azterketariak emandako erantzunen lagina da. Gaitasun-tarte jakin bateko aleak biltzen dira eta zuzentzaileen irizpideak estandarizatzeko edo bateratzeko erabiltzen dira. Normalean idazkien edo ahozko produkzioen lagina izan ohi da.

en sample scripts
fr échantillon d'écrits
es ejemplares modelo
ca mostres d'examen

175 erantzun-eredua

Galderaren sortzaileak ematen du; galdera irekientzat itxaroten den erantzuna da. Zuzentzeko txantiloietan erabil daiteke, azterketa-zuzentzaileei laguntzeko.

- en model answer
- fr réponse modèle
- es respuesta modelo
- ca model de resposta

176 erantzun-orria

Azterketariak erantzunak idazteko edo markatzeko duen papera.

Konparatu: irakurgailu optikoa

- en answer sheet
- fr feuille de réponses
- es hoja de respuestas
- ca full de resposta

177 erantzun-orria

Azterketariak erantzunak idazteko edo markatzeko duen papera.

- en script
- fr script
- es hoja de respuestas
- ca full de resposta

178 erdi zuzeneko elkarrizketa

Honelako mintzamen-probetan estimulu bat ematen zaio azterketariari zinta bidezko grabazio batean, eta haren erantzuna grabatzen da, gero ebaluatua izan dadin.

Ikus: erdi zuzeneko proba

- en SOPI (Semi-direct/ Simulated Oral Proficiency Interview)
- fr test semi-direct
- es entrevista semi-directa/ simulada de dominio oral
- ca entrevista de proficiència oral semidirecta / simulada

179 erdi zuzeneko proba

Proba hauek hizkuntza-produkzioa ebaluatzen dute, baina aztertzailerearen esku-hartzea partez ordezkatur.

Esaterako, mintzamen-proba batean grabazio bat erabil liteke estimulu gisa, aztertzailere baten ordezkari. Honen adibide da SOPI (Semi-Direct Oral Proficiency Interview) erdi zuzeneko elkarrizketa.

Konparatu: proba zuzena

- en semi-direct test
- fr test semi-direct
- es prueba semi-directa
- ca prova semidirecta

180 erdien fidagarritasuna

Fidagarritasunaren barne-kontsistentziaren neurria. Proba baten bi erdiak aparteko bi proba bairan hartzen dira eta beren puntuazioak korrelazionatzen dira. Proba erdibitzeko era desberdinak daude: esaterako, goiko zatia eta behekoa, item bakoitiak eta bikoitiak.

Ikus: fidagarritasuna

- en split-half reliability
- fr fidélité de bi-partition
- es fiabilidad por mitades
- ca fiabilitat pel mètode de dues meitats

181 erdigunerako joeraren neurria

Aldagaiaren datuak laburtzeko erabiltzen den parametroa da, datuak erdialdeko balio batera murriztuz.

Erdigunerako joeraren hiru neurri ohikoenak hauexek dira: batez bestekoa, mediana eta moda.

Bibliografia: Henning 1987, 39-40. or.; Guilford & Fruchter, 1981, 4. kap.; Hatch & Lazaraton, 1991, 159-164. or.

- en central tendency (measure of)
- fr tendance centrale (mesure de la)
- es tendencia central (medida de)
- ca mesura de tendència central

182 eredu kognitiboa

Ikuspegi edo teoria honek kontuan hartzen du pertsonaren ezagutza nola egituratzen den, bai kontzeptuei dagokienez eta bai prozesuei dagokienez. Eredu hau garrantzizkoa da hizkuntzen irakaskuntzan, proben edukia edo metodoa aukeratzeko eragina izan bailezake.

- en cognitive model
- fr modèle cognitif
- es modelo cognitivo
- ca model cognitiu

183 eredu probabilitistikoa

Eredu honetan kausa-erlazioak (adib. item-zailtasunaren eta azterketariak duen gaitasunaren artekoa) probabilitate-mailen bidez esplikatzen dira. Rasch eredu, esaterako, mota honetakoa da.

- en probabilistic model
- fr modèle des probabilités
- es modelo probabilístico
- ca model probabilístic

184 ereduaren doitasuna

Eredu bat (esaterako, Rasch eredu) analisi estatistikoetan erabiltzen denean, garrantzitsua da ikustea zenbateraino egokitzen diren datuak eta eredu bera.

Eredu, izatez, ideal bat da, datuak nolakoak izan behar luketen azaltzeko; beraz, erabateko doitasunik ez dago. Nolanahi ere, doitasun eza handia bada, horrek adieraz

lezake datuei buruzko ondorioak faltsuak direla.

en model fit

185 erraztasun-balioa

Item bati emandako erantzun zuzenen proportzioa, 0 eta 1 bitarteko eskalan emana. Batzuetan ehunekoetan ere adierazten da. Beste izen batzuk ere hartzen ditu: erraztasun-indizea, zailtasun-indizea edo p balioa.

en facility value
fr valeur de facilité
es valor de facilidad
ca valor de facilitat

186 erraztasun-indizea

Item bati emandako erantzun zuzenen proportzioa, 0 eta 1 bitarteko eskalan emana. Batzuetan ehunekoetan ere adierazten da. Erraztasun-balioa edo p balioa ere deitzen zaio.

Konparatu: zailtasun-indizea

en facility index
fr indice de facilité
es índice de facilidad
ca index de facilitat

187 erreferentzia-taldea

Ongi definitutako izangai-populazio batetik ateratako lagina. Talde horrek norma gisa balio du proba baterako.

Ikus: norma

en reference group
fr groupe de référence
es grupo de referencia
ca grup de referència

188 erregistroa

Erregistroak hizkerak edo hizkuntza-aldaerak dira, bai hizkuntza mintzatuan eta bai idatzian. Erregistroak lotura zuzena du erabilerarekin eta zenbait aldagairen araberakoa izaten da: darabilgun gaia, formaltasun-maila, komunikazio-kanala, asmoa.

en register
fr registre
es registro
ca registre

189 erregresio anizkoitza

Teknika estatistiko hau honetarako erabiltzen da: zenbait aldagai askek mendeko aldagai batengan dituen eragin linealak ikusteko. Eman dezagun, mendeko aldagaia ariketa baten zailtasuna dela. Aldagai horretan zenbait faktorek (ariketa motak, lexikoaren zailtasunak...) duten eragina azter daiteke.

Ikus: aldagai askea, erregresioa

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 480-486. or.

en multiple regression
fr régression multiple
es regresión múltiple
ca regressió múltiple

190 erregresio lineala

Erregresio-teknika honek erlazio lineala eraikitzen du mendeko aldagaiaren eta aldagai askearen artean.

en linear regression
fr régression linéaire
es regresión lineal
ca regressió lineal

191 erregresioa

Aldagai baten (mendeko aldagaiaren) balio probablea aurrerako erabiltzen den teknika, beste aldagai baten edo batzuen (aldagai askeen) balio ezagunetan oinarrituta.

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 467-480. or.; Guilford & Fruchter, 1981, 346-361. or.

en regression
fr régression
es regresión
ca regressió

192 errendimendu-proba

Ikus "aprobetxamendu-proba"ren definizioa.

en attainment test
fr test d'acquisition
es prueba de rendimiento
ca prova de rendiment

193 errepikagarritasuna

Ikerlan baten emaitzak behin baino gehiagotan errepikatu ahal izatea, horrela emaitzen fidagarritasuna hobetzeko.

en replicability
fr reproduction
es replicabilidad
ca reproducció

194 errorea

Egiako puntuazioa neurtzeko teoria klasikoan, behatutako puntuazioak bi osagai ditu: alde batetik, egiazko puntuazioa, pertsonaren gaitasuna islatzen duena. Bestetik, puntuazio okerra, errorezkoa, azterturiko gaitasunarekin zerikusirik ez duten faktoreen eragina islatzen duena. Errorea zorizkoa izango dela espero liteke, modu ez-sistematikoan gertatuko dela, beraz. Horrez gain, proba batean, izan litezke pertsona batzuen jardueran eragina duten faktoreak, errore sistematikoak edo alborapenak sorraraziz.

Konparatu: alborapena

Bibliografia: Bachman, 1990, 167. or.

en error
fr erreur
es error
ca error

195 esaldiak berridatzi

Item mota honetan esaldi oso bat ematen zaio azterketariari, estimulu gisa, eta, jarraian, beste esaldi baten lehen hitza edo lehen bi hitzak. Bigarren esaldi hori azterketariak osatu behar du lehengoaren eduki berarekin, baina gramatika-forma desberdinarekin. Adibidez, lehen esaldia boz aktiboan dago eta azterketariak boz pasiboan jarri behar du.

en sentence transformation
fr transformation de phrases
es transformación de frases
ca transformació gramatical

196 esaldiak berridazteko itema

Ikus "esaldiak berridatzi"ren definizioa.

en transformation item
fr transformation
es ítem de transformación
ca ítem de transformació

197 esaldiak garatu

Item mota honetan hitz-multzo edo hitz-kate bat ematen da estimulu gisa, esanahi jakinarekin. Baina, multzo horretan aditz laguntzaileak, artikulua edota beste hitzen bat falta izaten dira. Azterketariak falta dena erantsi behar izaten du esaldi gramatikala osatzearren.

en sentence expansion
fr expansion de phrases
es ampliación de frases
ca desenvolupament d'oracions

198 esaldiak osatu

Item mota honetan esaldiaren erdia ematen da soilik. Azterketariak esaldia osatu behar du, behar diren hitzak emanez (esaterako, testu bat irakurrita) edota aukera batzuen artean hautatuz.

en sentence completion
fr phrases à compléter
es completar frases
ca compleció gramatical

199 esangura

Esangura edo signifikazioa kontzeptu estatistikoa da. Emaizta jakin bat zoriari zor zaion ala ez esaten digu. Ikus: lehen motako errorea, bigarren motako errorea,

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 208-210. or. hipotesi nulua

en significance
fr confiance
es significación
ca significació

200 esangura-proba

Esangura edo signifikazio estatistikoaren proba. Konparatu: esangura

en significance test
fr test de confiance
es prueba de significación
ca prova de significació

201 eskala

Zerbait neurtzeko erabiltzen den zenbaki edo kategoria multzoa. Lau neurketa-escala mota bereizten dira: nominala, ordinala, tarte-escala eta arrazoi-escala.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 46-49. or.

en scale
fr échelle
es escala
ca escala

202 eskala absolutua

Eskala honek egiazko zero-puntua dauka. Adibidea luzera neurtzeko eskala izan liteke. Hizkuntzen ebaluazioan zero absoluturik ezin daiteke definitu; hortaz, eskala mota hau ez da erabilgarria.

Konparatu: tarte-escala, eskala nominala, eskala ordinala

en absolute scale
fr échelle absolue
es escala absoluta
ca escala absoluta

203 eskala komuna

Proba biren edo gehiagoren puntuazioak eskala komun batean adierazteko modua, horrela emaitzak zuzenean alderatu ahal izateko. Proba biren edo gehiagoren puntuazioak eskala komun batean adierazteko, puntuazio gordinak prozedura estatistiko baten bidez bihurtu behar dira, esate baterako proben berdintzea aplikatuz.

Bibliografia: Bachman, 1990, 340-344. or.

en common scale
fr échelle commune
es escala común
ca escala comuna

204 eskala nominala

Eskala mota hau kategorietan sailka daitezkeen

aldagaiekin erabiltzen da, adibidez sexuarekin edota lehen hizkuntzarekin. Gertaeraren maiztasunak izan ohi du interesik handiena. Katetoria-eskala ere deitzen da.

Konparatu: tarte-eskala, eskala ordinala, arrazoi-eskala

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 55-56. or.

- en nominal scale
- fr échelle nominale
- es escala nominal
- ca escala nominal

205 eskala ordinala

Eskala mota honek izangaiak ordenatu egiten ditu, baina beren arteko distantzia erlatiboa adierazi gabe.

Konparatu: katetoria-eskala, tarte-eskala, eskala nominala, arrazoi-eskala

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 56-57. or.

- en ordinal scale
- fr échelle ordinale
- es escala ordinal
- ca escala ordinal

206 eskala-deskribatzailea

Ikus "deskribatzailea"ren definizioa.

- en scale descriptor
- fr descripteur d'échelle
- es descriptor escalar
- ca descriptor d'escala

207 eskala-iteina

Ikus "puntuaizio politomikoa"ren definizioa.

- en scalar item
- fr item échelonné
- es ítem escalar
- ca ítem d'escala

208 eskala-puntuazioa

Mailakatze baten ondorioz lortutako puntuazioa.

Ikus: mailakatzea

- en scaled score
- fr note graduée
- es puntuación escalar
- ca puntuació escalonada

209 eskanerra

Ikus "irakurgailu optikoa"ren definizioa.

- en scanner
- fr scanner
- es escáner
- ca escàner

210 espezifikazioak

Ikus "zehaztapenak".

- en specifications

211 estandarra ezartzea


Proba baten gutxieneko puntuazioa ezartzeko prozesua da (esaterako, gaitditze-muga) eta, ondorioz, baita emaitzen esanahia ere.

- en standard setting

212 estanina puntuazioa

Prozedura honen bidez banaketa normalean oinarritutako bederatzi multzotan banatzen dira puntuazioak. Bai goiko multzoan eta bai behekoan ere izangaien %4 kokatzen da.

Multzo bakoitzak biltzen dituen izangai-portzentaia ondoko grafikoan azaltzen da:



Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 446-447. or.

- en stanine score
- fr note stanine
- es estaninas
- ca puntuació d'estanina

213 estatistika

Datu numerikoak tratatzeko eta interpretatzeko zientzia.

- en statistics
- fr statistiques
- es estadística
- ca estadística

214 estatistika deskribatzailea

Datu multzo bat deskribatzeko erabiltzen den estatistika, bai zenbateko bidez, bai banaketa bidez, batez besteko balioen bidez, korrelazio bidez etab. Ondoko bereizketa egin ohi da: alde batetik estatistika deskribatzailea eta, bestetik, laginen estatistika edo estatistika inferentziala.

Konparatu: estatistika inferentziala

- en descriptive statistics
- fr statistiques descriptives

es estadística descriptiva
ca estadística descriptiva

215 estatistika inferentziala

Estatistika deskribatzaileak ematen dituen informazioez haratago doa estatistika mota hau. Populazio baten laginak populazio hori zenbateraino adierazten duen

Konparatu: estatistika deskribatzailea

en inferential statistics
fr statistiques inférentielles
es estadística inferencial
ca estadística inferencial

216 estatistikoa

Forma numerikoan adierazitako informazioa. Zentzu hertsian estatistiko bat lagin baten ezaugarria da. Aldiz, parametro bat populazio baten ezaugarria da. Estatistikoak, normalean, karaktere erromatarretan adierazten dira eta parametroak grekoetan. Esate baterako, lagin baten desbiderapen estandarra S idazten da edota SD , baina populazio batena s (σ).

Konparatu: parametroa
Ikus: populazioa, lagina

en statistic
fr statistiques
es estadístico
ca estadístic

217 estimazio-errore estandarra

Aldagai bat beste batetik abiatuta aurreratu denean, iragarpen horrek duen zehaztasunaren neurria, esate baterako erregresio linealean. Konfiantza-tarteak ematen ditu irizpidezko puntuazioetarako.

Ikus: konfiantza-tartea

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 477-479. or.

en standard error of estimate
fr erreur standard d'estimation
es error estándar de estimación
ca error estàndar d'estimació

218 estimulua

Azterketako ariketa batean ipintzen den materiala, azterketariak, hartan oinarrituta, bere erantzuna sor dezan. Ahozkoaren ulermeneko proba batean, esaterako, grabatutako testu bat izan liteke, idatzitako zenbait galderarekin. "Inputa" ere deitzen zaio.

en input
fr entrée
es input
ca estímul

219 etika eta gizalegea

en ethics and fairness

220 euskarria

Idazmen- edo mintzamen-probetan, azterketariaren erantzuna eragiteko balio duten material grafikoak eta testuak.

en prompt
fr déclencheur
es estímulo
ca suport

221 ezaguera sozio-kulturala

Mundu-ezaguera da: kultura jakin batean, gizarte batek nola funtzionatzen duen jakitea. Portaera egokia izateko garrantzizkoa da. Baita testuinguru kultural jakinetan hizkuntza erabiltzeko ere.

Konparatu: gaitasun soziolinguistikoa

en sociocultural knowledge
fr savoirs socioculturels
es conocimiento socio-cultural
ca coneixement sociocultural

222 ezaugarri anitzeko eta metodo anitzeko

Diseinu esperimental hau konstruktuen balidazioan erabili **diseinua**

ohi da. Ustez desberdinak diren ezaugarriak neurtzen dira, ustez desberdinak diren metodoen bidez. Análisi honek ondokoa erakutsi behar luke adibidez: entzumena metodo desberdinez neurtuta lortzen diren emaitzek korrelazio hobea dutela azterbide berarekin lortutako trebetasun desberdinen neurriek baino.

Bibliografia: Bachman, 1990, 263-265. or.

en multitrait-multimethod design
fr plan multiattribut-multiméthode
es diseño multirrasgo-multimétodo
ca disseny multitret-multimètode

223 ezaugarri latentearen teoria

Ikus "item-erantzunaren teoria (IRT)"ren definizioa.

en latent trait theory
fr théorie de l'attribut latent
es teoría del rasgo latente
ca teoria del tret latent

224 ezaugarria

Pertsona baten ezaugarri fisiko edo psikologikoa (hizkuntza-gaitasuna, esaterako) edota ezaugarri hori deskribatzeko eraiki den eskala. Ikus "konstruktua".

en trait
fr attribut
es rasgo
ca tret

225 F ratioa

Bariantza-analisan erlazio honek zera balioesten du: taldeen batez bestekoen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak diren ala ez; esaterako, talde batek beste batek baino hobeto egin duen hizkuntza-proba.

Ikus: forma alternatiboak

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 315-317. or.

- en F-ratio
- fr rapport-F
- es relación F
- ca ràtio F

226 faktore afektiboak

Azterketarien aldagai emozionalekin, zaletasunekin edota jarrerekin loturik dauden faktoreak, baina kognitiboak ez direnak.

Konparatu: faktore kognitiboak

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1991, 52. or.

- en affective factors
- fr facteurs affectifs
- es factores afectivos
- ca factors afectius

227 faktore kognitiboak

Ikaste- edo ebaluazio-prozesuan, ikasleak dituen ezagutza-eskemekin eta ereduakin lotuta dauden

Konparatu: faktore afektiboak

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1991, 52. or.

- en cognitive factors
- fr facteurs cognitifs
- es factores cognitivos
- ca factors cognitius

228 faktore-analisia

Teknika estatistiko honen bidez ikertzailea, aldagai-kopuru handi batetik abiatuta, aldagai multzo txikiago batera irits daiteke, oso erlazionatuta dauden aldagai batzuek faktore bakarra osatzen baitute. Analisi faktoriala esplorazio gisa erabil daiteke, hipotesiak formulatzeko, edota, bestela, aurrez ezarritako hipotesiak egiaztatzeko.

Bibliografia: Bachman, 1990, 262. or.; Crocker & Algina, 1986, 232. or.

- en factor analysis
- fr analyse factorielle
- es análisis factorial
- ca anàlisi factorial

229 feedbacka

Proba baten prozesuan inplikaturik dauden pertsonen (aztertzaiak, azterketariak...) iruzkinak etab. Horiek guztiak prozesua bera ebaluatzeko oinarri dira. Feedbacka era informalean lor daiteke edo berariaz diseinatutako galdetegiekin.

- en feedback
- fr rétroaction
- es retroalimentación (feedback)
- ca retroalimentació

230 fidagarritasuna

Proba baten neurketek duten kontsistentzia edo egonkortasuna. Zenbat eta fidagarriago izan proba, orduan eta zorizko errore gutxiago ditu. Errore sistematikoak dituen proba bat (adib. alborapena multzo batean) fidagarria izan liteke, baina ez baliozkoa.

Konparatu: baliotasuna

Ikus: KR-20 (Kuder-Richardsonen 20. formula), alfa (alfa *Bibliografia: Bachman, 1990, 24. or.; Crocker & Algina, 1986, 6. kap. fidagarritasuna*)

- en reliability
- fr fidélité
- es fiabilidad
- ca fiabilitat

231 fidagarritasun-koefizientea

Indize estatistiko honek proba, eskala edo neurketa baten fidagarritasuna adierazten du. Koefiziente honen balioak 0 eta 1 artean daude. Normalean proba baten bi azterketaldi, bi bertsio edo bi erdien arteko korrelazioak dira. Esate baterako, proba bera behin baino gehiagotan aplikatu liteke (emaitza bertsuak eman behar lituzke). Edo, hori ezinezkoa denean, barne-kontsistentziaren beste neurriren bat erabil liteke. Fidagarritasun-indizea ere

Ikus: barne-kontsistentzia, fidagarritasuna, test-retest fidagarritasuna

- en reliability coefficient
- fr coefficient de fidélité
- es coeficiente de fiabilidad
- ca coeficient de fiabilitat

232 forma alternatiboak

Ikus "forma baliokide"en definizioa.

- en alternate forms
- fr formes alternées
- es formas alternativas
- ca formes alternes

233 forma baliokideak

Proba baten bertsioak dira, baliokidetzat hartzen direnak: zehaztapen berberak dituzte eta gaitasun berbera neurtzen dute. Test-teoria klasikoaren baldintza estuak betetzeko, bertsio horiek, pertsona bereberei aplikatuta, batez besteko zailtasun berdina izan behar dute, eta baita bariantza eta kobariantza berdina ere. Praktikan, oso zaila da baliokidetza lortzea. Forma alternatiboak edo forma paraleloak ere deitzen zaie.

Konparatu: forma parekatuak

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 132. or.

en equivalent forms
fr formes équivalentes
es formas equivalentes
ca formes equivalents

234 forma paraleloak

Ikus "forma baliokide"en definizioa.

en parallel forms
fr formes parallèles
es formas paralelas
ca formes paral-leles

235 forma parekatuak

Proba baten forma desberdinak dira: beren puntuazio-banaketak eraldatuak izan dira, horrela eskala berean elkarrekin erabili ahal izateko.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 20. kap.

en equated forms
fr formes calibrées
es formas equiparadas
ca formes equiparades

236 G faktorea

Adimenaren teorian, "faktore jeneral" bat da, ustez beste gaitasun kognitiboen azpian dagoena. Nozio hau John Oller-ek zabaldu zuen 70eko hamarkadan, hizkuntza-gaitasunaren azpiko gaitasun unitario gisa.

Bibliografia: Oller, 1979, 426-458. or.; Bachman, 1990, 6. or.

en G-factor
fr facteur-G
es factor G
ca factor G

237 gainditze-muga

Azterketariak proba edo azterketa gainditzeko lortu behar duen gutxieneko puntuazioa.

Konparatu: gutxieneko puntuazioa

en pass mark
fr note de césure
es aprobado
ca aprovat

238 gaitasun pragmatikoa

Hizkuntza-gaitasun komunikatiboa azaltzen duten modeloetako kategoria posible bat da. Hizkuntza-egintzak egiteko ahalmena eta konbentzio soziolinguistikoen ezagutza biltzen ditu bere baitan.

Bibliografia: Bachman, 1990, 42. or.

en pragmatic competence

fr compétence pragmatique
es competencia pragmática
ca competència pragmàtica

239 gaitasun soziolinguistikoa

Hizkuntza-gaitasun komunikatiboa azaltzen duten modeloetako kategoria posible bat da. Hizkera, gizarte-arauei jarraiki, testuinguruari eta egoera bereziei egokitzeko gaitasuna adierazten du.

Bibliografia: Bachman, 1990, 42. or.

en sociolinguistic competence
fr compétence sociolinguistique
es competencia sociolingüística
ca competència sociolingüística

240 gaitasun unitarioa

Hizkuntzaren teoria hau Oller-ek bultzatu zuen.

Hizkuntza-trebetasun guztien azpian gaitasun bakarra

en unitary competence
fr compétence unitaire
es competencia unitaria
ca competència unitària

241 gaitasuna (1)

Zerbait egiteko ezagutza edo ahalmena. Hizkuntzalaritzan, azpiko ahalmena adierazteko erabili izan da, jarduerari edo erabilerari kontrajarrita. Bereizketa hau Chomskyren obran sortu zen.

Konparatu: jarduera

Bibliografia: Bachman, 1990, 52 eta 108. or.

en competence
fr compétence
es competencia
ca competència

242 gaitasuna (2)

Hizkuntza baten ezagutza eta hizkuntza hori erabiltzeko trebetasun-maila. Hizkuntza menderatzea, alegia.

Konparatu: ahalmena, trebetasuna

Bibliografia: Bachman, 1990, 16. or.

en proficiency
fr niveau de capacité
es dominio
ca proficiència

243 gaitasun-proba

Proba mota honek gaitasun edo trebetasun orokor bat neurtzen du eta ez dio erreferentzia egiten ikastaro bati edo material multzo bati.

en proficiency test
fr test de niveau de capacité
es prueba de dominio

ca prova de proficiència

244 gakoa

- a) Erantzun zuzena, aukera anitzeko item batean.
b) Oro har, proba bateko itemei dagozkien erantzun zuzen edo onargarrien multzoa.

Konparatu: distraktorea, zuzentzeko txantiloia

Ikus: aukera anitzeko galdera

en key /key response
fr réponse clé
es clave de respuesta
ca clau

245 galdera

Proba bateko ariketa bat edo item bat izendatzeko erabiltzen den hitza.

Ikus: itema, ariketa

en question
fr question
es pregunta
ca pregunta

246 galdera irekia

Honelako item edo ariketak proba idatzietan aurki daitezke: azterketariak erantzuna sortu behar du eta ez soilik aukeratu. Honelako itemen xedea bat-bateko erantzun bat eskatzea da: hitz soil batetik hasi eta idazlan bateraino. Zuzentzerakoan, beraz, erantzun onargarri bat baino gehiago izan behar da kontuan.

en open-ended question
fr question ouverte
es pregunta abierta
ca pregunta oberta

247 galdera mota

Ikus "item mota"ren eta "ariketa mota"ren definizioak.

en question type
fr type de question
es tipo de pregunta
ca tipus de pregunta

248 Gauss-en banaketa

Ikus "banaketa normala"ren definizioa.

en gaussian distribution
fr courbe de Gauss
es distribución gaussiana
ca distribució de Gauss

249 goi-mailako trebetasunak

Trebetasun hipotetiko konplexuak, adibidez inferitza edo laburbiltzea.

en higher-order skills
fr capacités intellectuelles supérieures
es destrezas de orden superior
ca habilitats d'ordre superior

250 gramatika-gaitasuna

Hizkuntza-gaitasun komunikatiboa azaltzen duten modeloetan, gramatika-gaitasuna osagai jakina da. Hizkuntza-erabilerari dagozkion ezagutza-arloak biltzen ditu: morfologia, sintaxia, hiztegia, fonologia, grafia...

Bibliografia: Bachman, 1990, 84-88. or.

en grammatical competence
fr compétence grammaticale
es competencia gramatical
ca competència gramatical

251 gutxieneko gaitasunaren ebaluazioa

Honelako probek eskakizun zehatzak ipintzen dituzte hizkuntza-erabilera jakin baten gutxieneko gaitasunerako. Azterketari batek gaitasun-maila hori erakusten badu, azterketa gainditzen du.

en minimum competency testing
fr évaluation de la compétence minimale
es evaluación de competencia mínima
ca prova de competència mínima

252 gutxieneko puntuazioa

Azterketariak proba batean lortu behar duen gutxieneko puntuazioa, halako kalifikazioa edo maila lortzeko. Menderatze-probetan puntuazio hori lortu behar da, izangaiak menderatze-maila edo gutxieneko gaitasun-maila baduela ebazteko.

Konparatu: gainditze-muga

Ikus: menderatze-proba, gutxieneko gaitasunaren

Bibliografia: Bachman, 1990, 214-215. or.; Crocker & Algina, 1986, 421-428. or.

en cut-off score
fr note de césure
es puntuación límite
ca puntuació de tall

253 halo-efektua

Efektu hau proba subjektiboetan gerta liteke. Azterketariak ariketa batean izan duen emaitza ikusita, horrek ebaluatzailearengan eragina izan dezake eta, ondorioz, beste ariketa bat behar baino altuago edo Konparatu: ebaluatzailearen efektuak

en halo effect
fr effet de halo
es efecto halo
ca efecte d'aurèola

254 hasierako proba

Ikastaro bat hasi aurretik aplikatzen den proba. Proba horren emaitzak ikastaro amaieran egindako azterketaren emaitzekin konpara daitezke. Horrela ikastaroak izan duen eragina ebalua daiteke.

Konparatu: amaierako proba

- en pre-test
- fr pré-test
- es prueba inicial
- ca prova preliminar

255 hautespen-proba

Ikus "sarbide-proba"ren definizioa.

- en selection test
- fr test de sélection
- es prueba de selección
- ca prova de selecció

256 haztapena

Proba bateko item bati edo ariketa bati gehieneko puntuazioa atxikitzea, horrela bere pisu erlatiboa aldatzeko, proba bereko beste ariketa batzuekin konparatuta. Esaterako, proba bateko lehen ariketako itemei puntuazio bikoitza ematen badiegu, ariketa horrek besteek baino proportzio handiagoa izango du guztizko

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1991, 214-216. or.

- en weighting
- fr pondération
- es ponderación
- ca ponderació

257 hein-korrelazioa

Korrelazio hau ez dago aldagaien balio absolutuetan oinarrituta, hierarkia erlatiboan baizik.

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 294-296. or.

- en rank order correlation
- fr coefficient de corrélation de rangs
- es correlación por rangos
- ca coeficient de correlació ordinal de Spearman

258 hipotesi nulua


Hipotesi honek hauxe dio: aldagai bi edo gehiago ez daudela elkarrekin erlazionatuta. Adibidez, ondoko suposizioa hipotesi nulua da: ama-hizkuntza desberdineko bi taldek ez dute errendimendu desberdina.

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 24. or.;
Guilford & Fruchter, 1981, 146-147. or.

- en null hypothesis
- fr hypothèse nulle
- es hipótesis nula
- ca hipòtesi nul·la

259 histograma

Maiztasunaren banaketa adierazteko erabiltzen den grafikoa. Maiztasun mota bakoitzak biltzen duen kasu-kopurua barra batez erakusten da.



Konparatu: barra-diagrama

- en histogram
- fr histogramme
- es histograma
- ca histograma

260 hitzak osatzeko itema

Item mota honetan azterketariak hitz bat produzitu behar du. Horretarako estimulu gisa, hitzaren beste forma bat ematen zaio, hartan oinarrituta, eskatzen zaion forma asma dezan. Adibidez: "Lan mota honek hiztegi teknikoa eskatzen du. (ulertu)"

- en word formation item
- fr item de construction de mots
- es ítem de formación de palabras
- ca ítem de formació de mots

261 hitzen maiztasuna

Hitz batzuk edo hitz mota batzuk testu batean zenbat aldiz agertzen diren zenbatzea. Hizkuntza-ebaluazioan erabilgarri izan daiteke, esate baterako, zehaztapenetan lexiko jakin bat eskatzen duten probak eraikitzeko.

- en word frequency count
- fr comptage des occurrences
- es recuento de frecuencia de palabras
- ca freqüència de mots

262 hizkuntza eskuratzea

Prozesu honen bidez hizkuntza-gaitasuna eskuratzen da, bai lehen hizkuntza edo baita bigarren hizkuntza bat ere. Bigarren hizkuntza baten kasuan bereizketa hau egin ohi da batzuetan: eskuratzea (berez, modu naturalean) eta ikastea (jakinaren gainean, modu kontzientean).

- en language acquisition
- fr acquisition de la langue
- es adquisición de la lengua
- ca adquisició lingüística

263 hizkuntza-ahalmena

Ahalmen hau trebetasun multzo bat da, hain zuzen ere, pertsona batek, komunikazio-helburu desberdinekin, erabiltzeko gai den trebetasunen multzoa.

Bibliografia: Bachman, 1990, 3-4. or.

- en** language ability
- fr** capacité langagière
- es** capacidad lingüística
- ca** capacitat lingüística

264 hizkuntza-erabileraren arloa

Gizarte-bizitzako eremu zabalak; esaterako, hezkuntza-arloa edo arlo pertsonala. Eremu horietariko batzuk aukera daitezke azterketaren edukiak eta trebetasunak zehazterakoan.

- en** domain of language use

265 hizkuntza-erabileraren eredua

Hizkuntza erabiltzeko behar diren trebetasun eta gaitasunen deskribapen bat da. Era berean, trebetasun eta gaitasun horiek beren artean nola erlazionatzen diren adierazten du. Eredua oinarrizko osagaia da proben

- en** model of language use

266 hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntza baten ezagutza. Sarri hizkuntza-ahalmenaren sinonimotzat hartzen da.

Bibliografia: Bachman, 1990, 16. or.

- en** language proficiency
- fr** compétence langagière
- es** dominio lingüístico
- ca** proficiència lingüística

267 homogeneotasuna

Proba edo azpiroba baten ezaugarri bat da. Itemek gaitasun berbera neurtzen duten adierazten du. Ezaugarri berberak dituen pertsona talde baten ezaugarria ere izan liteke. Homogeneotasun-maila adierazteko fidagarritasun-indizea erabiltzen da.

- en** homogeneity
- fr** homogénéité
- es** homogeneidad
- ca** homogeneïtat

268 hurrenkeraren efektua

Ebaluatzaileak sortzen duen efektua da, ebaluazio-lana egiteko daraman ordena edo hurrenkera dela medio.

Ikus: ebaluatzailearen efektuak

- en** sequence effect
- fr** effet séquentiel

- es** efecto de secuencia
- ca** efecte de seqüència

269 hutsuneak betetzeko itema

Item mota honetan azterketariak material idatzia sartu behar du (letrak, zifrak, hitz solteak, atzizkiak, esaldiak, perpausak, paragrafoak) testu baten hutsuneetan. Azterketariak erantzuna hutsetik asmatu beharko du edo, aukerak eskaintzen badira, zuzena aukeratu.

- en** gap-filling item
- fr** question lacunaire
- es** ítem de rellenar huecos
- ca** ítem d'omplir buits

270 ibilartea

Sakabanatzearen neurria da: multzo bateko puntuazio altuenaren eta baxuenaren arteko distantzia.

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 169-170. or.

- en** range
- fr** marge de variation
- es** margen de variación
- ca** amplitud

271 idazlan diskurtsiboa

Ariketa honetan azterketariak gai jakin bat garatu behar du idatziz. Gaiak ikuspuntu desberdinak onartzen ditu eta argudioak eman litezke iritzi pertsonalak defenditzeko.

Ikus: idazlana

- en** discursive composition
- fr** composition discursive
- es** composición discursiva
- ca** composició discursiva

272 idazlan gidatua

Ariketa honetan azterketariak testu bat idatzi behar du eman zaion informazio grafikoa edota testuala erabiliz: marrazkiak, gutunak, postalak, jarraibideak... Honela, jasotzen den erantzuna kontrolatuagoa eta estandarizatuagoa izango da.

Konparatu: idazlana

- en** guided writing task
- fr** production écrite guidée
- es** actividad de expresión escrita guiada
- ca** tasca d'expressió escrita guiada

273 idazlana

Ariketa honetan azterketariak testu luze samar bat idatzi behar du. Testuan gertakizunen narrazioa eska daiteke, edota iritzi desberdinak azaltzeko argudio-testuak... Era berean, beste testu mota batzuk ere badira: txostenak, gutun formalak, gutun informalak etab.

- en** composition

fr composition
es expresión escrita
ca redacció

ca transferència d'informació

274 idazmen-ariketa gidatua

Ikus "idazlan gidatua"ren definizioa.

en directed writing task
fr tâche d'écriture dirigée
es actividad de expresión escrita dirigida
ca tasca d'expressió escrita dirigida

279 interpretazio-argudioa

Ikus "ebaluazioa interpretatzeko argudioa".

en interpretive argument

275 ikasketa-xedea

Ariketa batek duen helburua edo bertatik espero den emaitza.

en learning objective
fr objectif d'apprentissage
es objetivo del aprendizaje
ca objetiu d'aprenentatge

280 irakurgailu optikoa

Tresna elektronikoa hau erantzun-orrietako edo kalifikazio-orrietako informazioa ateratzeko erabiltzen da. Azterketariak, edo aztertzaileak, itemen edo ariketen erantzunak markatzen dituzte erantzun-orrian eta informazio hori ordenagailuak irakurtzen du zuzenean. Eskanerra ere deitu izan zaio.

en optical mark reader (OMR)
fr lecteur optique
es lectora óptica
ca màquina de lectura òptica

276 inbariantza

Item-erantzunaren teorian auresuposizio garrantzizkoa: itemaren zailtasuna eta diskriminazio-neurriak berezko ezaugarriak direla auresuposatzen da, azterketarien gaitasunetatik aparteak, gaitasun-mailak ere item zehatzetatik aparteak diren bezala.

en invariance
fr invariance
es invariancia
ca invariància

281 irakurgarritasun-indizea

Testuaren gramatika- eta lexiko-konplexutasunaren neurria. Irakurleentzat testu bat zenbaiteraino ulergarria den ebaluatzeko erabiltzen da. Irakurgarritasun-indizeak dira, esate baterako, Gunning-en indizea edo Flesch-en irakurgarritasun-eskala.

en readability index
fr indice de lisibilité
es índice de legibilidad
ca índex de legibilitat

277 informazio-hutsunea

Hizkuntzen irakaskuntzako eta ebaluazioko teknika da. Benetako egoera simulatzen du. Horretarako, ikasle guztiek ez dute informazio bera eta, hortaz, elkarren artean komunikatu behar dute ariketa egiteko. Normalean mintzamen- eta idazmen-ariketetan erabili ohi da.

en information gap
fr information lacunaire
es vacío de información
ca buit d'informació

282 irakurmen-ariketa

Ariketa mota honek testu bat edo gehiago izan ditzake, eta hainbat item. Itemak mota desberdinetakoak izan litezke: aukera anitzekoak, erantzun laburrekoak, burutze-proba/hutsuneak bete, informazio-transferra... Irakurriaren ulermen-ariketa ere deitzen zaio.

en reading comprehension task
fr tâche de compréhension écrite
es actividad de comprensión de lectura
ca tasca de comprensió lectora

278 informazio-transferra

Ebaluazio-teknika da. Modu jakin batean emandako informazioa beste era batean aurkeztu behar da. Adibidez, informazioa testu batetik atera eta diagrama bat osatzeko erabili; ohar informal bateko informazioa erabiliz iragarki formal bat idatzi.

283 irizpidean oinarritutako proba

Proba mota honetan, azterketariaren ezagutza aldeaz aurretik ezarritako irizpideen arabera interpretatzen da. Garrantzitsuena helburuak lortu izana da eta ez azterketariak taldearen barruan izan duen kokapena, puntuazioaren arabera. Konparatu: norman oinarritutako proba, arlo baten

en criterion-referenced test
fr test critériel
es prueba criterial
ca prova referida al criteri

Bibliografia: Hughes, 1989, 84., 124-125., 138. or.

en information transfer
fr transfert d'information
es transferencia de información

284 irizpidezko aldagaia

Ikerketa-alorrean, mendeko aldagaia izendatzeko beste izen bat da.

Ikus: mendeko aldagaia

- en criterion variable
- fr variable critère
- es variable criterial
- ca variable de criteri

285 irizpidezko baliotasuna

Proba batek irizpidezko baliotasuna duela esaten dugu honako hau frogatzen denean: proba horren puntuazioek erlazioa dutela gaitasun bera neurtzen duen kanpo-irizpide batekin. Proba batek etorkizuneko jokabidea zenbateraino pronostikatzen duen zehazteko ere erabiltzen da irizpidezko baliotasuna.

Ikus: baliotasun konkurrentea, auresate-baliotasuna

Bibliografia: Bachman, 1990, 248-250. or.

- en criterion-related validity
- fr validité critérielle
- es validez criterial
- ca validesa de criteri

286 IRT

Ikus "item-erantzunaren teoria (IRT)"ren definizioa.

- en IRT
- fr TIR
- es TRI
- ca TRI

287 irudipenezko zuzenketa

Puntuazio-metodo hau produkzio-probetan erabil daiteke, hau da, mintzamenen eta idazmenen. Ebaluatzaileak azterketari bakoitzak eman dituen erantzun guztiak batera balioesten ditu, ariketa bakoitzeko ezaugarriak bereizi

Konparatu: puntuazio analitikoak, balioespen globala

- en impression marking/ general impression marking
- fr notation liée à l'impression générale
- es valoración por impresión recibida/ valoración por impresión general
- ca correcció segons la impressió/ correcció segons la impressió general

288 item dikotomikoa

"Zuzen" edo "oker" puntuatzen ditugun itemak dira. Item dikotomikoetan sartzen dira, adibidez, aukera anitzekoak, egia/gezurra motakoak edo erantzun laburreko galderak.

- en dichotomous item

289 item diskretua

Item autonomoa. Ez daugun beste item batzuekin edo

material osagarriekin.

Konparatu: testuan oinarritutako itema

- en discrete item
- fr item discret
- es ítem discreto
- ca ítem discret

290 item integratua/ ariketa integratua

Item edo ariketa hauek trebetasun edo azpi-trebetasun bat baino gehiago eskatzen dute. Adibidez, "cloze-test" edo "burutze-proba"ren itemak, elkarrizketa, gutun bat irakurtzea eta gutunari erantzuna idaztea.

Konparatu: berariazko item diskretua

- en integrative item/ task
- fr question intégrée
- es ítem integrador/ actividad integradora
- ca ítem integratiu/ tasca integrativa

291 item mota

Item-motei ematen zaizkien izenak bere forma deskribitzera jotzen dute. Adibidez, aukera anitzeko galderak, esaldiak berridatzi, erantzun laburrekoa, burutze-proba irekia etab.

- en item type
- fr type d'item
- es tipo de ítem
- ca tipus d'ítem

292 item objektiboak

Puntuazio-eskema finko bati jarraiki puntuatzen diren itemak dira, inongo adituen iritzirik gabe edo epaitze subjektiborik gabe.

- en objectively marked

293 item subjektiboak

Item mota hau puntuatzeko adituen iritzia edo atazaren epai subjektiboa erabili behar da.

- en subjectively marked

294 itema

Proba batean ebaluatzen den eta bereiz puntuatzen den edozein elementu. Esate baterako, burutze-proba bateko hutsune bat; hiru edo lau aukerako galdera bat; berridazteko esaldi bat; esaldi batez erantzun beharreko galdera bat...

Konparatu: ariketa

- en item
- fr item
- es ítem
- ca ítem

295 item-analisia

Proba bateko item bakoitzak izan duen emaitzaren analisia. Zailtasuna edo diskriminazioa bezalako indize estatistiko klasikoak erabili ohi dira horretarako. Berariazko softwarea erabiltzen da, esaterako MicroCAT
Ikus: diskriminazioa, erraztasun-indizea

en item analysis
fr analyse d'items
es análisis del ítem
ca anàlisi d'ítems

296 itemaren berezko kurba (ICC)

Item-erantzunaren teorian, itemaren berezko kurbak hauxe erakusten du: item bati erantzuteko probabilitatea nola erlazionatzen den testeko itemetan erakutsi duen ahalmen latentearekin.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 340-342. or.

en item characteristic curve (ICC)
fr courbe caractéristique de l'item (CCI)
es curva característica del ítem (CCI)
ca corba característica d' ítem (CCI)

297 itemaren funtzionamendu diferentziala

Itemaren funtzionamendu diferentzialak hauxe esan nahi du: item batek erakusten duen zailtasun erlatiboa, erantzuna eman duen taldearen ezaugarriren bati zor zaiola, esaterako ama-hizkuntzari edo sexuari.

Ikus: alborapena

en differential item functioning (DIF)
fr fonctionnement de l'item différentiel
es funcionamiento del ítem diferencial
ca funcionament diferencial d'ítems (FDI)

298 itemaren puntuazioa

Item-analisan, item jakin bateko erantzun zuzenen batuketak.

en item score
fr notation d'un item
es puntuación del ítem
ca puntuació d'ítem

299 item-bankua

Azterketa-itemak gestionatzeko metodoa da. Itemei buruzko informazioa biltzen da, gero eduki eta zailtasun jakineko probak osatzeko.

Bibliografia: Henning 1987, 9. kap.

en item banking
fr banque d'items
es banco de ítems
ca banc d'ítems

300 item-burua

Itemaren estimulu idatziaren parteak; esaterako, osatu gabeko esaldia, gero azterketariak osatu beharko duena bere kabuz edo aukerako erantzunen artean bat hautatuz.

Konparatu: erantzun zuzena, aukerak

Ikus: aukera anitzeko galdera

en stem
fr amorce (d'un item)
es enunciado de partida
ca nucli de l'ítem

301 itemen batez besteko zailtasun-indizea (batez besteko p)

Zuzen erantzundako itemen batez besteko proportzioa, era dikotomikoan puntuatutako item-eskala batean. Esate baterako, 0,5eko batez besteko p batek hauxe esan nahi du: probaren batez besteko erraztasun-maila 0,5ekoa dela.

Ikus: puntuazio dikotomikoa

en mean item difficulty index (mean p)
fr indice moyen de difficulté à un item (moyenne p)
es índice medio de dificultad de un ítem (p media)
ca index de dificultat mitjana d'ítem (p mitjana)

302 item-erantzunaren funtzioa

Item-erantzunaren teorian, funtzio matematiko honek hauxe korrelazionatzen du: alde batetik, item bati zuzen erantzuteko probabilitatea eta, bestetik, item horrek neurtzen duen ahalmena. Itemaren ezaugarri-funtzioa ere deitzen zaio.

en item response function
fr fonction de l'item-réponse
es función de respuesta al ítem
ca funció ítem-resposta

303 item-erantzunaren teoria (IRT)

Eredu matematiko multzo honek hauxe erlazionatzen du: alde batetik, azterketari batek azterketan izan duen emaitza eta, bestetik, bere gaitasun-maila. Eredu hauek oinarritzko teoria honetan dute funtsa: galdera batean azterketari batengandik itxaron daitekeen jarduera item-zailtasunaren eta pertsonaren gaitasunaren arabera da.

Bibliografia: Henning 1987, 8. kap.; Crocker & Algina, 1986, 15. kap.

en item response theory (IRT)
fr théorie de l'item-réponse TIR
es teoría de respuesta al ítem (TRI)
ca teoria de resposta d'ítem (TRI)

304 item-informazioaren funtzioa

Item-erantzunaren teorian, indize honek hauxe esaten digu: item batek edo ariketa batek zenbaterainoko informazioa ematen digun gaitasun jakineko pertsona bati buruz. Itemaren diskriminazioa hartzen du kontuan eta baita itema mailari ondo egokitzen zaion ere.

Konparatu: test-informazioaren funtzioa

- en item information function
- fr fonction informative de l'item
- es función informativa del ítem
- ca funció ítem-informació

305 itxarondako erantzuna

Galdera edo ariketa baten egileak lortu nahi duen erantzuna edo erantzunak.

- en expected response
- fr réponse attendue
- es respuesta esperada
- ca resposta esperada

306 itxurazko baliotasuna

Neurri honek hauxe esaten digu: azterketarien iritzian edo proba-erabiltzaileen iritzian, proba bat zenbateraino den egokia neurtu nahi dena neurtzeko. Iritzi subjektiboa da, ez baita probaren analisi objektiboan oinarritzen, eta askotan ez da hartzen egiazko baliotasuntzat. Batzuetan "probaren erakargarritasuna" deitzen zaio.

Bibliografia: Bachman, 1990, 285-289. or.

- en face validity
- fr validité apparente
- es validez aparente
- ca validesa aparent

307 izangaia

Aztertua den pertsona; proba edo azterketa jasotzen duena. Azterketari ere deitzen zaio.

- en candidate
- fr candidat
- es candidato
- ca candidat

308 jarduera

Hizkuntza produzitzea, ahoz zein idatziz. Jarduera (pertsonak darabilen hizkuntza) gaitasunetik edo ezagutzatik bereizi izan da sarri.

Konparatu: gaitasuna

Ikus: jarduera-proba

Bibliografia: Bachman, 1990, 52. eta 108. or.

- en performance
- fr performance
- es actuación
- ca actuació

309 jarduera-proba

Proba mota honetan azterketariak hizkuntza-lagina produzitu behar dute, dela ahozkoa dela idatzia (adib. idazlanak edo ahozko elkarriketak). Prozedura hauek era berezian diseinaturik egoten dira sarri, jarduera benetako

komunikazio-egoeretan gertatzen denaren antzekoa izan dadin.

Bibliografia: Bachman, 1990, 304-305. or.

- en performance test
- fr test de performance
- es prueba de actuación lingüística
- ca prova d'actuació

310 jarraipena

- en monitoring

311 jatorrizko hiztuna

Hizkuntza lehen hizkuntza gisa ikasi duen hiztuna.

- en native speaker
- fr interlocuteur natif
- es hablante nativo
- ca parlant natiu

312 jeneralizazio-teoria

Eredu estatistiko honek hauxe ikertzen du: bariantza-iturri desberdinek proba baten puntuazioan duten eragina.

Bibliografia: Bachman, 1990, 7. or.; Crocker & Algina, 1986, 8. kap.

- en generalizability theory
- fr théorie de la généralisabilité
- es teoría de generalizabilidad
- ca teoria de la generalització

313 kalibratu

Item-erantzunaren teorian, item-multzo baten zailtasuna kalkulatzeko.

Ikus: theta eskala

- en calibrate
- fr calibrer
- es calibrar
- ca calibrar

314 kalibrazioa

Proba baten edo batzuen eskala zehazteko prozesua. Batzuetan, kalibrazioa egiteko, proba desberdinetako itemak zailtasun-eskala komun batean (theta eskala) aingura daitezke. Proba item kalibratuekin egiten denean, puntuazioek azterketariaren gaitasuna adierazten dute, alegia, theta eskalan non dauden.

- en calibration
- fr calibrage
- es calibración
- ca calibratge

315 kalifikatzailea

Ikus "aztertzailea".

en assessor
fr examinateur
es calificador
ca avaluador

316 kalifikatzea

Proba bateko puntuazioak edo zuzenketak nota bihurtzeko prozesua.

en grading
fr classement
es calificar
ca qualificar

317 kalifikazioa

Ikus "nota"ren definizioa.

en grade
fr niveau
es nota
ca nota

318 kategoria

a) Eskala bateko atala, adibidez, sexuari dagozkion kategoriak gizonetzkoa eta emakumezkoa dira.
b) Ebaluazioan, esaterako, bosteko puntuazio-escala batek bost erantzun-kategoria dituela esan ohi da.

en category
fr catégorie
es categoría
ca categoria

319 kategoria-escala

Kategoriaka sailkatzen diren aldagaiekin erabiltzen den eskala mota, esate baterako sexuarekin, ama-hizkuntzarekin edo lanbidearekin.

Konparatu: tarte-escala, eskala nominala, eskala ordinala, arrazoi-escala

en categorical scale
fr échelle catégorique
es escala categorial
ca escala categòrica

320 kobariantza

Aldagai bi edo gehiagok batera duten bariantza. Esate baterako, esaldiaren luzera eta lexikoaren zailtasuna irakurmen-testuetako ezaugarriak dira, lotura erakutsi ohi dutenak, alegia, kobariantza dutenak. Kobariantza kontuan hartu behar da aldagai bat beste batzuetatik abiatuta pronostikatzen denean, adibidez, testu baten zailtasuna bere esaldien luzeratik eta lexikoaren zailtasunetik abiatuta iragartzen dugunean.

Ikus: bariantza

en covariance
fr covariance
es covarianza
ca covariància

321 kobariantza-analisisa

Ikus "ANCOVA"ren definizioa.

en analysis of covariance
fr analyse de la covariance
es análisis de covarianza
ca anàlisi de covariància

322 koefizientea

Ezaugarri edo propietate bat neurtzeko erabiltzen den indize numerikoa.

Ikus: alfa koefizientea, korrelazio-koefizientea

en coefficient
fr coefficient
es coeficiente
ca coeficient

323 komunikazio-gaitasuna

Hizkuntza hainbat egoera eta ingurunetan egoki erabiltzeko ahalmena.

Bibliografia: Bachman, 1990, 16 eta 68. or.

en communicative competence
fr compétence communicative
es competencia comunicativa
ca competència comunicativa

324 konfiantza-tartea

Estimatutako balio-eremu edo tartea da: horren barnean egongo da segur aski balio erreala. Probabilitate-gradua jeneralean %95 edo %99ko konfiantza-mailetan ematen

en confidence interval
fr intervalle de confiance (d'une mesure)
es intervalo de confianza
ca interval de confiança

325 konstruktua

Ahalmen edo ezaugarri mental hipotetikoa da eta beti ezin izaten da era zuzenean behatu edo neurtu. Esate baterako, hizkuntza-probetan ahozkoaren ulermena.

Bibliografia: Hatch eta Lazaraton, 1991, 15. or.

en construct
fr construct
es constructo
ca constructe

326 konstruktibaliotasuna

Proba batek konstruktibaliotasuna duela esateko puntuazioek teoria bat islatzen dutela frogatu behar da; teoria konstruktibaten izaerari buruzkoa izango da edota beste konstruktibatzuekiko erlazioei buruzkoa. Pentsa liteke, beraz, baliozkoak diren bi entzumen proba pasatuz gero, era bertsuan sailkatuko dituztela ikasleak, baina proba horietariko bakoitzak ez duela hainbesteko erlazioa izango gramatika-gaitasuna neurtzen duen proba baten puntuazioekin.

Ikus: baliotasuna, azterketaren zehaztapenak

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1991, 108. or.; Hatch & Lazaraton, 1991, 37-38. or.

- en** construct validity
- fr** validité de construct
- es** validez de constructo
- ca** validesa de constructe

327 kontingentzia-taula

Balio batzuen maiztasun-taula da; maiztasunok sailkatzeko gutxienez bi balio-multzoko behar dira (aldagai kategorikoen balioak). Adibidez:

	Gai	Ez Gai
A metodoa	35	5
B metodoa	20	20

Ikus: chi karratuaren testa

- en** contingency table
- fr** tableau de contingence
- es** tabla de contingencia
- ca** taula de contingència

328 kontrol-zerrenda

Erantzun beharreko galderez edo puntuez osatutako zerrenda da. Hizkuntzen ebaluazioan maiz erabili izan da behaketa edo analisirako tresna bezala.

- en** checklist
- fr** liste de contrôle
- es** lista de corroboración
- ca** llista de comprovació

329 korrelazio biserial puntuala (r-bp)

Item dikotomikoentzako diskriminazio-indize bat da. Itemaren erantzun zuzena/okerra eta aldagai jarraitu bat (normalean probako puntuazioa) erlazionatzen ditu. Koefiziente honen abantaila bat biserialaren (r-bis) aldean hauxe da: azpiko gaitasunak banaketa normala ez duenean ere erabil daitekeela.

Konparatu: korrelazio biseriala

- en** point biserial correlation
- fr** coefficient de corrélation bisériale de point
- es** correlación biserial puntual

ca coeficient de correlació biserial puntual

330 korrelazio biseriala (r-bis)

Item dikotomikoentzako diskriminazio-indize bat da. Korrelazioarako bi aldagai hartzen dira: alde batetik, itemaren erantzun zuzena/okerra eta, bestetik, aldagai jarraitu bat (normalean proba osoaren puntuazioa). Korrelazio biserialaren balioa korrelazio biserial puntualarena (r-bp) baino %25 altuagoa da gutxienez. Biserialaren abantaila bat: aski egonkorra da gaitasun-maila desberdinen laginetan.

Konparatu: korrelazio biserial puntuala

Ikus: diskriminazioa

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 317-318. or.; Guilford & Fruchter, 1981, 304-311. or.

- en** biserial correlation
- fr** corrélation bisériale
- es** correlación biserial
- ca** coeficient de correlació biserial

331 korrelazioa

Neurketa bi edo gehiagoren arteko erlazioa: bi neurri horiek norabide berean bariatzeke duten joera islatzen du.

Esate baterako, azterketariak bi probatan antzeko sailkapena lortzeko joera dutenean, korrelazio positiboa dago bi puntuazio-sail horien artean.

Konparatu: hein-korrelazioa, Pearson-en produktu-momentu korrelazioa

Ikus: kobariantza

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 6. kap.; Bachman, 1990, 259-260. or.

- en** correlation
- fr** corrélation
- es** correlación
- ca** correlació

332 korrelazio-koefizientea

Bi aldagai zein neurritan korrelazionatzen diren erakusten du indize honek. -1 eta +1 artean ibiltzen da. Oso korrelazionatuta dauden aldagaiak +1era hurbiltzen dira.

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 86-88. or.

- en** correlation coefficient
- fr** coefficient de corrélation
- es** coeficiente de correlación
- ca** coeficient de correlació

333 KR-20 (Kuder-Richardson-en 20. formula)

Ikus "Kuder-Richardson"en definizioa.

- en** KR-20 (Kuder-Richardson formula 20)
- fr** KR-20 (formule 20 de Kuder-Richardson)
- es** KR-20 (Fórmula 20 de Kuder-Richardson)
- ca** KR-20 (fórmula 20 de Kuder-Richardson)

334 KR-21 (Kuder-Richardson-en 21. formula)

Ikus "Kuder-Richardson"en definizioa.

- en KR-21 (Kuder-Richardson formula 21)
- fr KR-21 (formule 21 de Kuder-Richardson)
- es KR-21 (Fórmula 21 de Kuder-Richardson)
- ca KR-21 (fórmula 21 de Kuder-Richardson)

335 kreditu partzialaren eredua

Item-erantzunaren teorian, eskala-datuak tratatzeko eredua. Eredua egokia litzateke, esate baterako, esaldiak osatzeko itemen erantzunak analizatzeko, puntuazioa eskala batez ematen denean (esaterako 1, 2 edo 3); edo ahozko elkarrizketa batean, produkzioa puntuatzeko eskalak erabiltzen direnean.

Konparatu: balioespen-ekalaren eredua, alderdi anitzeko Rasch eredua

Ikus: Rasch eredua

Bibliografia: Wright & Masters 1982, 40-48. or.

- en partial credit model
- fr modèle du crédit partiel
- es modelo de crédito parcial
- ca model de crèdit parcial

336 kualifikazioa

Prestakuntza-ikastaro baten amaieran edo azterketa baten ondoren ematen den aitortpena. Jabea jarduera baterako edo lanbide baterako gai dela ziurtatzen du. Zenbait xedetarako, hizkuntza-gaitasunaren ziurtagiriak ere kualifikaziotzat har daitezke.

Konparatu: ziurtagiria, diploma

- en qualification
- fr qualification
- es título
- ca qualificació

337 Kuder-Richardson

Kuder-ek eta Richardson-ek eraikitako bi indize dira, barne-kontsistentzia neurtzeko. Probaren fidagarritasuna balioesteko erabiltzen dira. KR-21 formulak informazio gutxiago behar du eta konputatzeko errazagoa da, baina normalean KR-20ak baino estimazio baxuagoa ematen

Konparatu: alfa koefizientea

Ikus: barne-kontsistentzia

- en Kuder-Richardson
- fr Kuder-Richardson
- es Kuder-Richardson
- ca Kuder-Richardson

338 kultura-alborapena

Kulturalki alboratuta dagoen proba batek jatorri kultural jakin batzuetako azterketariak lagundu edo kaltetu ditzake.


Ikus: alborapena

- en cultural bias

- fr biais culturel
- es sesgo cultural
- ca biaix cultural

339 kurtosia

Banaketa jakin bat zenbateraino den kurba normala baino zorrotzagoa edo zapalagoa adierazten du. Kurba zapalari banaketa platikurtikoa deitzen zaio eta kurba zorrotzari banateka leptokurtikoa.



Ikus: banaketa normala

- en kurtosis
- fr voussure
- es curtosis
- ca curtosi

340 kutsadura-efektua

Ebaluatzaile batek puntuazio bat ematen badu, baina ebaluatu nahi ez den faktore baten arabera egiten badu, kutsadura-efektua gertatzen da. Adibidez, idazmen-proba batean, azterketariari behar baino puntuazio handiago ematea kaligrafia argia duelako.

Ikus: ebaluatzailearen efektuak

- en contamination effect
- fr effet de contamination
- es efecto de contaminación
- ca efecte de contaminació

341 lagin geruzatua

Lagin mota honetan, lehenik xede-populazioa zatitu egiten da hainbat azpi-populaziotan (geruzak, estratuak). Gero, horietariko bakoitzetik lagin bana ateratzen da.

Ikus: lagina

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 122-123. or.

- en stratified sample
- fr échantillon stratifié
- es muestra estratificada
- ca mostra estratificada

342 lagina

Populazio bateko elementuen artean aukeratutako azpimultzoa. Bada hainbat lagin mota: ausazko lagina, lagin geruzatua etab.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 432-438. or.; Guilford & Fruchter, 1981, 44-45. or.

en sample
fr échantillon
es muestra
ca mostra

343 laginaz besteko neurketa

Ikerketa batean, emaitzen interpretazio bat da, baina azterlan jakin bateko laginaren mende ez dagoena.

Ikus: lagina

en sample-free measurement
fr mesure indépendante de l'échantillon
es medida libre de muestra
ca mesura independent de la mostra

344 laginketa

Lagina aukeratzea da.

Ikus: lagina

en sampling
fr échantillonnage
es muestreo
ca mostreig

345 laginketa-errorea

Ikerlan batean, lagina hautatzeko fasetik datorren errorea da, gero analisi estatistikoan islatzen dena (adib. laginak populazioa behar bezala ordezkatzeko ez duenean).

Konparatu: populazioa

en sampling error
fr erreur sur l'échantillonnage
es error de muestreo
ca error de mostreig

346 lan-bilduma bidezko ebaluazioa

Ebaluazio teknika honen bidez ikasleak bere lanaren erakusgarriak jasotzen ditu denboraldi batean eta lan-bilduma hori karpeta batean jasotzen du bere gaitasun-maila erakusteko. Portfolio bidezko ebaluazioa ere deitzen zaio.

en portfolio assessment
fr porte-feuille d'évaluation
es evaluación por carpeta de trabajo
ca seguiment del curs

347 lastertasun-proba

Proba hau burutzeko denbora mugatua ematen da. Ikasle geldoenek puntuazio baxuagoa lortzen dute, ez baitira azken galderak erantzutera iristen. Honelako probetan, galderen zailtasuna zainduta dago eta, denbora-mugarik ez balitz, azterketariak ongi erantzungo lituzke normalean.

Konparatu: ahalmen-proba

en speeded test
fr test chronométré
es prueba de velocidad
ca prova de rapidesa

348 lehen motako errorea

Estatistikan, hipotesi nulua baztertzeko egiten den errorea, izatez egiazkoa denean.

Konparatu: bigarren motako errorea

Ikus: hipotesi nulua

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 224. or.

en type 1 error
fr erreur de type 1
es error tipo 1
ca error de primera espècie

349 lexikoa

Hiztegia aipatzeko erabiltzen den terminoa.

en lexis
fr lexique
es léxico
ca lèxic

350 likert eskala

Eskala mota hau erabili ohi da jarrerak edota iritziak neurtzeko galdetegiak. Adierazpen jakin batzuei erantzun behar zaie eta, horretarako, erantzunak ematen dira aukeran (bost edo), estilo honetakoak: 'erabat ados', 'ados', 'ez dakit', 'ez nago ados', 'inola ere ez nago ados'

en likert scale
fr échelle de likert
es escala likert
ca escala de likert

351 logit

Neurketa-unitatea da. Item-erantzunaren teorian (IRT) erabiltzen da eta, era berean, Rasch ereduan eta alderdi anitzeko Rasch ereduan (MFRM).

Bibliografia: Henning 1987, 118-126. or.

en logit
fr logit
es logit
ca lògit

352 lotura ugariko ariketa

Ariketa honek esaldiak osatzeko hainbat galdera izaten ditu, normalean testu idatzi batean oinarrituak. Erantzunak aukeratzeko hitz-banku bat edo lokuzio-banku bat dago. Hitz edo lokuzio bakoitza behin baino gehiagotan erabil daiteke. Abantaila horixe da, aukerak ez direla baztertzeko ariketa egin ahala (beste parekatze-erlazio batzuetan bezala) eta, hortaz, ariketa ez dela gero eta errazagoa.

Ikus: loturak egin

en multiple-matching task
fr tâche d'appariement multiple
es actividad de relación múltiple
ca tasca de relació múltiple

353 loturak egin

Bi zerrendatako elementuak lotzea eskatzen duen ariketa.

Esate baterako: espresio zuzen batzuk aukeratu hutsuneak dituzten esaldiak osatzeko. Irakurriaren ulermeneko probetan; esate baterako, pertsona baten deskribapena irakurri eta harentzat egoki liratekeen oporrak edo liburua aukeratzea.

en matching task
fr appariement
es actividad de relacionar
ca tasca de relacionar

354 loturazko itema

Ikus "aingura-itema"ren definizioa.

en link item
fr item liaison
es ítem de enlace
ca ítem d'enllaç

355 lotzea

Proba bateko edo erantzun-orri bateko emaitzak "itzultzea" edo erlazionatzea da, horrela beste proba baten emaitzen arabera ulertu ahal izateko. Prozedura honek zenbait diferentzia konpentsatzen laguntzen du; esaterako, probaren zailtasunean edota azterketarien ahalmenean.

en linking

356 luze-zabaleko erantzuna

Zenbait galderatan azterketariak esaldi bi edo gehiagoko erantzuna sortzea eskatzen da (ez bakarrik erantzun bat aukeratzea).

Konparatu: erantzun laburreko itema

en extended response
fr réponse longue
es respuesta extensa
ca resposta extensa

357 maila

Klase edo multzo jakin batean sartzeko ikasle bati eskatzen zaion gaitasun-maila. Edo azterketa batek adierazten duen gaitasun-maila. Hainbat maila bereizi ohi dira: oinarritzakoa, tartekoa, aurreratua etab.

en level
fr niveau
es nivel
ca nivell

358 mailakatzea

Neurketa-eskalak egiteko prozesua. Hizkuntzen ebaluazioan, gaitasun edo ezaguera-mailak adierazteko erabili ohi da: horretarako zenbakiak jari behar zaizkie azterketarien produkzioei, beren mailaren arabera. Mailakatzea egiteko, puntuazio multzo jakin batzuk nolabait aldatu behar izaten dira batzuetan, horrela xede jakin bat lortzeko. Esate baterako, proba baten emaitzen berri era estandarizatuan emateko edo proba baten bertsio bat beste batekin berdintzeko.

Ikus: eskala, gaitasun-eskala, ehuneko eskala, eskala komuna, tarte-eskala, eskala nominala, eskala ordinala, balioespen-eskala, arrazoi-eskala, forma parekatuak, berdintze lineala.

en scaling
fr échelonnage
es escalonamiento
ca escalonament

359 maiztasun metatua

Izangaien banaketa aurkezteko modu bat da. Puntuazio-maila bakoitzean puntuazio hori edo baxuagoa lortu duten izangaien kopurua zenbatzen da.

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 35-36. or.

en cumulative frequency
fr fréquences cumulées
es frecuencia acumulada
ca freqüència cumulativa

360 maiztasun-banaketa

Ikus "banaketa"ren definizioa.

en frequency distribution
fr distribution de fréquences
es distribución de frecuencia
ca distribució de freqüències

361 material-prestatzailea

Itemak eta, oro har, azterketa-materialak osatu eta prestatzen dituen pertsona.

en item writer

362 mediana

Txikienetik handienera ordenatutako puntuazio multzo batean, banaketaren erdian dagoen puntuazioa. Puntuazioen erdia medianaren gainetik dago eta beste Konparatu: batez bestekoa, moda
 Ikus: erdigunerako joeraren neurria

en median
fr médiane ou Médian (Md)
es mediana
ca mediana

363 mendeko aldagaia

Ikerlan batean, ikertzen dugun aldagaiari ematen zaion izena. Adibidez, azterketariak azterketa batean lortutako puntuazioak ditugarik (aldagai askea), informazio hori erabil daiteke pertsonen lantokian izango duten arrakasta pronostikatzeko (mendeko aldagaia).

Konparatu: aldagai askea
Ikus: aldagaia

- en dependent variable
- fr variable dépendante
- es variable dependiente
- ca variable dependent

364 menderatze-proba

Proba honen bidez hauxe erabaki behar da: ea ikasle bat ongi definitutako trebetasun-arlo bat edo ezagutza-arlo bat menderatzera iritsi ote den.

- en mastery test
- fr test de maîtrise
- es prueba de dominio específico
- ca prova referida al domini


365 metodoaren efektua

Ebaluatze metodoak sortutako efektua, azterketariaren gaitasuna desitxuraturaz.

- en method effect
- fr effet de méthode
- es efecto del método
- ca efecte del mètode

366 moda

Puntuazio multzo baten banaketan puntuazioak maiztasun handienaz biltzen diren puntuak. Banaketa-kurbaren punturik garaiena.



Konparatu: modabiko banaketa, batez bestekoa, erdiko balioa

Ikus: erdigunerako joeraren neurria


Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 160-161. or.

- en mode
- fr mode
- es moda

ca moda

367 modabiko banaketa

Banaketa mota honek bi moda edo gailur ditu. Horrek adieraz lezake bi multzo desberdin daudela lagin beraren barnean.



Konparatu: banaketa normala

Ikus: moda

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 165-166. or.

- en bimodal distribution
- fr distribution bimodale
- es distribución bimodal
- ca distribució bimodal

368 mutur-efektuak

Efektu hauek azterketari multzo batentzat errazegi edo zailegi gertatu diren probetan agertzen dira. Puntuazio guztiak banaketaren goiko muga pilatzen dira (sabai-efektua) edota behekoan (zoru-efektua).

Ikus: sabai-efektua, zoru-efektua

- en boundary effects
- fr effets limite
- es efectos limítrofes
- ca efectes límit

369 N, n

Kopurua adierazteko erabiltzen den letra. N letra larria maiz erabiltzen da azterlan bateko kasu-kopurua adierazteko edo populazio baten indibiduo-kopurua adierazteko. Aldiz, n letra xeheak lagin bateko edo azpimultzo bateko kopurua adierazi ohi du. Adibidez: "Azterketa graduatu-ondoko ingeniariari aplikatu zitzaizen (N=600), horietatik %50 emakumezkoak zirelarik

- en N, n
- fr N, n
- es N, n
- ca N, n

370 neurketa

Neurtzean, oro har, zerbaiten kantitatea aurkitzen da unitate finko batekin konparaturaz. Esate baterako, erregela bat erabiliz luzera neur daiteke. Gizarte-zientzietan, oso

ohikoa da pertsonen ezaugarriak neurtzea, esaterako hizkuntza-gaitasuna.

Bibliografia: Bachman, 1990, 2. kap.

en measurement
fr mesure
es medida
ca mesura

371 neurketa-errore estandarra

Neurketa baten zehaztasun-faltaren adierazpena da. Adibidez, neurketa-errorea 2koa bada, 15 puntu dituen azterketari baten puntuazioa 13 eta 17 puntu artean egongo da, %68ko ziurtasunez. Neurketa-errorea txikia bada, puntuazioak zehatzagoak izango dira.

Bibliografia: Crocker & Algina, 1986, 122-124. or.

en standard error of measurement
fr erreur standard de mesure
es error estándar de medida
ca error estàndar de mesura

372 neurketa-errorea

Ikus "estimazio-errore estandarra"ren definizioa.

en error of measurement
fr erreur de mesure
es error de medida
ca error de mesura

373 neurketa-eskala

Zenbaki-eskala bat da. Probaren konstruktuan, zenbait gauzaren arteko aldea neurtzeko erabil daiteke; esaterako, azterketarien arteko aldea, item artekoa, gutxieneko puntuazioen artekoa etab. Neurketa-eskalak osatzeko, teknika estatistikoak aplikatzen zaizkie azterketarien erantzunei (ikus VII. gehigarria). Neurketa-eskalek informazio gehiago ematen dute puntuazio gordinek baino: ez dute erakusten soilik azterketari bat bestea baino hobea dela; erakusten dute, baita ere, zenbateraino den hobea. Eskala nominalei eta ordinalei, batzuetan, neurketa-eskala deitzen zaie, baina Eskuliburu honetan ez dugu definizio hori erabili.

en measurement scale

374 norma

Jardueraren estandarra da. Proba estandarizatu batean, norma kalkulatzeko, multzo handi baten puntuazioak biltzen dira. Multzo horren jardueran oinarrituta dauden normak edo estandarrak erabiltzen dira gero, antzeko izangai taldeen emaitzak ebaluatzeko.

Ikus: norma-taldea, norman oinarritutako proba

en norm
fr norme
es norma

ca norma

375 normalizazioa

Puntuazioak estandarizatzea da, puntuazioen banaketa, horrela, banaketa normala bihurtzen da. Horrek, jeneralean, eskala ekipertzentilak erabili beharra dakar. Konparatu: puntuazio estandarra

en normalization
fr normalisation
es normalización
ca normalització

376 norman oinarritutako proba

Proba hauetan lortutako puntuazioak beste talde konparagarri baten errendimenduaren arabera interpretatzen dira. Izen hau ematen zaie, esaterako, azterketariak norma-taldearen arabera edo batzuek besteekiko ordenatzen dituzten probei (altuenetik baxuenera). Proba normatiboak ere deitzen zaie. Konparatu: irizpidean oinarritutako proba

en norm-referenced test
fr test normatif
es prueba normativa
ca prova referida a la norma

377 norma-taldea

Proba bat populazio jakin batentzat prestatu ohi da. Norma-taldea populazio horren adierazgarria edo ordezkatzailerak den pertsona multzoa da; normalean pertsona multzo handia izan ohi da. Norma-taldearen errendimendua proba normatiboen interpretaziorako erabili ohi da. Erreferentzia-taldea ere deitzen zaio. Ikus: norman oinarritutako proba

en norm group
fr groupe normé
es grupo normativo
ca grup norma

378 nota

Proba baten puntuazioa nota moduan eman dakioko azterketariari. Esate baterako, A-tik E-rainoko mailaketa erabil daiteke, A notarik altuena delarik, B gaitutua baino altuagoa, C gaitutua eta D eta E gaitutu gabeak. Kalifikazioa ere deitzen zaio.

Konparatu: kalifikazioa

en grade
fr niveau
es nota
ca nota

379 oihartzuna

Azterketa baten emaitzak zenbateraino eragin lezakeen azterketarien etorkizuna. Azterketaren oihartzuna handia

edo txikia izan liteke. Oihartzun handiko azterketek eragin handiago izan ohi dute.

en stakes

380 oihartzun-efektua

Ikus "ondorioa"ren definizioa.

en washback
fr reflux (effet de)
es efecto de rebote (washback)
ca repercussió

381 ondorioa

Azterketa batek irakaskuntzan duen eragina. Ikasleek proba jakin bat egin behar baldin badute, irakasleek agian klase-emankizunen metodologia eta edukiak egokitu beharko dituzte proba horretara moldatzeko. Eraitza ona edo txarra izan liteke. Oihartzun-efektua ere deitzen zaio

Ikus: eragina, oihartzun-efektua

en backwash
fr reflux (effet de)
es repercusión (backwash)
ca repercussió

382 ordenagailu bidezko ebaluazio moldagarria

Ebaluazio-metodo informatizatua; horrela azterketariari aurkeztu behar zaizkion galderen zailtasuna egokitu egin liteke, honek eman dituen erantzunen arabera.

Ikus: ordenagailu bidezko ebaluazioa

en computer-adaptive testing
fr test adaptatif par ordinateur
es evaluación adaptativa informatizada
ca prova adaptativa per ordinador

383 ordenagailu bidezko ebaluazioa

Ebaluazio-bide honetan galderak ordenagailu bidez aurkezten zaizkio azterketariari. Erantzun ere ordenagailuz egin liteke.

en computer-based testing/ assessment
fr évaluation par ordinateur
es evaluación con base informatizada
ca prova per ordinador

384 ordenagailu bidezko zuzenketa

Proba objektiboak zuzentzerakoan erroreak gutxitzeko bide informatikoak erabil daitezke. Esate baterako, erantzun-orriak irakurgailu optikoaren bidez irakur daitezke. Horrela lortutako datuak puntuazioak emateko edota analisiak egiteko erabil daitezke.

en computerized marking/ scoring
fr notation par ordinateur
es corrección/ puntuación por ordenador

ca correcció informatizada

385 osatzeko itema

Item mota honetan azterketariak esaldi bat edo sintagma bat osatu behar du, normalean hitzak sartuz edota xehetasunak idatziz: orduak, telefono-zenbakiak...

en completion item
fr item à compléter
es ítem de completar
ca ítem de completar

386 p balioa

Ikus "erraztasun-indizea"ren definizioa.

en p-value
fr valeur-p
es valor-p
ca valor-p

387 parametro bakarreko eredua

Item-erantzunaren teorian, eskala bakararekin jarduten duen neurketa-eredua. Eskala horrek ariketen zailtasuna eta pertsonen gaitasuna adierazten ditu. Ez ditu kontuan hartzen ez itemen diskriminazioa, ezta zoriz asmatutako itemak ere.

Konparatu: Rasch eredua

en one-parameter model
fr modèle à paramètre unique
es modelo de un parámetro
ca model d'un paràmetre

388 parametroa

Populazio baten ezaugarria. Adibidez, populazio baten desbiderapen estandarra.

Konparatu: estatistika

en parameter
fr paramètre
es parámetro
ca paràmetre

389 parte-hartzaileak

Azterketan interesa duten pertsonak eta erakundeak. Adibidez, azterketariak, eskolak, gurasoak, enplegatzaileak, gobernuak, azterketa antolatzen duen erakundeko langileak.

en stakeholders

390 Pearson-en produktu-momentu korrelazioa

Korrelazio-koefiziente hau aldagai mota jakin batzuekin erabiltzen da, hain zuzen ere tarte-eskalen bidez edo arrazoi-eskalen bidez neurtutako aldagaiekin.

Ikus: korrelazio-koefizientea

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 427-431. or.;
Guilford & Fruchter, 1981, 81. or.

- en** Pearson's product-moment correlation (Person's r)
- fr** corrélation de covariance de Pearson
- es** correlación producto-momento de Pearson
- ca** coeficient de correlació lineal de Pearson

391 pertzentila

99 puntuko eskalaren puntu bakoitza. Eskala horrek maiztasun-banaketa bat tamaina berdineko 100 multzotan zatitzen du. Mediana 50. pertzentilari (P50) dagokio. Kuartil izenekoek, berriz, banaketa lau zati berdinetan zatitzen dute.

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 187-188. or.

- en** percentile
- fr** centile
- es** percentil
- ca** percentil

392 phi koefizientea

Korrelazio-koefiziente honek erakusten du bi aldagai binarioen arteko erlazio-maila. Adib. egia/gezurra motako bi itemen puntuazioak.

Ikus: korrelazio-koefizientea

Bibliografia: Guilford & Fruchter, 1981, 316-318. or.;
Crocker & Algina, 1986, 92-94. or.

- en** phi coefficient
- fr** coefficient de corrélation phi
- es** coeficiente phi
- ca** coeficient fi

393 phi korrelazioa

Ikus "phi koefizientea"ren definizioa.

- en** phi correlation
- fr** corrélation phi
- es** correlación phi
- ca** correlació fi

394 pilotajea

Azterketa-materialekin egiten den eskala oso txikiko saiakuntza; esaterako, lankideei ariketak emanda, egin ditzaten eta komenta ditzaten.

- en** piloting

395 populazioa

Balioen multzo osoa da, adibidez, proba egin duten izangai guztiak. Estatistikan puntuazioen unibertsoa ere deitzen zaio.

Konparatu: lagina

- en** population

- fr** population
- es** población
- ca** població

396 praktikaren efektua

Puntuazioetan eragin hau sor liteke, baldin eta azterketariak oso ohituta badaude ariketa motarekin edo proba bateko itemekin .

- en** practice effect
- fr** effet de la pratique
- es** efecto de la práctica
- ca** efecte de la pràctica

397 premien analisisia

Ikastaroa diseinatu baino lehen egiten den analisisia da, ikasle multzo jakin baten hizkuntza-beharrak (trebetasunak, ariketak, lexikoa...) zehazteko.

- en** needs analysis
- fr** analyse de besoins
- es** análisis de necesidades
- ca** anàlisi de necessitats

398 pretestatzea

Azterketa-materialak lantzeko fase bat da. Itemak xede-populazioaren lagin batean esperimentatzen dira, beren zailtasuna aztertzeko. Analisi estatistikoa egin ondoren, egokitzat jotzen diren itemak benetako probetan aplikatu daitezke.

Konparatu: saiakuntza

- en** pretesting
- fr** prétesting
- es** experimentación
- ca** experimentació

399 proba

Proba (edo testa) deitzen dugun hori prozedura bat da gaitasunaren edo ezagutzaren alderdi jakinak ebaluatzeko.

- a) Ebaluazio-bide bat osatzen duten atal multzoa. Azterketa ere deitzen zaio.
 - b) Ariketa edo atal jakin bat, ezagutzaren edo gaitasunaren alderdiren bat edo trebetasunaren bat neurtzeko erabiltzen dena. Esate baterako, mintzarena edo idazmena. Zentzu honetan, proba bat azterketa osoaren atala ere izan liteke (adib. ahozko proba) edo ariketa bat (adib. burutze-proba).
 - c) Ebaluazio-bide erlatiboki laburra eta aplikatzeko erraza, erakunde batean erabil daitekeena (adib. aurrerapen-proba). Ikerketa-programa edo balidazio-programa baten Konparatu: azterketa
- Ikus: burutze-proba, aurrerapen-proba, aingura-proba
Bibliografia: Bachman, 1990, 50. or.

- en** test

fr test
es prueba
ca prova

400 proba eraikitzea

Itemak edo ariketak aukeratu eta proba batean ezartzeko prozesua. Aldez aurretik probatu ohi dira materialak. Item eta ariketa horiek material-banku batetik hartuak izan litezke.

en test construction
fr élaboration de test
es construcción de la prueba
ca elaboració d'una prova

401 proba erre gabea/ item erre gabea

Oraindik erabil litekeen proba edo itema eta, beraz, segurtasun-neurriekin gorde behar dena.

en live test/ item
fr test/ item courant
es prueba viva/ ítem vivo
ca prova/ ítem vigent

402 proba moldagarria

Proba mota honetan, azterketariari aurkezten zaizkion itemak proban zehar aukeratzeko dira. Alegia, item zailagoak edo errazagoak ipintzen dira azterketaria ematen ari den erantzunen arabera. Sarri ordenagailuzko probetarako erabili izan da termino hau, baina ahozko proba ere izan daiteke moldagarria.

Ikus: ebaluazio informatizatu moldagarria
Bibliografia: Bachman, 1990, 151. or.
Henning 1987, 136. or.

en adaptive test
fr test adaptatif
es prueba adaptativa
ca prova adaptativa

403 proba objektiboa

Txantilioi edo plantilla bidez zuzen daitekeen proba, adituen iritzietara edo bestelako iritzi subjektiboetara jo gabe.

en objective test
fr test objectif
es prueba objetiva
ca prova objectiva

404 proba zuzena

Proba hauek adierazpen-probak izan ohi dira. Idazmena edo mintzamena bezalako trebetasunen produkzioa neurtzen dute zuzenean. Esate baterako, idazteko gaitasuna neurtu nahi bada, gutun bat idazteko eskatzen zaio azterketariari.

Konparatu: zeharkako proba / ariketa

Bibliografia: Hughes, 1989, 14-16 or.

en direct test
fr test direct
es prueba directa
ca prova directa

405 proba-bateria

Ikus "bateria"ren definizioa.

en test battery
fr batterie de test
es batería de pruebas
ca bateria de proves

406 probak egokitzea

Lehendik badiren probak moldatzea eta egokitzea, azterketari multzo edo erabiltzaile multzo jakin bati erantzuteko.

en test tailoring
fr testing sur mesure
es adaptación de pruebas
ca prova a mida

407 probaren erabilgarritasuna

Probaren erabilgarritasuna (Bachman eta Palmer, 1996) izeneko kontzeptuak hau dio: proba bat erabilgarriago da zenbait ezaugarriren arteko balantzea on-ona denean. Ezaugarriak hauek dira: baliotasuna, fidagarritasuna, benekoa izatea, elkarreragina, eragina eta egingarritasuna.

en test usefulness

408 probaren formatua ezagutzea

Azterketariak azterketaren formatua lehendik ezagutzen badu edo horrelako probak egiten esperientzia badu, horri eskerrak benetan duen gaitasun-maila baino altuagoa erakuts dezake emaitzetan.

en test wiseness
fr qualité d'être aguerri aux tests
es familiaridad con el formato de la prueba
ca familiaritat amb la prova

409 probaren puntuazio haztatua

Azterketari bati, haztapena aplikatu ondoren, ematen zaion puntuazioa.

Ikus: haztapena

en weighted test score
fr note pondérée
es puntuación ponderada de prueba
ca puntuació ponderada d'una prova

410 probatzea

en try-out

411 proben analisia

Probak azterketariekin erabili eta gero egindako analisia. Sarri, metodo estatistiko eta informatikoak erabili ohi dira. Helburua izan liteke azterketarien errendimendua analizatzea edota probarena berarena.

en test analysis
fr analyse de test
es análisis de prueba
ca anàlisi de la prova

412 proben erabiltzailea

Proba baten emaitzak erabiltzen dituen pertsona edo erakundea (adib. irakaslea edo enpresa bat), izangaiari buruz erabaki bat hartu ahal izateko.

en test user
fr utilisateur
es usuario de pruebas
ca usuari de la prova

413 profila

Proba baten emaitzak aurkezteko modua da: probaren atalen emaitzak banaka erakutsiz. Horrela, azterketariak edo probaren beste edozein erabiltzaileak puntu sendoak eta ahulak ikus ditzake.

en profiling
fr profilage
es perfil
ca perfil

414 programa

Dokumentu honetan ikasketa-planean sartzen diren alderdi guztiak aipatzen dira, eta baita edukien ordena ere. Konparatu: curriculum

en syllabus
fr syllabus
es programa de estudios (syllabus)
ca programa

415 prozedura ez-parametrikokoak

Prozedura estatistiko hauek honelako kasuetan erabiltzen dira: datuak banaketa mota normala ez dutenean, edota tarte-eskala batez neurtu ezin direnean. Chi karratua horren adibide garbia da. Konparatu: prozedura parametrikokoak

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 237-239. or.

en non-parametric procedures
fr procédures non-paramétriques
es procedimientos no-paramétricos
ca procediments no paramètrics

416 prozedura parametrikokoak

Prozedura estatistiko hauek honelakoetan erabiltzen dira: datuek banaketa normala dutenean eta tarte-eskalaz edo arrazoi-eskalaz neurtzen direnean. Izatez, banaketa normal antzeko bat osatzeko adina kasu ditugunean erabiltzen dira prozedura parametrikokoak.

Konparatu: prozedura ez-parametrikokoak

Bibliografia: Hatch & Lazaraton, 1991, 237-238. or.

en parametric procedures
fr procédures paramétriques
es procedimientos paramétricos
ca procediments paramètrics

417 puntuak

Item, ariketa edo proba batean guztira lor daitezkeen puntuak, edota azterketari batek lortu dituen puntuak.

en marks
fr notes
es calificación
ca puntuació

418 puntuazio analitikoak

Puntuatzeko metodo hau hizkuntzazko produkzio-probetan erabil liteke, adibidez mintzamenean edo idazmenean. Ebaluatzaileak puntu jakin batzuen balioespena egiten du kontrol-zerrenda bat erabiliz. Esaterako, idazmen-probaren eskala analitikoak puntu hauek izan litzake: gramatika, lexikoa, lokailuen erabilera etab.

Konparatu: balioespen globala, irudipenezko zuzenketa

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1986, 195. or.

en analytic scoring
fr notation analytique
es valoración analítica
ca puntuació analítica

419 puntuazio dikotomikoa

Bi kategoriatan oinarritutako puntuazioa. Adibidez, zuzena/okerra, gai/ez gai, bai/ez.

en dichotomous scoring
fr notation dichotomique
es puntuación dicotómica
ca puntuació dicotòmica

420 puntuazio eraldatua

Matematikoki eraldatua izan den puntuazioa, adibidez mailakatzeko edo haztatzeke.

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1991, 64-70. or.

en transformed score
fr note transformée
es puntuación transformada
ca puntuació transformada

421 puntuazio estandarra

Puntuazio multzo batetik abiatuta, era linealean eraldatutako puntuazioa. Batez besteko desbiderapena eta desbiderapen estandarra erabiltzaileak nahi duen balioan finkatzen dira. Puntuazio estandarrek dira, adibidez, z eta t puntuazioak.

Konparatu: t puntuazioa, z puntuazioa, estaninak

Bibliografia: Ebel & Frisbie, 1991, 67-68. or.

en	standard score
fr	note standard
es	puntuación estándar
ca	puntuació estàndard

422 puntuazio gordina

Azterketaren puntuazio zuzena, inolako transformazio estatistikorik, haztapenik edo birmailakatzerik izan ez duena.

Ikus: puntuazioa

en	raw score
fr	note brute
es	puntuación en bruto
ca	puntuació directa

423 puntuazio partzialeko itema

Item mota honetan, guztiz ongi edo guztiz gaizki ez dauden erantzunek ere saria izaten dute. Esaterako, erantzun batek puntu 1, 2 edo 3 jaso ditzake, aldez aurretik, gakoetan, definitu ditugun zuzentasun-mailen

en	partial credit item
-----------	---------------------

424 puntuazio politomikoa

Item bat puntuatzeko eskala honek gutxienez 3 puntu izan behar ditu. Esate baterako, galdera baten erantzunari 0, 1 edo 2 puntu eman dakizkioke (hiru aukera bereizirik). Galdera irekiak era politomikoan puntuatzen dira sarri. Eskala-puntuazioa edo puntuazio mailakatua ere deitzen zaio.

Konparatu: puntuazio dikotomikoa

en	polytomous scoring
fr	cotation (classification) polytomique
es	puntuación poltómica
ca	puntuació graduada

425 puntuazioa

a) Izangaiak proba batean lortutako puntu guztiak, bai mailakatu aurretik (puntuazio gordina) edo bai gero (puntuazio mailakatua).

b) Jasotako hizkuntza-produkzioari balio numerikoak ematea.

c) Item, azpiproba edo proba batek izan dezakeen gehieneko puntu-kopurua.

Konparatu: neurketa

Ikus: kalifikazioa, nota

en	score
fr	note
es	puntuación
ca	puntuació

426 puntuazio-hobekuntza

Puntuazio-aldea da. Bi puntuazio hartzen dira kontuan: batetik, ikastaroa hasi aurretik proba jakin batean lortutakoa eta, bestetik, ikastaroa bukatu ondoren proba berean edo antzeko batean lortutakoa. Puntuazio-hobekuntzak ikastaroan zenbat aurreratu den adierazten

en	gain score
fr	gain de points
es	aumento de la puntuación
ca	puntuació millorada

427 Rasch analisisa

Analisi hau eredu matematiko batean oinarrituta dago (honi eredu logistiko sinplea ere deitzen zaio). Ereduak erlazio hau planteatzen du: alde batetik, pertsona batek ariketa bat burutzeko duen probabilitatea eta, bestetik, pertsonaren gaitasunaren eta ariketaren zailtasunaren arteko diferentzia. Item-erantzunaren teorian erabiltzen den parametro bakarreko ereduaren baliokide

Ikus: item-erantzunaren teoria, kreditu partzialaren eredu,
Bibliografia: Henning 1987, 117-125. or.
balioespen-eskalaren eredu, alderdi anitzeko Rasch

en	Rasch analysis
fr	modèle de Rasch
es	modelo Rasch
ca	model de Rasch

428 rol-jokoa

Ariketa mota hau mintzamen-probetan erabili izan da batzuetan. Azterketariak egoera komunikatibo jakin batean daudela irudikatu behar dute edo rol jakin bat jokatu behar dutela.

en	role play
fr	jeu de rôle
es	juego de simulación (role play)
ca	joc de rol

429 sabai-efektua

Mutur-efektua hau azterketari multzo batentzat errazegi gertatu diren probetan agertzen da. Puntuazio guztiak banaketaren goiko mugan pilatzen dira.

Ikus: mutur-efektuak

en	ceiling effect
fr	effet de plafonnement
es	efecto techo
ca	efecte sostre

430 saiakuntza

Azterketa bateko ariketak prestatzeko fase bat da: saiakuntzan ariketok itxaroten genuen bezala funtzionatzen ote duten behatzen da. Era subjektiboan kalifikatzen diren ariketekin erabiltzen da sarri (esaterako, zerbait idaztea eskatzen duten ariketekin) eta populazio murriz bati aplikatzen zaizkio.

Konparatu: pretestatzea

- en trialling
- fr essai
- es ensayo
- ca assaig

431 sailkatze-proba

Proba honen bitartez ikasleak multzo edo gela egokian kokatzen dira, beren ezagutzak edo gaitasunak kontuan izanik.

- en placement test
- fr test de niveau
- es prueba de clasificación
- ca prova de col·locació

432 sakabanatzea

Azterketarien puntuazio multzo batek duen barreiadura edo sakabanatze-maila. Sakabanatzea zabala bada, puntuazioak elkarrengandik urrun daude, eta sakabanatzea txikia bada, puntuazioak elkarren

Ikus: desbiderapen estandarra, bariantza, ibilartea

- en dispersion
- fr dispersion
- es dispersión
- ca dispersió

433 sarbide-proba

Azterketaria erakunde edo ikastaro batean onartua izango den edo ez erabakitzeke erabiltzen dira honelako probak.

Konparatu: sailkatze-proba

- en entrance test
- fr test d'entrée
- es prueba de admisión
- ca prova d'accés

434 segurtasuna

